

errezildarren ateraldiak



erniarraitz
erretorikoki elkarrekin

uztarria



AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Errezildarren ateraldiak



Erniopeko baratz
edo paradisu,
argazkian xarmanta
ta hizketan maisu,
batean nahiz bestean
distira darizu.
Begi-belarrientzat
zu zera sari zu!

Imanol Lazkano

Egileak: Erniarraitz Bertsozale Elkartea
Uztarria Komunikazio Taldea

2013ko apirila

Azala eta kontrazala: Iñaki Martinez
Diseinua eta maketazioa: Uztarria Komunikazio Taldea
Inprimaketa: Antza (Lasarte)

I.S.B.N.: 978-84-695-7493-5
Lege Gordailua: SS-629-2013

Uztarria Komunikazio Taldea

Helbidea: Perez Arregi plaza, 1 behe. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa: 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@uztarria.com

web orria: www.uztarria.com

SARRERA MODURA

Imanol Lazkano

Juan Madariaga Orbea historialariak *Azpeitia, gizartea, kultura eta pentsamoldeak*, Azpeitiko Historiaren liburua argitaratu ondorengo hitzaldian zioen, XVI. eta XVII. mendeko berrietan, Azpeitia eta Bergararen arteko aldea ezkontzetan nabari zela batez ere. Bergara, pasabideko herria zen garai hartan, Madril, Errioxa, Araba eta Gipuzkoako kostaldearen artean, Frantziara bidean. Bergarako jendea nahiko maiz ezkontzen zen kanpokoekin, Azpeitia aldekoak aldiz bertakoekin gehienak. Azpeitia Madrilgo lineatik kanpo zegoen, kostakotik ere bai. Bertakoak bertakoekin ezkontzen ziren. Horregatik, hizkuntzak ere kanpo-eragin gutxiago izan zuen.

Bergaratik Azpeitira horrenbesteko aldea badago, pentsa zer izango zen Errezil. Erriopeko haitzulo hau oso “erreserba” berezia izango zen. Imajinatzen hasita, orain 400-500 urte, Tolosarako errepiderik ez zela, erreka bazterreko herri-bideak besterik gabe, Errezilen izango ziren amonak, orduan ere gizonak gehitxo mugituko ziren feriara, etab., beren bizitza osoa hemen bertan emandakoak, hemen jaio eta Azpeitiraino ere ia iritsi gabe asko. Bertako morroskoren batekin ezkondu, beta zuten adina ume egin, haiek ahal ziren ondoen hazi, ondoren jarraian bilobak hazten. 80 urteko amonak hilko ziren hemen bertatik atera ere egin gabe ia. Nolabait horrela irudikatzen dut nik garai hura.

Orduan, giro horrek, ia beste inongo kutsurik gabe, ez Tolosa, ez Azpeitia aldekorik, sortu du halako giro berezi bat Errezilen. Hasieran izango zen familiaren bat edo beste hizketarako dohain berezia zuena, baina gainerakoek ere beste inon baino gehiago landuko zuten hemen hizkera. Horrela, hizkuntzaren jolas horretan, oso mundu polita sortu da. Guk bertsolaritzan hainbeste urtez bertsotan ibiltzeko suertea izan dugunok, Euskal Herriko zazpi probintzietako ia herri txiki gehienak pasatu ditugu, baina niri inon ez zait tokatu, Errezilek bezalako hizketarako gatz hori duen herririk. Hori ez da kasualitatea. Erreserba moduko horretan gorde da berezitasun hori eta landu da izugarri. Horren adibide izan daiteke, herri honek azken

gizaldian eman duen adina bertsolari on: Basarri, Loidisaletxetarrak, Zepai, Txapel... Elizak hainbeste indar izan duen garaian izan ziren hizlari bikainak ere: Agirretxe, Begiristain... Esatari trebeak: Atxukarro, Maria Dolores Agirre... Errezilen, euskaraz pentsatu eta euskaraz hitz eginez, hizkuntzarekin jolas egiteko giro berezi horrek eman dio aparteko indarra herri honi, herri txikia, baina handia euskararen aberas-tasunean. Ni beti eroso sentitu izan naiz errezildarren artean.

Asko ikasi izan dut bertsolaritzarako nire "bizio" honetan. Hitz-joko horri Errezilen garrantzi izugarria ematen zaio. Bertsolari bat ez da beste inor baino listoago. Bertsolariak bere gimnasia berezia egiten du, hitz neurtuetan, arrazoia lantzen... Horretan ari dela ekartzen du erraztasun bat. Errezilen ere nire ustez, ahalegin berezi hori herri guztiak egin izan du, eta horrek sortu du hizkuntza bizi hori. Hau ere noski gero eta gehiago ari da nahasten gaur egungo mundu globalizatu hone-tan baina.

ZERGATIK BILKETA HAU?

Laxaro Azkune

Urte asko dira, 1975 urte ingurua izango zen, AEKko gau-eskolak ematen ari nintzen orduan, alfabetatzen ikastaroak Azpeitiko Betharramistetan, astean egun pare batean-edo. Tartean zen, Imanol Lazkano ikasle. Erdi lotsatuta ni, neure artean, “zer irakatsi behar diot honi?” pentsatuz. Hala, ausardia handiz, gure orduko ahalegina euskara batuaren xehetasunak erakustea zenez: ortografia arauak, aditz batuaren gorabeherak, etab., irakasten aritu nintzen. Euskara aberatsaren zenbait altxor irakatsi zizkigun ordea Imanolek, eta seguru nago neuk berari baino berak niri gehiago irakatsi zidala.

Harreman oso erosoak egin genuen, eta noizik behin hitz-aspertu ederrak egin ere bai. Horietako batean hasi zen Imanol kontatzen erreizildarren zenbait pasadizo. Ikaragarri gustatu zitzaizkidan eta, geroztik, harreman sarriagoa izatea egokitu zaigu, 1983an irratian hasi ondoren eta azken hamar urteetan batez ere, Erniarraitz Bertsozale Elkarteak sortu genuenetik are sarriago. Behin baino gehiagotan aipatu izan diot Imanoli, ateraldi horiek biltzeko ahalegina egin behar genukeela, laguntzeko prest nagoela.

Azkenik, neure eguneroko lan-obligazioak bukatuta une egokia iruditu zait iritsi ezinik nituen zenbait lantxori ekiteko.

Bilketa egiterakoan, parte hartu dutenak izan dira, batez ere, Imanol Lazkano, Juan Jose Eizmendi *Loidisaletxe*, Inazio Goenaga *Loidi Txuria* eta beste lagun talde bat afari ondoko giro ederrean, kontatzaileak ere animatuago egon zitezen, eta bururatuz gero berenak botatzeko edo gogorarazteko. Horrela egin ditugu bi afari, eta hortik atera emaitza nagusia.

Beste saio bat Añoi baserriko bi anaiekin, Josemari eta Jozinaziorekin (Odriozolatxon bizi dena) egina izan da. Eta azkenik, Iñaxiomari Atxukarroren

Irriparrezko Printzak liburutik jaso ditugu zenbait istorio, lan honetarako egoki irizita. Idazterakoan, hemen erabilitako idatz-arauetara moldatu ditugu istorio hauek ere.

Zeregin hau eskuartean dudala, bat eta bestearekin hizketan, ohartu naiz denek ez dutela beti oso gogoko izan horrelako ateraldiak egin ohi dituenarekin hitz egitea. Bati baino gehiagori entzun diot horietakoren baten aipamena eginda, hura ez zen hitz egiteko moduko gizona. Egia esan, zenbaitentzat jasangaitza gerta daiteke horrelako mozketak egiten duena, adi ibili beharrean jartzen baitzaitu, beti erne, lasai hizketan ari zirena, eta ez dute denek hain eroso eramaten hori. Ederrena barre egitea litzateke horrelako ateraldi baten aurrean, baita norberari ziria sartu bazaio ere, eta hurrengoan norbera saiatu halakoren bat bururatuz gero. Egia da berari egitea gogoko ez duenak ere irribarrez entzuten dituela ateraldi horiek, eta ez bestea leku txarrean uzten duelako hain zuzen. Hizketa bizia, hitzaren jolasa da azken batean, ez da inori barre egitea, zenbaitek halakotzat hartu arren, hizketarako abilezia lantzea eta erakustea baita berez. Jakina da beti dela erosoago beste norbaiti egiten diotenean norberari egindakoan baino, baina ez da inorekin haserre-tzeko motibo izango, edo ez luke behar. Barre asko egin dut nik hauek jasotzerakoan, zein idazterakoan ere.

Bestetik, ondorengo ateraldi eta istorioak irakurtzean ohartuko zarenez, zenbait pertsonaia ospetsua da berak ateraldi asko egin dituelako, beste zenbait ateraldi horien jomuga izan delako da gogoratua.

Ea nik entzuterakoan sentitu nuen/dudan zirrara horretatik izpiren bat bada ere iristen den zuregana irakurle. Badakit arazo asko direla, entzundakoaren bizitasuna paperean jartzerakoan. Ahozko euskara eta idatzizkoaren arteko etena –euskaldun asko baitabil oraindik idatzizko arauetatik oso urrun–, Errezilgo azpi-euskalkia, horren idazteko araurik eza, etab. Nik aukera bat egin dut, euskara batua erabili dut kontalariaren ahotan, haiek beren euskalkian kontatuak izan arren, eta ateraldiak bakarrik saiatu naiz errezildarren azpi-euskalkian jartzen. Ahal den hurbilen jarrita ere, ordea, falta dira ahoskera eta tonua. Horiek irakurle bakoitzak jarri beharko ditu. Agian ateraldi bat baino gehiago izango dira altuan, ahots ozenez, begiz eta belarriz irakurri beharrekoak. On egin!

ERREZILGO GARAI BATEKO ISTORIAO

ERREZIL ETA ERNIO

Bertso hauek Euskal Herriko egoerari buruz jarriak dira, eta erromatarren eta euskaldunen arteko gerra aitatzten dute.

Juan Benanzio Arakistainen (1828 Deba-1906 Tolosa) *Tradiciones vasco-cántabras* liburuan kontatzen dena nolabait laburturik: "Gerra hori Ernio mendian gertatu omen zen. Euskaldunak gailurretan; erromatarrak behean, mendia inguratuz. Euskaldunen buruzagiak Lekobide eta Otsobal ziren. Euskaldunak jatekoa urri zeukaten eta, orduan, zaharrek beren buruak amildegi batetik behera bota zituzten, gazte jendearentzat jateko gehiago izan zedin. Azkenean, ehun euskaldunek, Lartaun oiartzuarra buru zutela, ehun erromatarren kontra hiru borroka egitera prestatu ziren. Hiruretatik bi irabazten zituenak gerra irabazten zuen. Hemen euskaldunak nagusitu ziren; baita Erroman ere. Horregatik ez zen hirugarren borrokarik izan".



Argazkian, Ernio mendia.

Gai honen inguruan Xenpelar, Otaño eta Txirritak jarritako bertsoak dakartzagu adibide modura. Gauza hauek jakitea beharrezkoa zen, ondorengo bertsoak ongi ulertzeko. Gauza gehiago jakin nahi duenak Arakistainen *Tradiciones vasco-cántabras* liburua irakurri baino ez du egin behar. Baina gaurko historialarien ustez

erromatarren eta kantabiarren gerra hori ez omen zen Euskal Herrian gertatu, Santander eta Asturias aldean baizik.

JUAN FRANTZISKO PETRIARENA *XENPELAR* (1835-1869)

Hasiagatik etor-berritan
erromatarrak gogorki,
bost bat urtean zenbat pelea
galdu zituzten nork daki,
ahalegina egin izanagatik
nik hau ezin erabaki,
gerra nahiean baziran ere
aspertu ziran ederki,
soldadu harro orguilosoak
jolastun egonagati.

Euskaldunaren agintariak
hori entzutearekin,
erantzun zion: "Konforme gera
gu zuben esanarekin,
hirurehun mutil eskojitubak
hemen dauzkat nik nerekin,
azken bataila nahi badezute
honela egin gurekin,
buruz buruban etorri zaizte
soldadu onenarekin".

Behar bezela kunplitu zuten
beren hitz onorezkua,
eskojituba zegoen bada
batailarako lekua,
Gipuzkoaren ondra haundirako
zelai bat Errezilkua,
makinaren bat erromatarrek
bizia galdutakua,
egun beretik da herri hori
esan dan izenekua.

PEDRO MARI OTAÑO (1857-1910)

Kubako gure anaiak sortako zenbait bertso

1

Zenbat erauntsi sartu diraden
Españiko herrietan,
asko iritsi izandu dira
agintzera egietan,
Ebrotik haruntz ezagutuzten
ditugun alderdietan;
bainan Aitorren arrazak bere
lurra maite du zinetan,
ta euskaldunak libre bixitu
dira beren mendietan.

3

Lekobide zan buruzagia
orduko euskaldunena,
ehun urte ta hainbat gehiago
igaruak zituenen,
gero Otsobal bere lagunak
agintzen zuben hurrena,
Lartaun gaztia hoi en esana
zintzo egiten zuena,
ta ondorengo jende guztia
hoien antzekua dena.

5

Gerrari zaharrak erantzun zuten:
"Ederki dago gauz hori,
eta bertatik fin gaude hemen
denok jarraitzeko zuri,
gu Ernioko haitzetan behera
bostehun aiton buru-zuri,
amil gaitezen eta lehenbailehen
geren odola isuri,
ondorengorik Erromatarren
mendera ez dedin erori".

2

Nola Erromak mundu gehiena
harturik zeukan mendean,
gutziz sinismen haundia zuben
bere gerrari jendeak,
ta Oktabio Augusto hasi
zan euskaldunen galdean,
esanez bere gerra-gizonai
oraindik libre daude han,
ia ekarri zaizkidatzue
ahuntzak bezela artaldean.

4

Erromatarrak talde gogorrek
lur asko zuten berendu,
ta Lekobidek zaharrai deituaz
honela hitz egiten du:
"Jaunak Ernio danok luzaro
ezin gindezke mantendu,
ta sasoikuak saia ditez en
alperrik gaudenak kendu,
nire iritziz hobe genduke
hori egingo bagendu".

6

Beren semeak hartzen bazuten
erromatarren morrontza,
emazte eta alabentzako
seguru zetorren lotsa;
aiton hai entzat hau pentsatzea
hain zan samin ta zorrotza,
non maitasunen indarrarekin
altxarik beren bihotza,
ondorengoak bizi zitezen
hautu zuten heriotza.

7

Erromatarrak egonagatik
ohituta ateratzen jaun,
ekusirikan ezin zutela
lur hontan gehiago iraun,
esan zioten hoi en herrira
bost hogeikoren kontra ehun
zihoazela, eta harturik
laroita hemeretzi laun,
joan zan ta gailen han gertatu zan
Oartzungo seme Lartaun.

JOSE MANUEL LUJANBIO *TXIRRITA* (1860-1936)



Bertso berriyak, Txirritak jarriyak.

1

Orain bi mila urte inguru
bezela ziran hasiyak
erromatarrak berendu nahirik
gure zazpi probintziyak;
garai hartako abarkadunak
ziran jeniyo z bizi yak,
baziran penaz amildu eta
beren hezurrak hautsi yak,
lastimosuak izango ziran
haien orduko antsi yak!

2

Denbora hartako gerrero zaharrak
ziran gizon onraduak:
aziyuetan irabazita
jazten zituzten graduak;
hirurogeita lau urtekuak
bazebiltzan soldaduak,
orain bezela ez zuen inor
engainatutzen diruak,
Lekobide ta Osobal ziran
Kantabriako buruak.

3

Aitona hoiek zer pentsau zuten
azkeneko heriotzian,
ez genduela jakin izango
pena daukat bihotzian;
arrats guziyak hotzak guardiyan,
egunaz erdi gosian,
zenbat nahigabe sufritu zuten
Erniyoko gurutzian,
haien orduko oraziyuak
ederrak izango zian!

5

Arrosa baino zabalagoko
gure zazpi probintziyak,
baratza eder bat bezela zauden
guziyak lorez jantziyak;
lau Españiyan morroi gaudenak,
hiru han ditu Frantziyak,
gizon gaizto bat dala mediyo
ondatu ginan guziyak,
beste munduan ikusten badet
eman biazkat guziyak!

7

Geren sailari segi zaiogun,
ez bestetara mugitu,
motiborikan asko badaukat
ongi esan nahi banitu:
ni engainatzen ez baldin banaiz
Euskal Herriyak baditu,
Kantabriaren izenik ere
nahi ez dutenak aditu;
zazpi senide aita batenak
ezin gerade unitu.

4

Gure izeben amen amonen
osaben aiten aitonak,
hemen fueruak defenditutzen
ibilitako gizonak;
bertan bataila irabazita
gero Erromara joanak,
Octavianok galdu zituen
berebiziko lagunak;
haundi gaiztuak diran tokiyan
pagatzen du txiki onak.

6

Pertsegituak izandu gera
juan dan zenbat urtian,
asko zebiltzan agindu nahirik
Kantabriako partian,
mantxa gabeko lora ederrak
estalarikan lurpian;
errespetua guardatzen zuten
Lartaun hemen zan artian,
oraindik ere denbora dago
berriro saia gaitian.

8

Zazpi senide aita batenak
danak euskaldun garbiyak,
Tubal zarraren artaldetikan
banatutako ardiyak,
aitan aitona nungua zuten
ez dakitenak erdiyak;
utzi ditzagun bide ilunak,
bila ditzagun argiyak,
beti-betiko bere izena
izan dezan Kantabriyak.

9

Beren idea beste gauzarik
ez daukatenak buruan,
gaurko egunian halako asko
baditugu inguruan;
esaten zaie Kantabria honek
bere jabia nor duan,
kontra egiten hasten zaizkigu
setosuaren moduan,
geren anaiak ez ditugula
esan gentzake orduan.

11

Zazpi senide aita batenak
egotia hemen triste
fortunatu da desgrazi batez,
bainan ez genduan uste;
maitatzen dute etorri dana
besteren gauzaren eske,
egunen batez haserre samar
ikusi bihar gaituzte,
jakin dezaten bagerala gu
izena degun hainbeste.

13

Kolka txarraren azpiyan dauden
txito urrikalgarriyak,
hamarretatik bost hiltzen dira,
beste bostak elbarriyak:
pizti gaiztuen bildurrez beti
gora begira jarriyak,
indar gutxiko gorputzak eta
suspiriyuak larriyak;
kastigu honen mendian bizi
gera gaur euskal herriyak.

10

Baldin egiyaz egina bada
aurreko zaharren papera,
zazpi probintzi euskerazkuak
Kantabriatarrak gera;
nere bihotzak daukan asmua
beti dijoa pakera,
bide askotatik martxa zuzenik
ezin gentzake atera,
onena zein dan ongi neurtuta
bildu gaitezen batera.

12

Mundu honetan ezin bizita
ez degu joan nahi bestera,
gezurra esanda ez dago handik
etorritzerik osteraz;
arrazoi gabe eman ziguten
lege kontrako jazkera,
gainera berriz kontari daude
galduko dala euskera,
gogor egiten ezpazaiote
hoientzat haina ez gera.



ATERALDIAK ETA BERTSOAK

JUAN JOSE EZAMA *KORREO*

Errezilen bazen Korreo-zaharra, gizon famosoak eta Errezilgo jauntxo izana. Errezil eta Azpeitia arteko lotura egiten zuen, zaldi, mando eta karro. Hemendik Azpeitira esne eta gainerakoak eraman, enkarguak eta korreoa ekarri. Korreo hau besamotza zen, ez nago seguru ezkerra ala eskuina zuen motza, egunero edo egun biz bat seguru, goizean goiz Azpeitira joango zen. Han ondo gosalduta, inguruko baserritarrek baino hobeto, diruz ongi zebilelako, muturra gorri-gorri, animoso-animoso etorriko zen bidean gora bere zaldi eta karro. Azpeititik abiatu eta laster, Lapatz baserria zegoen, orain zabortegea dagoen lekuan. Elur-lapatsa omen zegoen eta lurmen lekuetan bere ardiak larratzen zebilen nonbait Lapatz artzaina. Korreo han zetorren adarrerako prest, eta Lapatz bere ardiekin. Seguru asko ez zuen artalde izugarria izango, tartean herrenak ere bai. Parera iritsi da eta Korreok bere zaldiari, “uo!” esanez:

- Lapatz, artzai ona izateko ardi herren gehiegi daukak!
- Hala irizte al diok? Heorrek'e eingo huke geanta lau-hankan jarriko bahitz (besamotza baitzen).
- Ia! Arre! –esan eta bidean aurrera gure Korreo beste erantzunik gabe.

Korreo Zaharra beste baten ere Azpeitian ondo gosalduta, ba doa Eitzeta baserri parean gora. Eitzeta zaharra, oraingo hauen aitona, orbel biltzen ari omen zen.

Korreo zaharra bere mandoekin bidean gora, animoso zetorren nonbait orduan ere, eta orroa egin omen zion Eitzetari besoa altxatuz:

- leu!

Eitzeta jiratu zen eta Korreo besoa altxatuta ikusi zuenean berak ere besoa altxatu omen zion. Ondoren baita beste besoa ere Eitzetak. Korreok, orduan, mandoei:

- la! –beste erantzunik ez.

Txikurik begiak irtenak zituen, anpolai izugarriak. Korreok berriz sudurra zuen izugarri handia. Korreok ardo eta pentsutegia zeukan, baita zaldi karroa ere. Txikuri argindar turbinaren zaintzaile zen. Brusa luzea jantzita, txapela txorrea eginda ibili ohi zuen. Azpeitiar hizketa egiten zuen. Urrestillako kasta izan behar zuen. Korreo, goiko iturrian ari zen, blist eta blast, kupela handiak garbitzen. Hor datorkio Txikuri Begi-haundi ingurura:

- Ai al haiz garbiketan?

- Bai aurtan bete're ein beherko'izkiu-ta. Napar alde hortan, hire begiik ainako mahats alek ba omen zerek.

- Aizak, nere begiyek aineko aliek badare, hire suturrekin ein beherko'ek ordun imutue, ontzi hoyek betetzeko.

AGERRETXE, BATISTA

Majadero ikaragarria omen zen. Bizikleta zale bat, nahiko ezaguna, Albizturko aldapan behera zihoala, aurreko erroberako radiotan makila sartu eta buruzgaina bota omen zuen. Gero hark auzitara jo eta multa handi samarra pagatu izango zuen. Ondorenean hala esaten omen zuen:

- Bazeuzkat azio polittak pentsauta, baino diru asko kostatze'ittuk.

ZUAZKETA, JOSE ANTONIO

Zuazketako Jose Antoniok badu apustu xelebrea jokatua. Hamabi orduan berak aizkora egin eta kanako egurra ebaki baietz eta ezetz egin zuten jokoa. Aurreneko sei ordu, Atxukarro aizkoragilearekin aizkora egiten pasa omen zituen eta Anjelusarekin hasi omen zen aizkora. Aizkora, begian behar bezala itsatsi gabe omen zeukan, eta pozik kontrarioak aizkorak ez ziola iraungo ustetan, baina aizkorak aguantatu eta lanak bukatzeko denbora sobratu.

Jose Antonio hau gerraondoko izarduna zen. 36ko azken gerra horretako irabazleek aurreko gerrako galtzaile zenbaiti kapitan izarra eman zieten nonbait. Eta gero haiek zaindu zituzten umeei, erretiro-saria eman zieten ez ezkontzeko kondizioarekin.

Hala esan omen zuen zahartuta zegoela:

- Bizitzan makina bat gauza proatua nauk, gerrak eta beste, baina danetan txarrena atzenengo hau: zahartzea.

Gaixo omen zegoen behin Jose Antonio, eta elizakoak hartuta zegoen aurrez nonbait. Apaiza etorri zaio bisitan eta:

- Zer moduz Jose Antonio?

- Hementxe nitxeok, bate Purgatoriora jun be zerura jun nahita, errezaue ta errezaue.

Jose Antonio, Irati aldean basolanean ibili zen eta han Iparraldeko elizaren batera mezatara joanda, sermoian hala entzun omen zuen apaiza, gizonari buruz esaten:

- Heldu zaizko 55 urte, eta harro gizona! Heldu zaizko 60, eta harro gizona! Heldu zaizko 65, hasi da bajatzen, hasi da bajatzen, ondu da gizona! Nei're hoixe pasa zait, ondu in naiz. Zerk ondu du gizona? Ezinak!

Elizako santuei buruz esan ohi zuen:

- Lehengo santuk bizarra luzea eta lepo mehea izeten zen. Oain ordea, batek baino bestek lepondo earroko gizonak jartze'ittue altarian.

Iturriozko neskazaharrak galdetu omen zion behin:

- Ze berri dao Errezilen, Joxe Antonio?

- Jendia haserre zebilen. Hildakoei burla asko eitte zeine.

- Hildakoei burla? Ze eitte zeue ba?

- Zea, aitze ez ta kantau, ikuste ez eta argiik piztu, jateik ez eta ogii eman... Hoi baino burla haundioik!

MANUEL JOSE ZUGASTI *IGORTEGI*

Ezaguna da Errezilen Igortegik botatako bertsoa, tabernan bertsotan ari zirela lagunak nekazari kaskarra zela esan eta hara bere erantzuna:

Arta motzez beteak
saletxe ta borda,
anea banakoak
ziento bat korda,
babarrun mordo bat'e
nunbaitian hor da,
nekazari hobia
laiotzian nor da?

Bidanikoren bati herriko festetan:

Bai gizona aurtengoz ere
herriko festak badatoz,
bisitatxo bat egin ezker
nahiagoko nuke askoz,
sabela ere beteko dizut
ogitik ez bada artoz,
egun alai bat pasatze ezker
gure etxeraino zatoz.

Santa Eskean Goiatzen:

Hamar xentimo ekarri ditu
Joxe mozkorran atsuk,
gehiago ez zun edukiko-ta
pranko egin du gaixuak.

EUSEBIO EIZMENDI *TXAPEL* (1893-1969)



Errezilgo Antxiturbi-goikoa edo Txapel baserrikoa zen, Txapel izenez ezagutu izan dugun bertsolaria. Zestugile lanak Azpeitira eraman zuen bizitzera. 1935 eta 1936ko Bertsolari Guduetan parte hartu zuen.

Bertso hau kantatu zion Zubeltzu bertsolariari, Azpeitiko taberna batean bertsoetan ari ziren egun batez:

Fruta politak izaten dira
mixurka eta mizpira,
ta biren bajak justu jotzen du
bederatzitik zazpira,
inoiz gainean egonagatik
joan liteke azpira,
lenago zendun nobia harek
eman al zizun despeira.

Gizon bat, beti andrea gora eta andrea beheara aritzen zen, gizon kaskilen bat noski,
eta behin batean, haren betiko jardunaz nazkatuta, bertso hau bota zion Txapelek:

Hamaika aldiz daukazu lehendik
zuk gauza hori esanik,
ez dezazula pentsatu inork
sinistatutzen dizunik;
sekula orain arte ez dezu
egin izandu gauz onik,
zure andria ezkondu zan da
ez zuan hartu gizonik.

Puntuak Txapeli:

*Zenbat urte dituzun
nik nahi nuke jakin...*

Txapelek:
Bela enteratuko zera
nere esanakin:
gainez eginda nago
berroita birekin,
konformatuko zera
horrenbesterekin.

*Azpeitiyan periyari
izaten al zera?*

Txapelek:
Laister emango dizut
horren aditzera:
lenguan ekarri nuan
asto bat saltzera,
bidian galdu eta
juan nintzan etxera.

Gerra-ondoan edo, behin batean, miseriaren gainean ari omen ziren bertsotan Basarri eta Txapel. Basarrik esan zion ez zegoela hain gaizki, kolore onak zeuzkala behintzat, eta Txapelek erantzun:

Ur-esne pixkat gosaitarako,
eguardirako patata,
arratserako edukitzen det
beti gosia galanta;
sardina-zar bi jartzen dizkate
bi aldetara jirata;
sinistu zazu biyotzetikan,
danak egizyak dira-ta.

Azpeitian, Takolo-Txiki izeneko tabernan, kamiñeroei jaialdiren bat egin zitzaientzatean, Txapel ere han zen, eta honako bertso hau kantatu omen zuen:

E'nuke esan nahi zeratenikan
narratsak edo alperrak,
bainan merezi dituzte-eta
esan biazkat ederrak:
beti geldikan eukitze'ituzte
atxurak eta palarrak,
gero astuak jan ditzatela
bazarretako belarrak.

Behin batez, Txapel eta bere lagunak tabernan aurkitzen ziren. Gazte batek burla egin zien... eta Txapelek, zorrotz kantatu zion:

Zure ofiziyua
eskandalu jartzen,
oraindik badakigu
harroak umiltzen,
hemen oso zaila da
tontuak abiltzen,
zure zahartuko zera
ez bazera hiltzen.

AKILINO IZAGIRRE ZEPAI (1906-1971)



Zepai eta Txapel bertsolariak Elgoibarko plazan, 1933an.

Azpeitiko Enparan kalean jaio eta Errezilgo Zepai baserrian hazi zen. Azpeitiko mugatik gertu dago Zepai baserria.

Txapelketatan punta-puntan ibili zen bere garaian. Bertsolari Guduak deitu txapelketatan, 1935ean, 3. postuan sailkatu zen, Basarri eta Matxin lapurtarraren atzetik; 1936koan, Azpeitiko kanporaketa irabazi eta Donostiako finalean 3. izan zen berriro, Txirrita eta Uztapideren ondoren.

Akilinok arrebatzako mordo bat bazuen Zepai baserrian. Horietako bat, Maria, emakume bikaina zen, baina sudur-kako dezentea zuena (Gerra-txiki baserrira ezkondu zen gero).

Zepai eta Maria gazteak zirela, Azpeitira azokara jaitsi ziren behin batean, neguan, astoa lagun, goizean goiz jaikita, eguna zabaltzerako etxetik abiatuta. Sinaratz erreka aldean behera jaitsi eta, 16-17 urteko neska pinpoilari hor iruditu zaio, eguna zabaltzerakoan, sudurrean zikinen bat ote daukan. Sudurrari begira neska hori, Akilino ondoan eta esaten dio:

- Akilino, uste'it suturrian zikinen bat daukatela, begira'iak.

Akilinok kasurik ez, aurrera bere martxan. Maria, berriz, gero eta kezkatuago. Eguna argitzen, Azpeititik gero eta gertuago, herrira txukun samar azaldu nahi, eta berriro dio:

- Akilino, beitu'iak ze zikin daukaten nere suturrian.

- Hara, neska! Garbii're badaukan sailera geanta eta joan hai lasai.

Txilerramendi bailara inguruan, egurretan zebiltzan mutilak. Akilino, gaztetxo, baso-mutilen laguntzaile zebilela, ur-bila bidali omen zuten, goi samarrean zegoen iturri batera.

Bidean denbora askotxo igarota, iturria ere agortu samarra-eta, urarekin iritsi zenean baso-mutil batek:

- Ze, Akilino, uddik geau al dek?

- Ez, baijua – Zepaik.

Bertsolari txingarra ernetzen hasia izan ordurako nonbait.

Akilinok, hamasei-hamazazpi urte zituela, Azpeitiko Oñazko Aizpuru baserrian denboraldi bat igaro omen zuen morroi.

Soro-lanetan zebilela, Azpeitiko ehiztari talde bat, soro goenean zihoan zazpi-zortzi zakurrekin. Zepairi galdera:

- Hi gazte, erbiik ikusi al dek?

Eta Zepaik honako bertso honekin erantzun omen zien:

Erbiak irten dizue
beheko pendizetik,
bera aurrian joan da
zakurrak atzetik,
zazpi tiro tira ta
hala ere zutik,
mendi aldian gora
hankak jaso zetik.

Bertsotan hasia zegoen Zepai, bere koinatu Txapel bertsolariarekin. Azketa baserrian ere bazen mutilzahar bat bertsotan apur bat jardun ohi zena. Behin batean, Errezilgo San Martinetan, bertso hau bota omen zion Akilinok Azketari:

Edozer gauza esaten du horrek
jartzen bazaio kasketan.
Aprikan dauden moruak aina
oaindik ez daki hizketan.
Errespetorik ez badaukazu
zere herriko pestetan,
plazara gehio atera gabe
egon zintezke Azketan.

Apaiz batek Zepairi puntua:

*Zuek parrandan eta
gu berriz elizan...*

Eta Zepaik:

Obra onak egina
damurik ez izan.
Jesukristo're lehen
mundun ibili zan,
gu salbatzeagatik
gurutzian hil zan.

Loidisaletxe bertsolariak, beste behin Zepairi puntu hau jarrita tabernan:

*Ardik goiz ateratzen
dittut nik arteitik...*

Zepaik:

Artzai izango zera
zere jatorritik,
ojuka ta orruaz
beti urrutitik,
baina nekez bialdu
besten barrutitik.

Zepaik ba omen zuen bertsotan ongi egiten zuen beste anaia bat ere, gerran hila.
Akilnok behin Igeldon hala kantatu zuen gerran galdutako bere anaiagatik:

Nik banuan anai bat
gerra hortan hila,
ta berarekin badira
makina bat mila.
Ez anaia zalako,
hura zan mutila!
Desio det zeruan
gertatu dedila.

Oiartzunen gaztetan palankaria izandako gizona zen, Esnaola. Honek palanka batzuek bota omen zituen Beheko Plazan, eta lehendabizikoak, han zegoen nesken eskolako teilatuan erori eta teila asko apurtu omen zituen. Ondoren bertsolariak ziren kantuan, eta haietako bat Zepai. Hasi omen ziren batak bat eta besteak bestea, eta Zepaik bertso hau bota omen zuen:

Ez da posible ondo neurtzia
gizonak horren indarrik,
zenbaitentzako ez da izaten
hezerik eta igarrik;
oraingo aldian ez dala baina
jaten txuleta ederrik,
hemengo teilatuak hausteko
ez da areoplano beharrik.

Bertso hau Oiartzunen guda aurretik abestua Txirrita eta Zepai bertsotan ari zirela.

Egun hartan Oiartzunen aizkolariak omen ziren. Ez dakigu apustua hala erakustaldia izan zen. Eta haiek ikustera-edo etorria omen zen Paulino Uzkudun, garai hartan oso izen handikoa.

Hori jakinik, Txirritak, bera goraldtu nahiaz, bertsoa abestu omen zuen, eta bertsoaren amaiera honela izan omen zen:

baldin plaza hontan arkitzen bada
altxa dezala besua.

Uzkudunengatik noski. Eta Zepaik ondorenean hau erantzun:

Ez da posible ondo neurtzia
Uzkudun horren kemenak,
orain artian bentzutu ditu
azaldu diran gehienak.
Jakinan gainin jartzera nua
lehenago ez zekitenak:
gure herrian jaiotzen dira
holako asta-kirtenak.



Paulino Uzkudun boxeolari ezaguna.

Behin batez, puntu hau jarri zioten Zepairi Azpeitian:

*Gaztaia merke al dago
Idiazabal hortan?*

Zepaik:
Preziyo baju hori
beti gerokotan;
bainan han ere artzaiak
ez zebiltzek lotan,
asko pagatu bihar
ona jatekotan.

Berastegin kantatua, puntutan ari zirela, Uztapide, Azkoiti, Basarri eta Zepaik:

Uztapidek:
Honek ez dik asko falta
oraintxe hiltzeko!
Azkoitik:
Zer alderdia dauka
mundun ibiltzeko?
Basarrik:
Zein da boluntario
zuluan sartzeko?
Zepaik:
Ni preparatuko naiz
buruan jotzeko.

Zepai bertsolaria, ospe pixka bat hartzen hasi eta oilar samar zebilen garaian, etorri da igande goiz baten Errezilera mezatara. Jakina, garai hartako sermoiak honelatsu izan ohi ziren:

"Gure Jainkoak sei egunean egin zuen mundua. Horrela esanda presaka egin da eta gaizki eginda ote dagoen pentsa liteke. Gezurra da hori! Gure Jainkoa huts-ezina da, dena egin zuen bakoitzak duen garrantziarekin, ezer ez dago alperreko-rik. Begira ezazue nahi duzuen bezala, gauza txikienak ere badu bere eginkizuna".

Hala, egin du ba bere jarduna. Meza ondoren, tabernan hamarretakoa egiten daudela etorri da apaiza ere.

- Hara! Hi're hemen al hitzan? – Zepairi – Hori jakitera, igual, izango nian sermoia egiteko kezka pixka bat gehiago. Zer moduzko sermoia iritzi diok?

- Ona, baina ez dezu dana egii esan.

- Zer zan ba egia ez dana?

- Alperrikako gauzak ein zittun gure Jainkuak, eo batematek.

- Alperrikakoak?

- Bai, hiru bai gutxinez.

- Zer dia ba alperrikako hoiek?

- Gizonezkoan titiik, eunez ilargii eta itsesuan ebii.

Beste behin Tolosako erietxean zegoela, bisitan joan zitzaion bere iloba Eusebio. Akilino esan zion:

- Zer ziotek Zepai aldian?

- Donostin dia gaur osaba-izebak.
- Ze ba?
- Zea, zardadia iristeko papelak eitte-a-eo junak izan beher de.
- Zardadia? Esaiek, ez ezertan ibiltzeko, zardadia bila ibili be iriste'k-eta.

Etumeta aldean baziren garai baten hamabi bat baserri, orain dela 50 urte inguru. Gaur egun baserri bakar batean biziko dira, Zepai baserria da horietako bat. Akilino, Zepai baserrira iritsi zen batean, etxeko anaia zaharrak, igarle ona nonbait, bazuen kezka bailararen etorkizunean. Aurreko egun batean auzotar baten heriotza zela-eta esan omen zion, Akilino:

- Muno-haundiko Estanis, eaman die gizajual
- Bai, hil hontan biarrena gue baileran. Martxa hontan bailerako azkenekua're aurki emango'ie.

Ta Zepaik orduan:

- Ta hua zeinek eaman beher dik?

Egun batez, Itsaso Legorreko emakume batek bere herrira joateko autobusa non zegoen jakin nahirik, hala galdetu omen zion Zepairi Ordizian:

- Aizu, gizon, ba al dakizu Itsasorako autobusa nun hartze'an?
- Bai, Pasaiko puertuan -Zepaik.

Akilino Zepai elkartu da aspaldiko lagun zahar batekin eta hor esaten dio:

- Ze mouz habil?

- Hementxe nahiko larri, diruukin gaizki.
- Ni diruukin hobeto ibiltze'nauk, diruipe gaizki –Zepaik.

ETUMETAKO KUPELGILEA

Gure gurasoek esan ohi zuten garai batean, ofizioa ikasiko bazen, ordainduta joan behar izaten zutela, Azpeitira edo beste norabait.

Etumetako gazte bati, kupelgile edo barrikagile izateko ilusioa sortu zitzaion nonbait eta informatu zen non ikasi zezakeen ere. Pasaian zegoen, barrika edo kupelak egiteko tokia. Aitak eraman du bertara eta bilatu dizkio familia eta lantokia. Urtebete edo urte eta erdi pasatu ditu han ofizioa ikasten, etorri da etxera eta aitaren galdera:

- Ta ze, ikixi al dek barrikia eitten?
- Bai, erremintak eta materiala izen ezkeo eingo nuke nik...

Aitak ba, semeak ofizioa ikasi zuelakoan, ekarri dizkio erremintak eta materiala semeari. Semea hasi da barrika egiten... Ez dakigu zenbat denbora pasatu izango zuen lan horretan. Bukatutzat eman zuenean esan dio aitari:

- Hau bukauta dao ba, eta uddakin proau beherko deu.

Aita ere semea lanean ari zen denboran begira egon izango zitzaion, lanean nola ari zen, eta erantzuten dio:

- Uddakin? Eon hai lasai, uddakin hurrengua proauko'iu, hau oilo-lokakin ta txi-takin proauko'iu.

Eta probatu dute ba txitak ateratzen, eta txitak kanpora atera omen ziren, baina oila-loka barruan gelditu. Hortik kontuak atera zer egingo zuen urak.

ERDOIZTA BELTZA

Erdoizta Beltza, Jose Manuel, gizon antzinako baten prototipo horietakoa zen, argala, sudur-kakoduna, txapela txorroan eta brusa beltza jantzita beti ibili ohi zena.

Errezilen garai hartan 4-5 apaiz egon ohi ziren finko. Azkena ailegatzen zen apaiza, Erdoiztako parroko jartzen omen zuten.



Erdoiztako ermita.

Apaiz gazte bat bidali zuten Erdoiztara. Erdoiztako eliza eraikin berezi samarra da, forma biribilekoa. Erlojua ere ba omen zuen, baina aberiatuta urteetan. Apaiz gaztea ilusioz beteta etorri zen, berrikuntzak ekarri nahian. Elizara etorri eta ikusi du erlojua geldirik, eta gaur egun gehienok eskumuturrean bana badugu ere, ez zen hala garai hartan. Bere kasa pentsatzen du, “Erdoizta bailara honetan erlojuak egingo luke ba mesede ederra, auzotarrek zer ordutan bizi diren jakiteko-eta...”. Pentsatu du hura konpontzeko bidea egin behar duela. Azpeitira joan eta erlojugilaren bati aurrekontua eskatu dio, eta honek eman ere bai.

Hurrengo igandean meza amaieran apaiz gazteak: “Nik uste badaukagula auzo honetan eginkizun premiazko bat. Badakizue erlojua geldirik dagoela eta jakin dudanez denbora dezente da ez dabilela. Zuen lanetan, artajorran nahiz garotan zabiltzatela, ordua jakiteko-eta ondo etorriko litzaizueke hau konpontzea. Hori konpontzeko aurrekontua ere eskatu det. Horrenbeste kostatzen da. Horren banaketa egin det eta baserri bakoitzak horrenbeste ordainduta konpondu liteke”.

Baserritarrak konforme denak. *Erdoizta Beltza*, Jose Manuel, ez omen zen oso elizkoia ere eta faltako zen. Apaiza hasi da haren galdezka, hari ere eskatu beharko zitzaioela-eta.

- Han ibiliko'a Komizulotza aldian bere ardi xarrekin – esan omen zioten.

Meza ondoan, hamaiketakoa egin ondoren joan da apaiz gaztea Jose Manuel horrengana:

- Kaixo, egun on!

- Zu, zein zaittugu? –errezeloz begira.

- Ni, apaiza, Erdoiztara bidali nautena. Konturatu naiz erlojua dagoela geldirik eta hori martxan jartzea komeni da. Polita izango litzake, zuek hemen mendian zabiltzatela, orduaren berri jakiteko-eta. Aurrekontua ere eskatu det, eta baserri bakoitzari horrenbeste tokatzen zaio. Zuk ere jarriko dezu zure partea ezta?

- Erloju? Hoixe baino makina txorooik! Ez, ez, gizonak ez du erloju beherrik. Gizona animalik bezalaxe'a, gosetutakuan jan, egarritutakuan ean, louretutakuan lo ein, nahiko lo eindakuan jeki, ta aurea. Nik alper alperrik det erloju. Nei alperrik ai zea.

- Beno, beno! Beste denak konforme daude eta konpondu egin beharko degu ba, halare.

- Nahi'zuna ein. Nei ez dit erlojuk bate paltaik eitten.

Hala bidali zuen apaiz gaztea bere ondotik.

Apaizari, Erdoiztan urte pare bat-edo egin eta, Ameriketara, misiotarako destinoa eman zioten gero. Joaterako, auzotar denak agurtu zituen, baina orduan ere gure Jose Manuel falta. Hura ere agurtu behar zuela-eta hor joan da bere ardiekin zebilen lekura:

- Beno, Jose Manuel, banoa ba!

- Noa zuaz?

- Ameriketara... –Garai hartan Ameriketara joateko arrazoia dirua egitera joatea zen.

- Apaiza Amerikataa? Zertaa? –Jose Manuelek ulertu ezinez.

- Zertara? Jesukristoren dotrina, fedea zabaltzera...

- Amerikatan fedia zabaldu? Lehen'e pila geanta eongo'a Amerikatan...

- Horixe ez ba! Gainuntzean bai, baina fedea, horixe ez dago ba han!

- Derrior eon beher du...

- Zuk nola dakizu hori?

- Nola? Hemendik jundako danak han utzita etortze'ialako.

Hala ba, apaiz horrek egin ditu Ameriketako urte batzuk, bi-hiru edo eta etorri da berriz ere alde honetara. Erdoiztako hain oroimen ona zeukanez etorri da auzotar-
rak agurtzera. Meza eman eta ondorengo galdera:

- Ta, Jose Manuel bizi al da?

- Bai, oaindik iual-iuala dao. Hor ibiliko'a oain'e bere ardiikin nunbaitian.

"Joan behar det ba" esan eta hor doa bere bila. Graziatan erori zitzaion nonbait gure Jose Manuel...

- Kaixo, Jose Manuel!

- Zu zein zaittugu ba? –berriro ere.

- Ez al zera akordatzen orain urte batzuk nola izan nintzen hemen? Erdoiztan urte pare bat egin eta gero misioetara, Ameriketara, nola joan nintzen.

- Bai, bai, oain akordatze naiz. Ta ze mouz zea?

- Ondo, ta zu?

- Hementxe betiko moun, ardi xar hauekintxe, mendiin. Ze eingo'ezu...

- Honezkero errezoan-ta hasiko zinen ba?

- Keba! Nik ez det bate errezatzen.

- Jose Manuel! la larogei urte gainean eta ez zerala oraindik errezoan hasi!

- Errezoak ez du bate balio.

- Baina nola esan zenezake adin horretan errezoak ez duela balio?

- Ez, ez, zuek esate'ezuen Jainko horrek ni zeruako ein banau, neetzat tokii han eongo'a. Inpernuako ein banau, berriz, gizon horri kontra eittia alperrik izengo'a. Eta beste zuek asmatuko purgatorio eo dalako hortan berriz, hor errezuak ez du balio, hor diruu beher du.

Erdoizta Beltza, Jose Manuel ez zen nonbait gazteek etxera ekarritako aurre-rapenekin oso fio. Haien etxeraino kaminoa egin zutenean, semeek motorra ekarri izango zuten, eta aita motorrean jartzea nahi, proba zezan, eta erreguka ari zirela ikusita erantzun omen zien:

- Ez, ez, ni e'nauk motorrian jarriko. Etxe bateako bi entierro eun batian gauza tristiaek- eta!

Jose Manuelek esaten omen zuen dirua ere ez zela asko hartzea prezixo, hartutakoari kontu egin behar zitzaiola dirua izango bazan.

Jose Manuelek esana beste hau ere:

- Nik esturiau beher banu oain, soinujotzaile edo abogau esturiatuko nikik. Txoautako jende guztii hoitta jut'ek eta diruu hoik eitte'ie.

IÑAKI EIZMENDI *BASARRI* (1913-1999)



Errezilgo Granada-erreka baserrian sortu zen, baina gazterik joan zen Zarautzera bizitzera. Bertsolari eta kazetari ofizioz, hizketarako eta idazteko zuen trebeziak jende askoren estimua ekarri zion. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia birritan irabazi zuen, 1935ean Bertsolari Guduak izeneko, 1936an gaitzartzaile izan zen aurrekoa irabazi zuelako, eta gerra ondoren jokaturako lehenbizikoa, 1960an.

Bertso asko idatzi eta argitaratu zuen garaiko aldizkarietan. Irratiko esatari eta kazetari ere izan zen. Aldizkarietan argitaratutako bertsoekin hiru bertso-bilduma kaleratu zituen: Basarri'ren bertso-sorta (1950), Kantari nator (1960) eta Laugarren Txinpartak (1966). Ohorezko euskaltzain izan zen.

Guk sorta horietatik batzuk bakarrik hautatu ditugu:

“1937. urtea zen. Frantzian, Landesetako pinu artean irabazten genuen eguneroko ogia. Gau eta egun, Gernikako txikiketa geneukan burutik kendu ezinik” dio Basarrik. Neurrigabeko ezbehar hartaz kezkatutik, hamalau bertso jarri zituen. Parisen argitaratzen zen euskal aldizkari batean argitaratu ziren. Joseba Tapiaren *Agur Intxorta maite* diskoan daude Sebastian Lizasok kantaturik.

GERNIKAKO TXIKIKETA

1

Milla ta bederatzirehun da
hogeita hamazazpia,
euskotarrentzat urte beltz, ilun,
triste ta negargarria.
Hauts bihurturik utzi zutena
Gernika zoragarria,
eusko reliki maitatuenak
gordetzen zitun herria.

2

Pitxirik goxo ta kuttunena
zu zinan euskaldunentzat,
lur mardul, ona eman baizendun
arbola santuarentzat.
Pentsatu hutsez begiak ibai
ditugu negararentzat.
Horra zer sari modu zeukaten
etsai ankerrak zuretzat!

3

Apirileko hilarekin zan,
hogeita seigarrenean,
hain juxtu ere peri eguna,
astelehen arratsaldean;
kale-baserri, milaka anai,
gizatasun ederrean,
plaza inguruan aurkitzen ziran
lehengo ohitura zaharrean.

4

Kanpantorreko ezkilak hasi
ziran dinbili-danbala,
goiko piztien motor burruna
entzuna zan berehala;
emakume ta ume gaixoak
kurrixka zeriotea,
heriotzari igesi nahirik
nora jo ez zekitela.

5

Bertsoz nork esan bonba txar haien
indar gaiztozko danbarra?
Ez zuten behintzat osorik utzi
bizileku bat bakarra.
Ta dana xehetu zuten garaian
alde guztitik su-garra.
Errugabeko gixaxoentzat
horra hor azken ederra!

7

Ehunka izan ziran etxe jausien
zakarpetan geldituak.
Nork daki zenbat kale gorrian
zeharo erdibituak?
Inpernu hontan uzten gaituzte
laguntza gabe galduak.
O, euskaldunen min-oinazetik,
ez du sentitzen munduak!

9

Puska dituzte gure herri polit,
apain eta maitekorrak,
puska dituzte baserri txuri,
gure kabi on, xamurrak.
Ta zirtzildurik kaletan utzi,
o, euskaldunen hezurrak,
Alemanitik gu txikitzero
etorritako maltzurrak!

6

Bizi ziranak igesten zuten
sutegi zakar hartatik,
baina hegazkinak tiro ta tiro
etengabe goietatik;
kristau gorputzak alde batetik,
beso-buruak bestetik,
odol gorrizko itsaso hartan
ez zan ikusten besterik.

8

Milatik gora izango ziran
arnasa utzitakoak,
ez jakin zenbat bizi guztiko
eri gelditutakoak.
Hoietatikan gehientsuenak
andrezko ta umetxoak.
Guda txar hortan erru galantik
izango zuten gaixoak!

10

Basati gaizto, odolzaleak
atzeritatik ekartzen,
tokirik zoragarrienari
txikitu ta su ematen;
hauts egindako gure Gernika
antsika dago esaten,
Franco ta bere laguntzaileak
zein bihotz ona daukaten.

11

España haundi bat egin asmotan
gerra txar hortan hasiak;
euskal herririk ederren haiek
zeuen aginduz hautsiak;
denborak joanda gero damutzen
zeraten pekatariak,
zer grinetako jaunak zeraten
badaki mundu guztiak.

13

Bere lekuan erne ta zintzo
hortxe dago euskalduna,
berak baitaki zein ederra dan
barrengo garbitasuna.
Itxaron, jaunak, itxaron lasai,
iritsiko da eguna,
goiko Jaunaren aurean kontu
eman beharko deguna!

12

Ikusi zuten neurrigabeko
pekatua zeukatela,
ikusi zuten hainbat kristau on
odolustu zituztela;
ikusi zuten mundua kontra
jeikiko zitzaietela,
eta orduan zabaldu zuten
gorriak erre zutela.

14

Ez da, ez, alperrikako izan
hor isuri dan odola,
pentsa oraindik emaitz ederrak
ematekotan dagola.
Eusko gogoa armez ta indarrez
ezin hil leike inola,
Gernika erre ziguten baina
zutik daukagu arbola.

1

Negu beltzaren ondorenean
heldu zaigu udaberri;
txoriak kantuz ari dira-ta
hortara dator Basarri.
Ni jaio nintzan txoko polit hau
ez al da ba goralgarri?
Baso ta mendiz inguratua
bera izanik lorategi,
Ernio zaharra bertan dularik
zaitzale ta gordelari,
goi gallurrean gurutz donea
fedearen azalgarri;
orain artean bezela aurrera
jarrai zaiogun berari.
Argitasuna eskatzen diot
zeruetako Jaunari,
zintzo ta sendo ekin deiodan
San Franziskoren gaiari.
Haundi ta txiki, zahar eta gazte,
gizon-emakumeori,
lehendabiziko bihotz-bihotzez
arratsalde on danori.

2

Milla ta ehun gehiagorekin
laroita bigarreanean,
Italiako Umbria izenez
ezagutzen dan sailean,
Asis deritzan herri polit bat
mendi baten hegalean,
hantxe sortu zan gure Frantzisko,
hantxe, bai, zorionean,
gure iduzki zoragarria
Dante baten esanean.
Gazte-gazterik sutu zitzaigun
zerutar maitasunean,
aberastasun pranko izan arren
aitaren aldamenean,
danak utzita bizi nahi zuan
pobretasun haundinean.
Animen alde han ekin zion
gau ta eguneko lanean,
hiru kibistatiko kordoia
jantzirik bere soinean...
zer ikasia badauka batek
pentsatzen jartzen danean!

3

Frantziskon aita merkatari zan
eta diru pranko zuna,
semea berriz danak utzita
izan zeiken behartsuna,
Jesukristoren jarraitzailea,
txiro guzien laguna,
Salbatzailean bost zauri mingotz
gorputz berean zituna,
gogoan baizun Eleiz-arauak
garbi esaten diguna:
"Anima galtzen dunak zertako
munduko aberastasuna?",
lepradunaren gozatzailea,
gaixoen alaitasuna,
harrokerian etsai gogorra,
bera zan apaltasuna,
bere burua umil egiten
ai haren estuasuna!
Ongi dakigu neurri hartara
iristerik ez dagona,
baina ispilu hortan begituz
egin zagun al deguna!

4

Gaur egunean ikusten dana
apaltasunaren falta,
alde guzitan harrokeria
zeharo jabetu da-ta.
Animalien gisara gabiltz
anima alde bat lagata,
geroni ondo izan ezker
bestegatik zer inporta?
Lagun hurkoa al baldin bada
leize-zuloraino bota;
gerokoaren ajola gabe
lur hontarako arreta,
pekatu danak besterentzako
ta nork bereak gordeta;
gerra, odola eta lutoa,
herri ederrenak erreta;
maitetasuna lurperaturik
danok gorrotoz beteta..
Arren, Frantzisko, erruki gutzaz,
zure premian gaude-ta,
salbaziorik merezi ez degun
bihotz gogorrek gera-ta.

5

Bihotza jaso ta Frantziskori
egin geure eskariak;
bitartekotzat hartzen badegu
ai zer grazi ugariak!
Asisko eskaletxo apalak
hain ditu indar haundiak,
larros bihurtzen ziran lehen ere
arantzak eta sasiak,
baldin zapaltzen bazitun behintzat
Frantziskoren haragiak...
Hiru Ordena sortu zituan
hain santu harrigarriak:
lehendabiziko osa zitunak
izenez praile txikiak;
ta Santa Klarak bere eskutik
hartu zituen jantziak;
azkenik Hirugarren Ordena,
goazen bertara guziak!
Hemen arretaz entzuten dira,
bai, Jaungoikozko berriak...
inor bada-ta erantzungo al du,
noski, Errezilgo herriak!

6

Erruki gutzaz eta zabaldu
zerutar bendizioak,
goitar grazitan igurtzi, arren,
bekoak eta goikoak.
Zure bitartez behar dana eman
dezaigula Jaungoikoak,
laguntza hori eskatzen dizu
Errezilgo herri sendoak.
Bedeinka itzazu hemengo ibar,
mendiak eta basoak,
bedeinka itzazu zelai ta erreka,
sagasti eta soroak,
txiro ta aberats, nagusi, morroi,
gaztedi ta gurasoak,
berdin amaren bular xamurrez
hazten hor dauden haurtxoak,
baratz honetan ez bitez palta
lore usaintsu goxoak;
ta gure heriotzako orduan
luzatu zure besoak...
Honenbestekin bukatzen dira
Basarrin gaurko bertsoak!

1962KO TXAPELKETA NAGUSIAN

Bertsolari guztientzat gai berdina jarri zuen Irigoien jaunak: "bisigua". Eta bertso bana bota behar zuten, baina bederatzi puntukoan, Iparragirreraren doinuaren edo, *Haizak hi, mutil, mañontzi* doinuaren. Basarrik haxe kantatu zuen bere txanda etorri zitzaionean:

Olio eta piperrarekin
zein ez du horrek gozatuko?
Bazkari eder bat ez ote degu
egun hontan osatuko?
Bixigu begi-gorri,
begira danok horri.
Nor ez da inguratuko?
Nik desapio egiten dizut
etzerala sobratuko.

ERREZIL BERTSOLARIARI (Zeruko Argia, 1965/10/24).

Juan Eizmendi, *Errezil* bertsolaria, Errezilgo Loidisaletxan jaio zen 1917 urtean. Hortik zetorkion izengoitia. Baina bere denborarik gehiena Lapurdiko Urruñan egin zuen.

1964ko irailean hil zen minbiziak jota, 47 urterekin, Urruñan. Elisabeth Mocerrea, bertako alabarekin ezkondua zen. Sei seme-alaba izan zituen. Buztingorri deritzan etxean bizi zen. Hargina zen ofizioz. Hil-berria jakitean, honako bertso hauek moldatu zituen Basarrik, lagun eta herritarra zuen bertsolariaren oroigarri:

1

Egun-urratzez lehengo zugaitza
mutu ikusten diat nik,
ez zeok lehengo "txioka" hotsik,
ez lehengo alaitasunik.
Inoiz aspertzen ez hintzan txori
urretxindorra izanik,
nork uste behar zian hain azkar
ezkutatuko hintzanik?

2

Ilun ta triste gelditu gaituk
hire lagun on ginanak,
mutu ta bakar dagon zugaitzez
hainbat oroitzen geranak.
Bukatu dituk hire saminak,
hire neke ta lan danak,
kantatu dituk mundu honetan
kantatu behar ziranak.

3

Gure begiak ez haute berriz
lur gain hontan ikusiko,
lehengo erara alkar tentatzen
ez gaituk hemen hasiko.
Gure Jainkoak ez hinduan hi
bazter batera utziko,
guretzat toki on bat gertu zak
bihar ezpada etziko.

4

Gure artetik goruntz baziak
hamaikatxo otoitz isil.
Gorputzez ezkutatuagatik
espirituz urre habil.
Beti gogoan izango haugu,
hi guretzako ez haiz hil;
Egun Haundia datorren arte
agur, lagun zahar *Errezi!*

1983ko uholdearen ondoren jarria dela uste dut ondorengo hau:

Aurtengo urtea urte beltza da,
jarrita nago ikaran.
Inoiz ainako enbarazurik
ezta izango ganbaran.
Horra sarritan nekazariak
zer buruzpide daraman:
Soroetako gauza pitina
ez dakit nora joan dan,
lehenago harriak txikitu zitun
ta orain urak eraman.

GARATE

Meza ondoan leku askotan bezala tertulian omen zeuden, Errezilen, gosea nahiko ugari eta neguan hotza ere nahiko gogorra ohi zen garai hartan. Eztabaida atera behar izan zuten beren artean, hotza ala gosea zein ote zen okerrago. Batzuek hotza zela besteek gosea. Horretan ari zirela hor sartu da tabernara Garateko mutilzaharra. Batek esan omen zuen:

- Inork jakittekotan horretxek jakingo'ik zein dan okerrao hotza ala gosia, galdeu ein beher zeuau. Aizu, Garate, disputan ai gea, zein da okerro, hotza ala gosia?

- Ai gizajuak! Hoik banaka ez dittuk eze. Hoik biik batea dittuk txarrak.

PROBAK, APUSTUAK...

Añoiko Joxe Marik kontatu digu:

"Gaur eun elkarrizketa girua gutxitu ein da gue artian. Oso bakan bizi gea. Gue gazte denboan gue gurasok eta Muskakok elkarrizketako joera haundi zeen.

Lehengo zaharrak mendia behiakin zijuazenian eo ganau-jatenak biltzen ai zian'e sekulako kontu esan-aldiik eitte zittuen behiak hausnarrian zittuela. Sekula presaik ez. Oaingo aurrerapen hau presakakua da.

Garai batian, Muska zahar zana probalari eta apustu zalia zan, gure aittakin beti histori hutsian aitze zan. Orbela biltzea abittu ta *Garteta* esate'oun lekun utzi erremintak eta kontuk esan ta esan, hamabittako kanpai handi jo, aittu eta erremintak bertan utzitta etxea etorri ginan behin baino gehiotan. Ordun lasai ibili ohi zian.

Muskako Joan Maik eta gue aitta-zanak hamabittakua jo ezkeo *Anjelusa* errezau ohi zeen biin artian, baitta artajorran ai bazian'e. Agoni entzuten bazeen berdin. Geo elkarren arteko historiik'e asko.

Apustu kontu izan ohi zeen batez'e. Gu ume gineneako hasi zin Abittakuakin probak jokatzan Muskakok. Muskako aitta-semek itzai alde batetik eta Abittako aitta-semek bestetik. Muskako behiak 51 plaza in zittuzten, Abittakuak 7. Behi batek nunbait bate ez lanik in. Halare disputa atea zeen, behi onena Abittan zeuala eta etzeuala. Behi bakarka jokatzeko in zeen apustu, Azpeitiko harri *zurii* izenekuakin. Abittako behia hiru plazako bi zinta faltan geldittu zan, ondoren Muskakok etzuan ondu.

Behi hoi ernai omen zeuan, baina Errementateiko Jose Anjelek behi hua antzu eongo zala zabaldu izan beher zuan. Behiak umia in zuanian hala esan omen zion Abittak:

- Hire behi antzuk umia in dik ba, ikusi nahi al dek etxian ikusi ez dekan beza-lakua?

Beste pasadizo hau Errezilgo kaminoa egin aurrekoa izan behar du. Itzainen batek Borondegín bazkaldu omen zuen, baina lanak izango zituen nonbait bazkaria pagatzeko dirua osatzen. Pezeta kostatzen omen zen bazkaria, 34 ezkutu zituen pezetak, eta itzainak 33 ezkutu osatu izango zituen, baina azkena falta. Faltza zuen ezkutuaren ordean bertsoa kantatuko zuela esan, eta honela kantatu izan behar zuen:

Hoita hamahiru ezkutu
ia pezta egin
ez naiz osatzen baino
urruti ez nabil.
Pobriaren dirua
beti dantzan dabil,
sakela hutsik eta
poltsikua arin.
Aida idiak, aida,
lehenbailehen joan nadin.

Lehenago bide zaharrean, kaminoa egin aurreko bidea, Borondegiko ataritik, Belamenditik zehar San Jose aldean zehar zen. Bazen puntu bat, itzainak gelditu ohi zirena, Etzil izeneko iturria eta baserria zituena. Itzainek han geldialdiak egiten zituzten.

Garai hartan Pazkoakoa, arbia loratzen zen garaian egin behar izaten zen, eta *arbi-lorakoa* esaten zioten Pazkoakoari. Garai hartakoa kontatzen zuten, errezildar itzainen batek ez zuen nonbait Pazkoakoa egiteko presa handirik izango, eta beste denak baino lehen loratuta zegoen arbi-ondo baten ondora joan eta...

- Hi're bestiak arte egon'hai erten'be -esanez akuiluarekin txikitu omen zuen.

Etzil baserri horretako andre-gizonek ere eztabaida izan izango zuten nonbait, eta andrea beste bati kontatzen ari zitzaion etxeko pasadizoa:

- San Martiñak'e badatozela ta aurten kafia ein beherko deula esate'u gue gizonak.

- Nik esate'iot, kafia aurrena eman beherko deula, eta gue gizonak esate'u, Bondeiko Joxepak atzena emateula.

Ez zuten kafea egunero hartuko haiek ez.

Beste behin egun-pasa eginda, Etzilgo iturri horren ondoan txiza egiten hasi izango zen Zabaleko Anton, maskuria ondo samar beteta izango zuen nonbait. Hura lantegi horretan utzita aurrera jarraitu zuten besteek, baina Anton ez etortzen...

- Nun zaude, Anton? –andreak.

- Ez al dek etorri beher? –beste lagunak.

- Ai dek hau, oaindik ai dek! –Antonek.

Handik geroxeago hor esaten du berak:

- Ai, mararikatu! Neoni ai nitzalakuan, iturri-hotsa aitze'nin! –Deskuidua pasa izango zitzaion.

Mandazain bati juzgatura deitu omen zioten, basomutilen baten lapikoa mandoak ostikoz jota hautsi zuelako. Mandazainak honela egin omen zuen deklarazioa juzgatu:

"Konparazion konparando:
hi haizelako mando,
heldzen dik moskito,
tiratzen dek ostiko,
jotzen dek lapiko,
ez al huke hautsiko?"

LOIDISALETXETARRAK

LUIS EIZMENDI (1987-1963)

(Antonio Mariren aita eta Joan Joxeren aitona)



Luis Eizmendi *Loidisaletxe* eta Atxukarro, biak auzotar, biak hiztun abilak eta adar-jotzaile apartak. Esan behar da Atxukarrotarrak aizkoragile apartak zirela, sona handia zutenak inguru hauetan.

Loidisaletxeko Luis joan da Atxukarrorengana aizkora zorroztera eta Atxukarrok adar-jotzeko bere puntu horrekin esaten dio:

- Apustun bat ein al dek, ala?
- Bai, ein di'pa!
- Bai, marka geanta eingo'ek hik!
- Hik zorroztu zak aizkoa ondo, eta geo hitzegingo'iu.

Horrela, aizkora zorroztu duenean esaten dio Luisek:

- Zuittu earra eman diok! Honekin marka earra eingo'it nik. Apustu egingo nikik, aurreko lizarrai hiru kolpetan behia joazi baietz.

- Hirun? Ezta hamahirun'e!

- Na al dek hamaiketakoa jokatu? Ez haizela horren gainian eoten, nik hiru kolpe eman arte!

- Bai lasai asko!

- Ia, io hai.

Atxukarro igo da arbola horren gainera eta Luisek eman dizkio bi aizkorakada lizarrari, gerri-gerrian, eta aizkora hartu bizkarrean eta hor abiatzen da etxera.

- Noa hua? Hiruarrena emaiok ba! – goitik bestea.

- Bihar emango zeuat.

Atxukarro han jaitsi izango zen umil asko arbolatik behera, hamaiketakoa galduta.



Ezkerretik hasita, Bitoriano, Juan Joxe (Errexil), Antonio eta Sebastian.

Aita eta sei seme herriko jaietan Errezilgo taberna baten bertsotan ari omen ziren. Tabernaria kexu, taberna bete jende, baina entzuten jendea, ez dirurik gastatzen, eta isiltzeko agindu izango zien. Aitak esan omen zion orduan:

- Isiltzia nahi baek isilduko gaittuk ba.

Hori esan eta tabernatik irten zen aita, bai semeak ere atzetik, eta tabernako beste denak haien ondoren. Taberna hutsik gelditu omen zitzaion.

Istorio hori kontatzen ari zirela behin Errezilen, Pakori galdetu omen zion Txuriik:

- Seiron artian zein zan eskasena?

- Oain'e hala dek hoi – tabernan zegoen Begi-haundiren aldera keinua eginez.

PAKO

Estrako kanteran lanean ibilitakoa zen Loidisaletxe, Pako. Kanteran lanean zebilela, Estran orain ere neskak daude, baina lehenago ere izango ziren nonbait, bi neskazahar bizi omen ziren.

Behiak umea egin die eta ezin umea gobernatu, txahalari ezin behiaren errapean eutsi. Hor joan zaie neska horietako bat lanean ari ziren tokira, laguntza eske, baten bat joango al zen txahalari esnea edan araztera, txahalak errapean ez zuela egon nahi-eta. Pako joan zaio laguntzera. Neskazaharrak sukaldean eta Pako txahalari esnea edanarazten.

Handik pixka batera etorri da neskazaharra ukuilura eta:

- Ze? Moldau al zea?

- Hau earki dao hemen.

- Halaxe dao gaineal

- Bai, hemen eongo'a hau.

- Ondo. Etorri zaitetz sukaldea, gosari jarriko'izut-eta.

Jarri omen zion, urdaiazpikoa arrautza parearekin, gosari bikaina. Gosaldu ondoren joan dira txahala nola dagoen begiratzera eta txahala geldi behiaren errapean:

- Oaindik hor dao gainea! –neskazaharrak.
- Horrek hor segiko'u –Pakok.

Eskerrik asko esan eta agurtu du Pako. Joan da lagunetara Pako eta Utsetako Jose Marik galdera:

- Eanazi al diok?
- Errepe onduan han dek.
- Ze ein diok ba?
- Behian iztarrai lotu, txahala.

Errezilen, Korreonean denda zegoen. Loidisaletxeko etxeko esnea hara eramaten zuten eta haiei saldu, gero handik erosten zuten etxerako behar zuten jeneroa ere. Egun batean Pako joan zen esnea eramatera eta bueltan etxerakoan ardoa ekartzeko agindua zuen. Dendariak ardoa eman zionean, hala esan omen zion Pakok:

- Ibileria zebilkiu guk'e, udda ekarri eta udda eman –bi etxeetan zekiten nonbait bataiatzen Pakoren ustetan.

Oñatin baso-lanean zebilen errezildar talde bat, Pako tartean. Apopilo zeuden tabernaren batean. Tabernako etxekoandreak esan omen zion hango beterinarioari:

- Zu Errezilen egona omen zea, hemen errezildar koadrila bat dao apopilo.
- Hitz egingo nuke pozik!
- Afaltzeko garaian hemen izango'ia.

Hala etorri zen beterinario hori errezildarregana. Han omen zeuden afaltzen

hamarren bat lagun eta erreizildarrak zirela jakin zuela eta hor hasi zaie galdezka:

- Zu nongoa zea? –bati.
- Ni halako etxekoa.
- Zu? –Pakori.
- Ni, Loidikua –Loidisaletxekoa izan arren.
- Soro-zelai earrak ditu Loidik. Han gaineko aldian bazan ba Loidisaletxe eo beste etxe bat, allau ezin antzian ibiltze zianak?
- Bai oain'e hala dabilta haek –Pakok bere etxeagatik.

GARIJOTZEKO KOMERIAK

Garai batean auzo-lan potenteena gari-jotzea izan ohi zen. Orduan, gurdi baten motorra eta bestean matxaka ibili ohi zituzten.

Egun horretan, Errezilen, Letetik gorako baserri baten, Zabalen, omen zeuden makinak. Baserri txiki samarra hau eta han hamarrak alderako gariak jotzeko ustea zuten. Hurrengo etxea Loidisaletxe zen izatekoa. Hor behe aldeko baserrietakoak, gari-jotzeko garaian beroa ere hala ohi da-eta, makinei eta ganaduei laguntzeko, sasoiko gazte talde handiak ibili ohi ziren, Utsetarrak, Loidisaletxekoak beste hiru bat, Loidikoak, etab.

Planen arabera, Zabaletik makinak ganaduekin kaminoraino ateraraziko zituztela eta gero eskuetan errepidean behera, beroarekin ganadurik behartu gabe eramateko Loidisaletxe pareraino, gero hara hango ganaduekin jasotzeko.

Joan dira beheko gazte taldea Zabalerara, hamarrak alderako, eta makinaren motorrak aberiaren bat izan zuela eta beste, gariak jo gabe. Motorraren pieza bat falta zutela eta Tolosara joan zirela piezaren bila eta, horrela, eguerdi-artekoa behar izan zuten motorra konpontzen.

Bien bitartean, behetarrak Panaderira, han ji-ji eta ja-ja, trago eta abar, berdoz-

tu dira denak. Pakok ez zuen gutxiena edango. Arratsalde erdian Zabaleko gariak jo zituztela eta atera dituzte esan bezala makinak kaminora. Han hartu eskuetan eta orroka jaitsi dira Loidiraino. Pako zaharrak bere buruarekin zuen nahiko lan.

Garai hartan gainera brea egon ohi zen kamino bazterretan, hartxintzar pilarekin. Brea galdara batzuetan berotu eta pistola moduko batekin zabaltzen zuten errepidean, gero haren gainera zabaltzeko grabila hori. Horretarako 200 litroko bidoiak ekarrita egon ohi ziren, launaka-launaka, gero makinarekin berotuz erregadio hori egiteko. Loidiko atarian egongo ziren 2-3 bidoi. Beroa ere halakoxea izango zen, gari-jotze garaian sarri ohi den bezala. Gari-jotzeko makinak utzi zituzten lekuan bidoiren bat egongo zen zulatuta, eta kristoren enplastoa omen zegoen kaminoan, beroak brea hori zabalduta.

Makinak ganaduei eransten dabiltzala, Pako erori da brea gainera. Ilun-muga zen ordurako eta brea ere pixka bat gogortzera egina nonbait, hor gelditu da bertan itsatsita, jaiki ezinean: "Mekauen puta! Zeinek euste'it nei" esaten omen zuen deiadarka, breaz blai eginda zegoela. Beste anaiek, Antonio Marik-eta ganaduekin eraman dituzte makinak etxera eta Pako ere, halako batean libratu zenean, zegoen bezala hor sartu da ohean, "ederki dutxatuta". Egin du lo eta goizeko bostak aldera hasi dira makinak ganbaran jartzen, eta Pako falta. Hasi dira Pakori deika, eta Loidisaletzeko Begihaundik esan ohi du:

- Mantautako proa-iri ematen zin, izerak gorputzian peauta eta burkua burun itsatsita zuela, uztarriin dauan iria bezala etorri huen ganbarara.

Inola ere ezin libratu izarak eta burkoa. Hankapean botata libratu omen zizkioten, Begi-haundik zioenez. Hori zela-eta aitak esan omen zion Pakori:

- Errezildik Bentaberrira birian metro batian eongo huen brea hoi eta galanta'ek hik hantxe eroi beherra.

- Loiditik honea're ez dao beaje haundiik baino antiajuk galduta etorritta zare zeorri're -Zaharra ere noizbait ibilita egongo zen hala moduz.

Feriatik etxera zetorren batean Bentaberrin geratu eta bertso-zaharrak kantatzen ari zen Pako, askotan bezala, bertso asko zekizkien-eta. Han bazen beste bat ere bertsoarako zaletasun pixka bat zuena, Txurii, eta garai hartan izandako bertso-

lariren baten omenaldi eguneko saioaren berri ematen hasi zen. Han entzundako bertsoak kantatzera zihoan, eta bertsoen aurretik gaia hasi zen esaten lehenbizi:

- Gaia zan: "Zuen etxian zeinek agintze'u?"

Eta Pakok galdera beretzat hartu eta...

- Ze esatia nahi dek –erantzun omen zion sano asko.

ANTONIO MARI EIZMENDI *LOIDISALETXE* (1913-1990)



Nekazaria zen bizibidez. Eskola zaharreko bertsolari etorri handikoa, gairik gabeko saioetan ohitua. 1936ko *Bertsolari Gudua* txapelketan parte hartu zuen Azpeitiko kanporaketan. 1981ean Bertsolari Elkarteak omenaldia eskaini zion Paulo Zubiarrain *Paulo Txikia*-rekin batera.

Ezamara joan omen zen behin gonbidatu, bere koinatuaren etxera. Koinatua ikuilu-
an zebilen eta bertara joan zitzaion Antonio Mari.

- Ze ai haiz? –Antonio Marik.

- Txahala beherakuakin zeok eta manzanilla-udda ematen ai nauk.

- Berriz'e gora ez dik asko ingo eze hobeik emate ez baiok.

Ernioko azken txabolatik gurutzerara bitartean hamalau gurutze daude, eta han Ostiral Santu egunean bereziki, eta iraileko Ernioko jaietan ere, kalbarioak errezatu ohi ziren. Kalbario horien hasierako gurutzean uztai batzuk daude, eta gorputza handik pasatzeko ohitura zen gorputzeko minak uxatzeko. Hara hemen Ernioko gurutze horiei Antonio Marik kantatutako bertsoa:

Erniora jua da
ekin otoitzian,
hasi gurutzian da
buka gurutzian,
hamalau estazio
han daude haitzian,
gero burniak pasa
handik bajatzian,
gehio ez dein minik izan
zuen gorputzian.

Bere aitaren heriotzaren ondoren (1963) kantatuak dira ondorengo hiru hauek:

Berrogei eta hamar urtetan
gelditu naiz aita hila,
Jaun zerukuak eramana du
betiko lekuen bila,
utzi dizkitan ondasunatik
emate'izkat esker mila,
bihotzetikan desio diot
zeruan egon dedila.

Aita hil zaigu hirurogeita
hamaseigarren urtian,
mila pasata beratzirehunda
hirueta hiruko partian,
martxo hilaren hoita seyian
enterratu zan lurpian,
gehiago alkar ikusterik ez
beste mundura artian.

Amaberjina martxoko eguardiz
gelditua zan hilotza,
oraindik ere akordatzen
saltoka daukat bihotza,
ta zenbat aldiz gogoratzen dan
ibiltzen zun eztul-hotza,
lan danak ondo einda joan zan
da horrek ematen du poza.

1936ko *Bertsolari Gudua* Txapelketan, Azpeitiko kanporaketan Urolako trenari kantatua:

Puntua:

*Urolako trenak zenbat
erruera dittu?*

Antonio Marik:

Sekula ez det holako
arrazoirik aittu,
gauzikan ederrena
juan da begittu,
azpian dabiltzanak
han eukiko dittu.

Behin batean esan zioten Antonio Mariri:

- Benga bertsolari, botaiazu bertsoa.
- Nungoa zea? –Antonio Marik galdera.
- Ataungoa –besteak.

Komeni zatzun arrazoitxo bat
bertan behar dizut eman,
nungua zera dizutalako
oraintxe bertan antzeman.
Eitten dutela esan ohi dute
Ataunen eta Zegaman,
egun argitan nun don ikusi
ilundutzian eraman.

Uarre baserria, Loidisaletxetik gorako beste baserri zahar bat da. Baserri hori

Loidisaletzekoek erabiltzen dute aspaldian. Han arbiz kargatuta etxera zekarren astoari kantatu zion behin batean:

Astua badakarkit
arbiz kargatua,
buztanetik bururaino
dana tapatua,
irandu gabe baina
ondo domatua,
gaizki guarnatu ta
asko nekatua.

Errezilgo herriak omenaldia egin behar omen ziola eta hona hemen bere esker ona bi bertsotan:

Esan guztiak hartuko dittut
bihotzatikan onian,
hara zer gauza etortzen diran
usterik gutxienian,
lagun haundiyak hasiak dauzkat
bihotz samurtasunian,
da pozak nago herria hola
akordatu zaitanian.

Nere partetik ezta faltako
hoientzako zorionik,
enun pentsatzen nik horrenbeste
behintzat merezi nuanik,
ezta gazte bat gure herrian
ezetza esan duanik,
e'nuen uste hoinbeste bihotz
hor neretzako zegonik.

1936ko gerra gai hartuta, 1980 urte inguruan, Iturriotzen bazkalondo batean kantatutako bertso sail batetik aukeratutakoak dira ondorengo hauek, Kupela taldeak bere disko batean kantatzen dituenak.

GERRATIA

Esplikatutzen hasi nahi nuke
neronen pasadizuak,
nere hizketak izango dira
gaur betirako jasuak,
nola bihurri ibiltzen ginan
herriak eta auzuak,
gerratiari kanta biazkat
nik orain bertso batzuak.

Bezperan bizi ziran mutilak
urrengo eunian etzanda,
nola gelditzen ziran sinisten
zail da egia esanda,
maskara zaharrak bezela hantxe
beleak begiak janda,
ta gu beldurak berriz pentsatuz,
noiz ote da gure txanda?

Horrelakuak ikusitzeko
sortutakua munduan,
orain ordia zahartu naiz-ta
denak ez dauzkat goguan,
baina jarduten saiatuko naiz
orain al dedan moduan,
bate kulparik ez genduenak
zenbat sufritu genduan.

Inoiz euskaraz ai ginanian
habla español gutzako,
orandik ere Antoniori
hura gogoratzen zako,
garai txar hura ona zenikan
ez det uste inontzako,
ibilera hura guk egin gendun
“Gallego zahar” batentzako.

PRAISKO MARI, *BEGI-HAUNDI*

Loidisaletzekoa hau ere. Beste askotan bezala Pazko egun batez, Zurruntzola eta Bentaberrin erromeria egiten zen garaian, beste lagun bat eta biak neskatarak joan eta bueltan ostatura sartu ziren, eta etxera joatea ahaztuta, afalondoan bertsotan eta abar ibili ziren. Besteak ere ez ziren baraurik, baina Begi-haundi bere errazioak ondo hartuta etxeratu zen nonbait. Pazko bigarrenkoz, eguna lanean pasa eta, Pazko egunean Zurruntzolan izan bazen erromeria bigarrenkoan Bentaberrin izango zen, edo alderantzira. Esan bezala Pazko bigarrenkoan ere han ziren elkarrekin. Lagunak pixka bat tentatzeko:

- Ze mouz pasa'ek gaur goiza?

- Mekauen! Gaur goiza ez huan earra! Ikusi al dek behin'e almitza jandako txakurra botaka pendizian (txakurrak almitz-belarra jan ohi du urdaileko nahigabea duenean, botaka egiteko), halaxe jardun nauk ni're botaka, ipurdiko-zulua eztarri-año etorritta.

- Hustuko hitzan bapo! -lagunak.

San Martin eguna jai igeltsutegian, eta Utsetako Joan eta Begi-haundi jaitsi dira bizikletan Azpeitira. Ilea moztu, Patxonean gosaldu eta mutilak fuerte.

Xixilio jaisten zen egunero kamioiarekin esneak eramanez, lehengo Korreo zaharraren semea zen Xixilio hau, eta gero enkarguak-eta ekartzen zituen bueltan. Egurdiko hamabiak aldean ikusi du bikoteak Xixilio, ordurako trago batzuek egin-da ere bai, eta bizikletan baino nahiago kamioian joatea, eta hala galdetu diote ba, ea eramango dituen. Hau konforme. Bizikletak kamioira bota eta igo dira haiek ere marmita artera.

Xixiliok enkarguen artean suziri sorta pare bat zuen Errezilgo udaletxerako.

Artañola baserria pasa zutenean, purua errez etorriko ziren biak seguru, eta hor sortu zaie tentazioa:

- Gure tierran gitxerek eta hasi beher diu!

Suziriak pizten hasi ez dira ba! Lehertu zaie bat barruan eta hartu dute su beste suziriek ere. Marmita artean hura omen zen "zeremoni". Biak kamioiaren atzeko kartolatik zintzilik, nonbait babestu behar-eta, hura omen zen zirti-zarta hotsa barruan. Gero Bentaberrira etorrita kamioiaren atzean ez omen zen giro izan, baina ez aurrean ere, haiek muturrak omen zeuzkana Xixiliok!

German Zelaia txapista eta Errezilgo koadrila, ia urtero joan ohi ziren garai batean sagardotegira Astigarragara. Horietako batean txotxera bueltaka zebiltzala, irri eta bertso, hor non hurbiltzen zaien sagardotegian zebilen bat, eta galdetzen die Begi-haundi eta Germani:

- Zuek aita-semeak al zeate?

- Bai –Begi-haundik–. Hau –German– aitta eta ni semia.

Bestea harrituta entzuten zuena sinistu ezinez, Begi-haundi ia hogeitaz harro baita German baino adinez.

- Diskuiratu eingo zinan, zu aita eta hau semea esan nahiko zenun.

-Ez –Begi-haundik–, hau dek aitta, eta ni're semia banauk.

Hain zuzen ere gaztea, German baita familiako guraso eta Begi-haundi mutilzarra. Ez dakit ezer askorik ulertuko zion galdetzaileak, baina horrelako lekuetan galdetzen hasten denak uste ez dituen erantzunak jaso ohi ditu sarri.

JOAN JOSE EIZMENDI, *LOIDISALETXE II*.



Antonio Mariren semea da Joan Jose. 1980 inguruan hasi eta 1995 urtera arte ia txapelketa guztietan hartu izan du parte.

Gazteen Txapelketatan *Osinalde Saria* du irabazia 1984. urtean. Errezilgo txapelketak 1984 eta 85ean.

Euskal Herriko Txapelketa Nagusian, 1989an final-erdietara iritsi zen eta Gipuzkoakoan 1995ean finalean hirugarren postua eskuratu zuen.

Sagar garaian, Loidisaletxeko ama azokarako errezil-sagarra prestatzen ari zen, lepo-otarretan, Utseta baserriaren ondoan bide ertzean, hurrengo egunean azokara eraman eta han saltzeko. Joan Jose mutil koskorra orduan, han ari zen sagar bat jaten eta bestea eskuan zuela. Utsetako Josemari hurbildu eta esan zion:

- Oain hoinbeste sagar janda geo bazkaltzen nola jan beittuk babak?
- Kutxariakin hartuta –Joan Joserena erantzuna.

Behin baten, Joxe Eizagirre *Aittola* ekarri zuten Errezilgo gazte taldeak Errezilera Santa-eskera. Joan Josek 16 bat urte inguru izango zituen. Errezilen baserriz baserri ibili ziren eskean. Attolak ez zekien hango berri gehiegi, eta baserri batera bidean gora zihoazela esan zuen:

- Moteilak bide hau aldapia dekl!

Eta Loidisaletxe baserria ere nahiko leku aldapatsuan dagoenez, Joan Josek erantzun:

- Honi aldapa haundii irizte al diok, gure etxian sukaldian'e bazeok hoinbestekua.

Kontu hori zabaldu egin zen. Handik denbora batera Antonio Mari, Joan Joserena aita, feriara joan zen Azpeitira eta han baten batek esan omen zion, zirikatuz:

- Zuen etxian sukaldia aldapan omen zio. Mahaia nola jartze'ezue?
- Mahaian alde bat mendian kontra eta azpikaldetik hankak, danok mendia beira bazkaltze'iu.

Hor ikusten da semearena ez ezik, aitaren umorea ere.

1989ko otsailaren 26an, Txapelketa Nagusian Bergaran kantatutako bertsoak.

Gaia bakarka: "Gaurko egunkarian hildakoen zerrendan agertzen zara"

Notizi txarrak eta on asko
era hontan dijoazte,
irakurritzen jarduna nago
hoitatik bat eta beste,
harriturikan gelditua naiz
letzen hasi eta laiste,
neregan oso gauza gogorak
egunkarian datozte,
hainbat gorroto zidatenikan
oraindik ez nuen uste.

Nahiz notizi hoi izanduko zan
seguru nere kalteko,
nik ere badet beste zertxobait
jende horri esateko,
haien nahi hori oraindik behintzat
nik ez dedala beteko,
seitun hiltzea besterik gabe
ez dezute ba usteko.
Ai kaja beltzan sartu nahi nauna
badago pixka bateko!

Azpeitian, 2004 urtean Erniarraizko kideek bertso jarrien emanaldi bat antolatu zuten Oñatz tabernan, Uztarria Kultur Koordinakundearekin batera antolatutako Kulturaldiaren barruan. Leire Ostolaza eta Beñat Lizaso izan ziren kantari, Amaia Garmendia azpeitiar gitarraista lagun zutela. Ekitaldi horretarako Joan Josek jarriak dira ondorengo bertso hauek. Esan behar da gertakizun hau den-dena ez dela egia, baina ezta dena gezurra ere.

Herriko jaiak ari
zirela ospatzen,
kaleetan jendea
zezenaren zai zen,
neska gazte bat berriz
erronka botatzen,
esanez ez zuela
ezerk ikaratzen.

Egunkari hau hain pozgarria
neretzat ez da atera,
norbaitek ezkuta arazi nahi
beste parajen batera.
Zein demoniok bete ote du
era horretan papera?
Zer atzerako hartua detan
une horretan kolpera!
Hogei urtekin sartu binaute
bateko bestek lurpera.

Neska hau zebilela
soka-muturrian,
zezenaren burutik
nahikoa urrian.
Harrapatu ta kao
utzi zun lurrian,
erdi bilutsik jende
guztian aurrian.

Nahiz eta egon erdi
zorabiatua,
gehienen begirada
non zen kokatua,
akordatu zanian
pasa zun tratua,
hura tapatu nahi ta
ezin tapatua.

Neskak erakutsi zun
bere ausardia,
baina gauza gehiago
ere bai ordia.
Ikusle izandako
dexente badia,
eskertu ziotenak
"erakustaldia".

BITORIANO

Loidisaletxeko Bitoriano, Antonio Mariren semea hau ere, gaupasa eginda badator igande goiz baten Errezilgo kaminoan behera, eta Errezilgo kalean, Panaderiko aurrean geratu da autobusa, eta atzetik danba Bitorianok, lo gehiegi egin gabe ere egongo zen-eta. Han inguruko baten batek esan dio:

- Ez al huen geatzeko asmoik?
- Hemen ez behintzat!

LOIDISALETXEKO BESTEAK

Behin Loidisaletxera etorri ziren Añorgako lehengusuak, orain urte asko, Antonio Mariren alaba gazteenak, Milak 12-13 urte zituela. Aldian behin etortzen denari ohi zaion bezala, agurra, musua eta abarra izan zen han! Milaren txanda ere iritsi zen eta...

- Ene, Mila, zenbat hazi zean! Ze mouz zare?
- Bai, ni hementxe, tamainaik txarrenian, ez ume eta ez neska.

Aste-santuan bi ahizpa preparatu dira elizkizunera joateko, derrigorra izaten zen-eta orduan. Bidean, elizarakoan, beste baserri bateko neskak lagunak zituzten-eta, haien etxera joan ziren, gero elkarrekin elizara joateko. Hango neskak ere

preparatuta irtetera zihoazela, beren aita etorri zaie eta esan omen zion alabari:

- Hi haizan, zapatak garbitu beher dizkian!

Eta hori esateaz bat, zapatak jantzita zegoen ordurako, hanka jaso omen zion aulki gainera, garbitzeko. Hala, hasi zaio alaba zapatak garbitzen eta Loidisaletxekoei esan omen zien aitak:

- Zuek aittai hola garbitze al dizkiozue zapatak?

- Ez, guk jantzi baino lehen garbitze'izkou.

Behin batean nonbait, apaiza dotrinan ariko zen sakramentuak esplikatzeko: bataioa, jaunartzea, ezkontza, etab. Haur bati gauza bat galdetzen eta besteari bestea galdetzen ari omen zen. Loidisaletzeko Luis, mutil koskorra ere han zen tartean eta apaizak galdetu omen zion:

- Ezkontzen danak ze hartzen du? – zer sakramentu hartzen duen alegia.

- Andregaia! –Luisek.

Etxeko iloba bati, 7-8 urte zituela, jolasean zebilen eta zapatilaren lokarria askatu zitzaion. Etorri zen, eta izebari hanka jaso, eta esan zion:

- Lotu'iazu hau!

Bere amak atzetik:

- Hik ez al dakik zapatilak lotzen?

- Bai, baino gaizki –umearen erantzuna.

AZPILLATARRAK

ANIZETO

Anizetok, behin, Jose Mugarrietari apustua jokatu zion, aizkoran. Jende gehiena zegoen nonbait Jose Mugarrietak irabaziko zuelakoan. Anizetoren andrea Borondegiko goiko balkoitik begira omen zegoen, eta plazara ateratzerakoan oihu egin zion gizonari, balkoitik plazara:

- Zuk ez dittuzula ebaiko hotseite'de!
- Ebaiko'izkinat ba! –esan omen zuen.

Sei kanaerdikotara zen apustua eta ebaki ez ezik baita irabazi ere.

Anizeto, Azpillaren aitarekin lau apustu jokatu izan behar zituen Abittako Jose Antoniok ere.

AZPILLA, INAZIO MARI

Oso ezaguna zen herrian garai batean, Inazio Mari. Azpillaga zuen deitura eta denek *Azpilla* deitzen zioten, bere aitari bezalaxe, ez beraz Euskal Herriko leku askotan ohi den bezala baserriaren izenez. Izatez, Abitta-barrena baserrikoa zen-eta.

Maiorazkoa bazen ere, ez zen baserria bere gain hartzeko nor izan. Langile gogorra, hori bai, hala ere zurruta maiteago zuen etxeko maiorazkotza baino. Leiala mutila, lepo motz, indartsua, baina ardoak gaiztotzen zuena. Holakoak, zirikatzaileak ere sarri ohi ditu inguruan, kirtenkeriak eraginarazteko, lagundu beharrean. Barre egiteko lagun asko ohi zituen Azpillak, inguruan. Eskerrak Argindegiko Bartolo, auzoko gizon jator, bikain, hari. Gehienetan elkarrekin ziren.



Arrebari esan omen zion Inazio Mari behin:

- Hik ezkondu beherko'en etxea. Ni e'naun gauza. Baakin nee berri, nik ez dinat

gauza onik eingo ta eutsiozue baserriai. Ni hemen ibiliko naun.

Hala, arreba ezkondu zen etxera, emakume jatorra hala ere. Etorri zen lehen landarea, maiorazko berria. Arrebak Inazio Mariri esan zion aita-ponteko izan beharko zuela:

- Hi haiz zaharrena ta hik jaso beherko'ek bataioan umia.

- Nik ez dinat jasoko umeik! –erantzun omen zion–. Adur txarren bat eantsiko zionat, mozkorra izango hukea ta hor konpon zaizte!

Ez zuen haurra jaso Azpillak. Gerora etorri ziren haur gehiago ere eta semetxo bat jasotzeko hitz eman zuen, mozkorra irteten baldin bazen aitzakiarik ez ematekotan.

Hor doa aita-ponteko Inazio Mari “alajainkua eman beher zioau gatz” bere artean esanez. Apaizak bataioa hasterakoan:

- Zer dezue ba?

- Iskua alajainkua, iskua! –Azpillak.

Apaizak purrustada; sakristaua barreari eutsi ezinik “iskua” aditu zuenean.

Horrela egin zuten kristau berria.

Urtean behin arbi-lora garaian elizako lanak egingo zituen zintzo Azpillak. Behin, askotan bezala, arbitara sorora zihoala, arbi-loreak ikusi izango zituen eta hala ekin omen zien:

- Alu demoniok! Oain'e hemen al zeate txoro zikinok? –igitaiaz rist eta rast ebaki izan behar zituen arbi-lore denak.

Garizumako larunbat arratsalde batez, hor dator Azpilla urteko “zekorra” kentzera.

Non bilatzen dituen hiru apaiz elkarrekin egurasten goiko plazan. Txapela jasoaz Azpillak:

- Zuazte hirurok elizaa, ta sartu zaizte zuen kaxernatan, hiruontzako aina lan badakarkit nik-eta.

Behin, Arabeko soroan, igitan ari ziren, Azpilla ere bai. Etxekoandreak, galtzarbean pitxar-botila handia hartuta, gizonei ardoa emango zien sarri samar, ez Inazio Marik nahi bezain sarri.

Edalontzira ardoa atereaz:

- Tira, Inazio Mari, eintzak tragotxo.

- Mararikatu, oaintxe larri nitxeonan!

Antoxina erdiraino hustuta ikustean esaten dio:

- Ana Mari, ontziaz zorua beteko ez baion'e, beteion behintzat goia!

Beste behin Izarre-saletxen gari-jotzea. Sist eta sast, metak zabaltzen ari ziren mandio inguruan, azaoak gurutzatuz, lurrean ez ezkotzearren; eguzkitu eta honela jaulki ohi ziren galburu mardulak harri zabal leunak joaz.

Izarre-saletxeko Dominikak, gisatu gozoa prestatu zuen giza sailari emateko. Gozoaren gozoz denak gehiago jango zuketenean.

Azpillak jan-edanak bukatu ondoren:

- Oso ona zeonan Dominika, baino pixka alajainkua! Pixka, amorratu pixka!

Ernio atzetik mandazain nafarren bat pago-buruak ateratzen ari omen zen, Zelatungo txabolan lo eginez. Azpillaren mundua ere hor zen, Zelatun, Iturriotz eta

inguru horretan. Azpilla nafar horrengana arrimatzen omen zen.

Azpilla, izan ere, zurruteroa bazen pixka bat, baina gainontzean gizon gozoa eta langilea zen. Nafar horrek suministrooak gastatu samarrak, ardoa falta behintzat. Hala esan omen zion Azpillari:

- Inazio Mari, joanen zira Errezilerat eta ekarriko'izkiazu garrafoi pare bat arno?

- Bai, ekarriko ez dizkitzu'pa!

Hala, jaitsi da Azpilla Errezilera. Eulenean trago pare bat hartu eta abiatu da bi garrafoi horiek bizkarrean hartuta Zelatunera. Beheko tragoak nahiko ez eta bidean ere egin ditu, nonbait, garrafoi muturretik kristoren tragoak. Hor iritsi da, jesusen bidaia gainean duela, garrafoi bat beteta eta bestea erdi hutsik.

Hala moduz sartuko zen txabolako atea jota, eta nafarrak:

- Heldu zira, Inazio Mari?

- Heldu, baita jaulki're, alajainkua!

Azpilla erdaraz. Astoa umea egiteko etxean eta beterinarioarengana joan behar. Hau erdalduna omen zen eta bidali dute Azpilla abisua ematera. Hara bidean pentsatu du nola adierazi beharko dion ere. Iritsitakoan atea jo eta atera zaio beterinarioaren emaztea, erdalduna hura ere:

- *¿Qué pasa Ignacio Mari?*

- *La burrica umeando beterinario andando.*

- *¿Qué me dice?*

- *La burrica umeando beterinario andando.*

- *Pero es que no le entiendo nada.*

Buelta hartu du eta hor doa berriro etxera:

- Mekauen dios! Honek erdeaz'e bat'e etzekik – esanez.

Hala, iritsi da etxera bueltan eta ailegatutakoan hor ikusten du astoak ume-hila egina zuela ordurako.

- Mekauen! Oain bi aberi zetiu, astakumia akaatu eta gainea betenaiuan bisita paatu beher.

Hor doa berriro presaka beterinarioaren etxera, eta jo du atea. Atean berriz ere lehengo emakumea:

- *¿Qué me dice buen señor?*

- *La burrica umeando, burriquita matando, beterinario no andando* - Azpillak.

Ez zion askorik ulertuko.

Azpilla, Bidanira joaten omen zen beti ilea moztera, Errezilera sekula ere ez, beti Bidaniko barberuarenera. Joan eta esan omen zion behin Azpillak barberuari:

- Gaur ze gosari in dek?

- Bi arrautza sardinaz batekin –barberuak.

- Dios! Hoi dek gosari in dekenal Izen'e gue etxe hortan ipurtzulua Tolosaa beira zeukee nunbait gue oilo hoik. Ein ahala eamate'izkik gue arrebak Tolosaa.

Azpilla eta Landarrain Kojua lagunak ziren, oso lagunak. Landarrain hori bi hanke-tatik elbarria zen baina atzaparretan eta gatz ikaragarria zuena. Artajorran-eta bi hankak arrastaka baina aitzur kirtenaz lagundurik arrastatu eta jorran gogor aritzen omen zen. Azpillarekin oso laguna zen esan bezala.

Garai hartan Pazkoakoa egin behar izaten zen derrigor, halakoxe indarra zuen Elizak, bestela ez zizuten txartelik ematen, eta kontrolatuta egoten zen jendea.

Biak ere pixka bat edandakoan "mekauendios" maldizioa zuten arnasa adina aldiz edo sarriago igual. Errezilgo apaizekin konfesatzeko oker gehitxo ote zeukaten juzgu egin eta hor egin dute plana Tolosako fraideetara joateko konfesatzera.

Azpilla bere etxetik goizeko 5ak aldean jaiki eta etorri da Landarrainera, lagunaren bila, ohean prestatuta zegoen tokitik hartu bizkarrean eta atera du kaminora. Autobusa etorritakoan sartu biak autobusean eta joan dira Tolosara. Tolosan ere hartu autobusetik bizkarrean eta Frantziskanoen elizara eraman zuen.

Jarri dira biak konfesatzeko ilaran, eta txanda iritsitakoan jarri du Azpillak lagun elbarria konfesonarioan. Konfesatzen amaitutakoan hartu berriro bizkarrean eta penitentzia esatera aulkira. Aulkian zeudela Azpillaren galdera:

- Ze mouz konpondu haiz?
- Gizon txarra ez dik ematen.
- Ze penitentzi moru-eo, ze eman dik?
- Ehun aittagure...
- Mekauen! Ardiik izan balia earkil!

Don Kruz medikuak kontatua da hau. Ba omen doa Lete bailara horretan medikua etxe batera bisita egitera eta hor ikusi du Azpilla kanpoan, mahuka-hutsean arbia ateratzen izotza egin arren. Salba egin omen zion medikuak:

- Hotz eongo'ek, Inazio Mari?
- Hau ez da ezertxo're. Radidotik aittu'et, Donostin zerez azpitik lau gradu darella. Ez dakit hoi nola leiken, zero baino numero txikioik ez dao-ta.

Sartu dira eztabaidan biak. Medikua saiatu omen zen Azpilla konbentzitzen

baina alferrik. Bere artean pentsatu omen zuen medikuak “nola-hala sartu beher zioat ba buruan”.

Azpilla Panaderiko laberako egur garraioan ibiltzen zen, eta han ari zela deitu omen zion medikuak behin batean:

- Zatoz hona pixkat Inazio Mari.

Joan zaio Azpilla bere ondora, eta ordurako Joan Inazio, tabernaria, jakinaren gainean jarrita izango zuen zer esan behar zion:

- Atera bi txikito.

Atera omen zituen, eta Don Kruz medikuak:

- Oain gu biok hau paatzeko diruik ez badakau, hoi ez al da zero baino gutxio?

- Ez, hoi da poltsikuan faltia, beste mou batea esanda, zorra.

Pazkoakoa egiteko joan da Azpilla konfesatzera eta apaizak esan omen zion:

- Ze Azpilla, betikoa? –ohiko pekatuak, “mozkorkeri eta maldizio” alegia.

- Ez, aurten berri're badeu: Putaneri...

- Ze ein dezu ba? –apaizak.

- Laian ai ginela ipurdira kolpe ein diot Joxepai...

- Beno, hori ez da pekatu handi're. Penitentzia txiki bat ipiniko'izut. Gaur, etxe-ako bidian ezta ardoik ikusi're geo! –Azpilla konforme.

Etixerakoan sartu da Panaderira eta baita ardoa eskatu ere, baina begiak itsututa edan omen zuen.

- Ze ai zea Azpilla? –galdetu zioten.

- Ardoik ez ikusteko esan dit apaizak.

Errezilen kanposantuaren ondoan badago, Armendi baserria, garai batean sagardotegia ere bazena. Gazte talde batek ikusi du Azpilla harako bidean eta pentsatu dute broma bat egin behar diotela. Errezilgo kanposantuan hildakoentzako zulo bat beti egoten da eginda. Gazte batek esan omen zuen:

- Ni sartuko nauk zuloan ta hik apustu ein kanposantuko beheko paetia ikuttu eta bueltan etorri ezetz. Hareako birian nik helduko zeuat.

Hala, sartu da bat zuloan eta bestea hasi da Azpilla tentatzen, kanposantu barrerako pareta ilunpetan ukitzeko balorea zeinek izan lezakeen esanez. Azpillak:

- Ikuttu're. Hortxe baino jende pakeosoik!

Pitxar ardoa jokatu dute, kanposantura sartu, beheko pareta ukitu eta bueltan etorri ezetz eta baietz. Apustua itxi dute, saltatu du Azpillak kanposantuko pareta eta badoa beheara. Zulo ingurura hurbildu denean hor heldu dio zuloan zegoenak. Egin dute kristoren borrokaldia, baita Azpilla nagusitu ere. Zuloan zegoena zulora berriro. Azpilla, abiadan beheko pareta jo eta etorri da bueltan izerdi-patsetan. Sagardotegian sartutakoan hor ikusi du enterradorea, egarri handirik gabe hura ere...

- Mekauendios! Hemen al hao! Hobe huke hildakok ondo tapauko bahittu, danak kanpuan zebiltzak!

Azpilla, Ezamanetik Otsobira egur ateratzen ari zen beste batzuekin batera. Bazuen berez, nola edo hala jendeari adar-jotzeko joera hori. Askotan gainera, lanean zebilela, iluntze alderako gaiztotu ohi zen.

Lanean harekin batera zebilen beste bat Porttale-txiki zen. Portale-txikik galtzak askatzera, barruak hustera-edo alde egin behar izan zuen, eta Azpilla ohartu Porttale falta zela.

- Nun dek Porttale?

Baten batek esan dio, galtzak askatzera-edo joan zela. Hor hasi da Azpilla oihuka:

- Porttale, ipurtzulua ikuste'it, Porttale...!

- Etzeak oaindik inok ikusi, beti itxita eo beteta eukitzeit –Porttalek.

Isildu izango zuen Azpilla bapo. Gero hori zela-eta adarra jotzen zion jendeak Azpillari, horrelako gauzak kontuz esan beharrekoak zirela, eta abar. Haserretu egin ohi zen Azpilla horrekin.

Azpilla soroan gorriketan ari omen zen. Oso langilea omen zen eta lanean serio ari zen, saila bukatzeko asmotan. Anaia bat gaixo zegoen eta hor etorri zaio etxekoren bat Azpillari esatera:

- Inaziomai, anaia hil da!

- Mararikatu! Ez al zeukan soo hau bukau arte eoteik!

Auzo herrien arteko gorabeherak ez dira oraingotxeak, eta Errezilek eta Bidaniak ere badituzte bat baino gehiago beren artean. Errezilgo kanpandorreko kanpaiak eta Bidanikoak ez dute hots berdina ateratzen noski, ez baita kanpai hots berdinek, baina hara zer nolako hotsak ateratzen dituzten batak eta besteak Azpillak esaten zuenez:

- Errezilgo kanpaia bueltaka hasten daniel ateratzen duen hotsak: Palen-ketan, palen-ketan, palen-ketan... esate'ik, eta Bidanikoak berriz: Nahi ta ezin, nahi ta ezin, nahi ta ezin...

PORTALE-TXIKI

Hemen Errezilen, baserri asko aldapan dira. Hor Ezama bailaran Portale-txikinekoan, bazuten nonbait gurdi bat, baina beste bat egin zuten berria. Bi gurdi-rekin zeuden beraz, ez ziren asko egongo. Egun baten, traste batzuk mugitzen-edo ari ziren eta hor alde egin dio gurdi batek pendizean behera. Auzokoa begira egon, eta jakinean egongo zen bi gurdi zituztela ere. Hala esan omen zion:

- Behera joan dan hoi ze gurdi huan?
- Zaharra.
- Gaztetan ez huan makala izengo!

Portale eta Tozinokoak, gerra-ondo hartan disputa batean ibiltzen omen ziren politika kontuengatik, eta elkarrekin asko hitz egin gabe ere ibiliko ziren nonbait, bolara batean. Portale-txikiri behia akabatu zitzaion, behia galdu esan izan zaio behia akabatzeari.

Tozino hori hizketan hasi nahian-edo egongo zen eta hala esan dio:

- Behia galdu omen zak, Porttale!
- Bai, bilatzen ba'ek hiitzat.

NAPOLEON

Napoleon baserrian familia handia zen, beste baserri askotan bezalaxe. Izango ziren ordurako 8-10 bat seme-alaba. Ama berriz ere haurdun zegoen eta aita jakinean izango zen noski jaiotza ez zela urruti, sumatuko zituen prestaketak etxean eta emaginaren eta auzoko emakumeen joan-etorriak, baina ez zegoen gaurko aurrerapenik eta ezin jakin zenbat zetozen.

Bera, ohi bezala, garaia zen-eta, soroan gorriketan ari zen. Haurra jaio eta hor etorri zaio alaba bat albistea ematera:

- Aitta, aitta!
- Uo! – Napoleonek.
- Aitta! Jaio da umia.
- Aida! –segi lanean.

Pentsatuko zuen bere artean, “badiu beste aho bat gehio jaten emateko”. Handik geroago hor dator berriz ere albiste emailea:

- Aitta, aitta!
- Uo! – Napoleonek.
- Aitta, biarrena jaio da.
- Aida! –segi gorriketan.

“Bat nahikoa ez eta bi halajaina”, kezkatzeko nahiko motibo. Handik geroxeago, hor dator berriro seme edo alaba hori...

- Aitta, aitta!
- Uo! – Napoleonek.
- Hirugarrena jaio da, aitta!
- Goazen etxea, bestela ez den andre hoi ume-eitten geatuko-ta.

BASABIL ZAHARRA

Baserri-arotz horietako bat, lehen esan bezala era guztietako lanak egin ohi zituzten horietako bat, etxe zuriketan zebilen. Karez zuritu ohi zituzten baserriak isipu handi batekin. Egun-pasa eginda, iluntzean, muturra bero-bero eginda hor hasi da erronkan, tabernan horietako bat:

- Etxe-zuiketan sasoikok eongo'ittuk baino nee zaharrian oaindik'e..., zein ote do ni ainakoik? Hemen do testigu...

Basabil zaharra zen testigua, brontzezko estatuak baino mutur serioagoarekin, egun-pasa eginda hura ere:

- Hemen do testigu. Honi lehengo astian, sukaldia, hiru koarto eta komedoria dotore asko zuittu'izkiot nik, azkar ta ondo...

Han alboan zegoen beste batek galdetu omen zion Basabil zaharrari, tentatuz:

- Hau ai da erronkan baina egii al da hoi?

- Baa! –Basabil zaharrak– Hau zuitzaile ermua'ezu. Honek, goian prezian, goiak eta behiak biik zuitze'ittu.

AGERRE

Agerreko Joan Migel mutilzaharra zen, eta gustatzen zitzaion besteri burla egitea. Bazen Errezilen mutil txiki bat Beterri alde horretara ezkondu zena. Ostatu bateko mahai inguru baten berriketan ari zirela hor bota du batek:

- Lehengo astian Jose Txiki're ezkondu zaguk.

- A, bai! Esan nitxeuan bee amai're, haekin osatu zana lehen'e pasamorun zeuala! –Joan Migelek.

Garai baten, baserri baten kategoria, arto ganbaraz neurtzen zen. Garai hartan jatea zenez problema, tripa betetzea alegia, artoa, babarruna, garia... pertsonarentzako janaria zen garrantzitsua eta soro-lur onenak erabiltzen ziren horretarako. Baserri ona zela esateko, arto-ganbara ona esan ohi zen.

Baserri bat bazen Errezilen kaskar samarra, baina etxe horretan seme indartuak ere baziren, harri-jasotzen-eta ibilitakoak. Egun baten Nikasionekeo tabernan,

hor hasi zen baserritar hori bere semeen erronkak jotzen, harri-jasotzaileak eta seme bikainak zituela esanez. Han gertatu zen Agerreko Joan Migel ere, adarrerako prest, beti bezala...

- Bai, bai. Zuk baittuzu semek arto-ganbaiai asko beittu be eindakok!

ERREKONDO ZAHARRA

Errekondoko Joan Mariren aitak, oraingo hauen aitonak, alegia, esandakoa da ondorengo hau. Semeak soldaduskatik etorri eta, hatza edo *sarna* gaitza ekarri zuten nonbait. Behatz tarteetan eta azkura handia eragiten duen gaitza da. Etxekoak ere kutsatu izango ziren eta hor zebiltzan medikuaren jiran.

Andreak esan omen zuen:

- Hauxe gaitza ekarri deena gue mutil hoik!

- Hauxe baino gaitz hobeik beta izan ezkeo –aitonaren ateraldia.

JOSE MARI LAZKANO (1902-1976)



Jose Mari Lazkano (ezkerrean) Loidisaletxekin 1973an, Lazkanoren seme baten ezkontzan.

Jose Mari Lazkano oso gizon bizkorra zen. Argindegi baserrian edo alde horretan jardunda, lanean nonbait, hankan sartu zaio iltzea. Panaderiko parean behera hor

doa, bere laneko erremintak bizkarrean dituela, herrenka-herrenka gure Jose Mari. Garai hartan Errezilen bost bat apaiz egoten ziren, eta Panaderokoan han omen zeuden bi-hiru. Jose Mari hori oso elizkoia zen eta agurtu ditu parean pasatze-rakoan apaizak, eta apaizetako batek:

- Ze, Jose Mari, hankan zer dezu?

- Abarkia! –Jose Mariren erantzuna.

Jose Mari Lazkano, Mendiolan ari omen zen arotz-lanean. Orduan baserri-arotzak eguna zabaltzerako joan ohi ziren. Lehenbiziko errazioa kafea anis-koparen batekin. Gero gosaria edo hamaiketakoa izango zuten, ondoren bazkaria eta horrela izan ohi ziren otorduak.

Goizean ari da ba kafea hartzen Jose Mari, eta garai hartan ez zen errepideetan izango gaur adinako mugimendurik, baina Gasteiz alde horretan motorzale batek bazterra jo eta lepa-hezurra hautsi omen zuela ari zen kontatzen Mendiolako Jose Antonio:

- Harek'e ein izango'u ba aberii...

Miren, etxeko neska gaztea, albistearen amaieran orduantxe etorri sukaldara eta galdetu du:

- Ze pasa da?

- Mutilen batek motorrakin baztarra jota lepa-hezurra hautsi omen duela ...

- Nun? –istripu lekuagatik galdezka.

- Burutik beheratxo –Jose Mariren erantzuna.

Jose Mari hori Errezil kaleko bere tailerrean ari omen zen komun-portatilla egiten, gaixo zegoen batentzat. Garai batean baserri-arotzak egin ohi zituzten horrelako

lanak. Han inguruan emakume bat hurbildu zaio eta obra hori norako ote zen edo jakin-mina, eta galdetu dio:

- Ze, Josemai, zenentzako da hoi?

- Ipurdiintzat –erantzuna.

Beste behin, tailer horretan lanean ari zen beste lagunen batekin. Egur bat moztu behar zuten bere neurrira, eta bai moztu ere! Hala esan omen zuen Lazkanok:

- Motzegi in diu, eta gaiñea bi aldetatik zeok motzegi...

Mendiola zaharrak eta lertzak aizkoljokoa egin omen zuten Azpeitian. Apustu estua izan zen nonbait, eta asko eztabaidatu omen zen par behar zuela eta ez zuela. Epaileek behintzat Mendiolari eman zioten jokoa. Lazkano zaharra gaixo antzean zebilelako-edo ez omen zen joan jokoa ikustera. Beste lagun batekin omen zegoen tabernan. Nafarren batzuk sartu izango ziren tabernan jokoa ikustetik zetozenak eta Lazkanok galdera:

- Errezildarrak ze ein du?

- Irabazi ein du, baina guretzat par beher zun.

- Estuu izengo zan ordun?

- Bai, holaxe zan: tak, tak!

-Hoi ezta par, e! Par izeteko tak, beher du –Lazkanok.

Argindegira joan omen zen behin Lazkano zaharra, ukuiluan obraren bat egitera. Leku iluna zen eta argiarekin ari behar. Alde egin du argiak eta Argindegiko aitonak esan omen zuen:

- Oain ikuste'a argiik ze falta eitte'uan!
- Oaintxe ezteu ba ikusten –Lazkanok azkar asko.

Jose Mari Lazkano hau, Xanti Lazkano ziklistaren aita zen, baina beldurgarri aldrebesa izan behar zuen bizikletan, semea ez bezala. Hogeita hamar urterekin ikasi omen zuen bizikletan ibiltzen, berak esaten zuenez.

Behin ba omen doa Azpeitira bizikletan. Hor bazen Elutxeta zaharra edo beste fenomeno bat, hark jakin bestearen bizikletako abildadeen berri eta gaineko alde-tik egin dio eupada. Lazkanok, ezusteagatik, bat-batean begiratu du gaineko aldera eta hor doa lurrera. Lanera joango zen nonbait, eltzean bazkaltzeko babak hartuta, babak lurrera erori eta han ari omen zen baba horiek jasotzen, bazkari gabe geldituko zen bestela. Bestaldetik une horretantxe, pasa da Utsetako aita eta esaten dio:

- Ze ai haiz Lazkano, babak biltzen? Ez nizkikek hoitxek jan nahi!
- Eztakak ze janik'e! –Lazkanoren erantzuna.

Etxean, bere osasunarengatik komeni ez zitzaion zerbait jatera zihoanean esaten zioten:

- Aitta, hoi etzazu komeni!

Eta bere erantzuna:

- Honek ze eingo zean ba, kalte eitteko lain'e ez den da!

Hitz egitea asko gustatzen zitzaion Lazkanori, jakina denez, eta bere antzeko pertsona berritsuren batekin tokatzen bazen, ez zitzaion askorik gustatzen eta esan ohi zuen:

- Horrek dana beak esan beher izite'in!

Lagunartean berriketan ari ziren batean, batek esan omen zuen, besteren baten esanari komentarioa eginez:

- Bai, ipurdii atzian izete'k!

Eta Lazkanok ondotik:

- Ez beti. Nik aurrian'e ikusi izen dit.
- Aurrian? Zeini ikusi diok hik ipurdi aurrian? – lagunak.
- Katuuri, ipurdi mihizten ai danian!

Beste behin, lagun taldea ari zen baserriren bateko lanetan, hamaiketakoa egiteko gelditu izan behar zuten, eta eztabaidan hasi ziren. Lazkano ez, hura denborarik alferrik galdu gabe ari zen jan-edanean. Diskusioa zen, sagardoa edateko zein janari zen egokiena, zezina ala bakailaoa. Josemariri galdetu zioten:

- Lazkano, hik, zein dala onena esate'k, sagardua eateko?

Eta bai azkar asko erantzun ere:

- Earri!

Lazkano behin haserretu egin omen zen beste norbaitekin eta esan omen zion Josemariri:

- Hi ez haiz gizona!

Eta Josemarik erantzun:

- Ez nauk izango bapua, baina ni gizonakin arreglau eitte'nauk. Baina hi ez gizonakin eta ez hire moukuakin. - Garbi utzi zion zein zen bietan eskasena.

Behin batean Lazkano tabernan angulak jaten ari zela, orain baino ugariagoak izan baitziren garai batean, eztulka hasi omen zen, eta ondoan zeukanak esan:

- Lazkano, zer dakak eztarrin?

Hitz egiteko moduan izan zenean erantzun zion:

- Angulan bizkarrezurra gelditu zeatak eztarrin.

Beste behin ere angulak jaten ariko ziren eta han ari zen bat angulak zeinen onak ziren esaten eta, hura isildu zenean, Lazkanok ondotik serio-serio:

- Nik, bat izatekotan sardin-zaharra nahio.

Bera bezala baserri-arotza zen bati behin gertatua kontatu ohi zuen Jose Marik. Arotz hori iluntze batean baserri batetik etxera zihoala, lapur bat atera omen zitzaion bidera, eta esan omen zion arotzari:

- Eman diruu, bestela...!

Arotzak, ohi bezala, bizkarrean erremintak zeramatzan eta aizkora hartu eskuan eta esan omen zion lapurrari:

- Ze, bestela?

- Hartu'be jun beherko'ala bestela...! -lapurrak erantzun.

SOMORROSTRO

Somorrostro zenak nahiko tipoa berezia izan behar zuen. Garai hartan Erkezin zen geltoki moduko bat. Garaiko garraio-bideak idiekin-eta ohi ziren, karro handietan. Erkezin zegoen geltoki-biltegi moduko hori teilape bat zen. Behetik lastoa edo horrelako zer edo zer ekartzen bazen hor uzten zen. Mendian ateratako egurra edo ikatza, leratan jaitsi eta hor biltzen zen, gero hortik garraiatzeko behar zen tokira, karro handietan.

Somorrostrok erreteila berritu behar omen zion baserriari. Orduko baserri-arotzek denetik egiten zuten, arotz, hargin edo zena zela. Baserri-arotz horietako bat joan zaio, usadioa zen bezala, igande arratsalde batean, merienda mokadu bat eginez. Ikusi du teilatua eta esan dio:

- Erkiziko biltegiin teila bado. Bihar goizian, euna zabaltzeako jungo naiz ni hara ta zu're jetxi behiak.

Somorrostro zaharra apenas zen baserritar punta-puntakoa, ganadu, gurdi-erreminta, kurtera eta gainerakoen aldetik.

Esan bezala jaitsi da bere ganadu kaskarrekin Erkizira. Arotzak kalkulua eginda izango zuen gutxi gorabehera 400 bat teila-edo beharko zituela teilatua itxuraz konpontzeko. Hasi dira kargatzen, baina Somorrostrok bi arazo zituen berekin, batetik ganadu-indar soberarik ez, eta bestetik zenbat eta gehiago eraman gehiago pagatu behar. 200 teila jarri zituztenerako hasi omen zen Somorrostro, "honekin eingo deu" esanez, arotzak gutxitxo zela eta ez zela, hor aritu ziren bai eta ez, eta arotzak azkenik:

- Beno, beno, zuen teilatua da bai ta hor konpon. Nolabait nahastuko deu eamate'ezunakin, baina gutxitxo izengo'a.

Hala, arotza, gutxitxo izango zen kezkatan, baina abiatu da Somorrostroren aurretik, bere erremintak bizkarrean dituela, teilatua askatzen hasiko zela-eta hura etorri bitartean. Bide-aldapa horretan bazen kako-gune bat. Bihurgune horretan bere behi xaharrekin jiratu ezinez dabilela, kabila hautsi edo kurtera eten zaio, eta hor ihes egin dio gurdiak teila eta guzti basoan behera. Beheko sakonera iritsi-takoan, bri-brau! Gurdi xaharrak hango egur eta teila hotsa! Arotza ordurako,

goratxora joanda, entzun ditu zaratak, eta irten da bide ertzera. Baita Somorrostro ere akuilua goian zuela:

- Ieu!
- Ze pasa'a? -arotzak.
- Uste'it kontauriz osauko geala!

Somorrostro hori gaixotzea tokatu omen zen. Etumetan zuen bere koinatua. Gaixorik egonaldi bat egin eta Etumetako iloba etorri zaio bisitan, eta esaten dio:

- Ze moz, osoa?
- Hainbestian, neska!
- Zu ondo zare hala're. Gue aitta zue aldian eskasa do.
- Lehen'e hala huanan!

JOSE ETXENAGUSIA *ERREMENTATEGI*

Errementategi, Zelatun aldean ibili eta jaitsi da Errezil alde honetara. Tabernaren batean sartzean galdetu diote:

- Ze, Joxe, goietan ze berri dao?
- Hotz. Elurra ein beher du!
- Noaino?
- Lurreaino...

Errementategi korrikalari ibilia zen eta nola halako apustularia izan behar zuen. Errezilen taberna ere eduki zuen. Hala jarri omen zion behin puntua bertsolari bati:

*Hamar jokotatik bost
egin ditut tongo...*

Hala pentsatu arren
hori ez do ondo.
Zeuretzat nahi dituzu
hemengo ta hango,
tipo hortan ez dezu
korrikatik jango.

HILDAKO SENARRARI

Errezilgo emakumeren batek bisitatu du bere senar ohia kanposantuan eta hala esan omen zion:

- Hortxe earki zare. Neetzat etzinan ona izen.

ARRAUTZA PAREA

Badakizue apaizek nolako indarra zuten garai batean. Hasi dira, garai bateko misioak-edo deitzen zirenetan, sekulakoak esaten moda eta liburu txarren kontra. Apaiz batek esan omen zuen: "Gaurko mundu hau, seguru-seguru egon emakumeak galdu behar duela. Emakumeen artean dena dago liburu txarrak irakurri, zine edo pelikulak ikusi eta txorakeria galanki. Gero ezkontzera ailegatzen dira eta arrautza pare bat prejitzen inork ez daki. Hau da gertakizun lotsagarria gertatzen ari dena". Emakumeen kontra egin zuen kristoren sermoia esan bezala.

Elizatik irten zutenean hangoen komentarioak:

- Aze egiik esan dittuna apaizak!

Baita urrutiko baserri bateko agure xahar batek ere...

- Bai, bai, kriston egiik dittuk hoik!

- Baina zuen etxea ez huen ailatuko oaindik pelikula eta liburu txarren moda hoi?

- Ez, pelikulaik eta liburu txarrik ez baina gure etxian'e ez die oaindik arrautze paria prejitzen ikisi, beti bakarra emate'zere nei.

KEIXETA

Bi errezildar, diotenez Keixeta eta Saberri, joan dira Torrelavegako feriara. Saberriri hango bi idi gustatu, baina pareta ziren ala ez jakin nahi, eta ganaduzale erdaldunari nola adierazi hori?

Keixetak esaten dio:

- Eon hai lasai, nik erdez bazekit ta hoi belaxe konponduko'iu.

- Hik galde'ioak ia bi hauek iri-paria al dian.

Hala joan zaio Keixeta ganaduzaleari eta esaten dio:

- *¿Este buey es aquel?*

- *No, este es este y aquel es aquel.*

- *Vale, vale* –Keixetak.

Etorri zaio Saberriri eta honek:

- Ze esan dik?

- Salduta darella biik.

Ijitoren batek Keixeta zaharra ikusi du belarretan ari zela, eta galdetu dio:

- Ikusi dezu nere lagunik?
- Ezta nahi're –Keixetak.

BARTOLO ATXUKARRO GALARRAGA-SALETXE



Galarra-saletxeko Bartolo da beste fenomeno bat izana. Garai batean Landetan bazkaltzen zuen beti, apopilo. Beti prezio jakina ordaintzen ohituta zegoen nonbait. Menuaren prezioa igo egin zuten garai hartan, baina Bartolok beti bezala bota zuen hamar eurokoa. Bordatxoko Arantxak esan dio:

- Aizu, Bartolo, ezta ailatzen!
- Eon haina lasai, bultzako'zeonat-eta –diruari bere aldera bultza eginez.

Bartolo hau ere *mucho oficio pobre seguro* hauetakoa zen. Ezamara joan zen behin, txapuzaren bat edukiko zuen han egiteko-eta, jendeak jakin-mina ere izaten du eta batek galdetu omen zion:

- Ezaman oaindik lehengo su zahar hua al dao?
- Ez, goizero pizte'line berri-berrii... –goizero su berria pizten zutela alegia.

Errezildar batek bazuen Ford XR2 beltz bat eta Landetan gaizki aparkatuta omen zeukan. Lagun batek tabernara sartuta esan omen zion:

- Hiria al dek horko kotxe beltz hori?
- Bai –besteak erantzun.

Eta Bartolok:

- Gezurra esan diok, hiria ez dek beltz-horii (horia), hiria beltza bakarrik dek.

Bentaberrin aditutakoa. Irure Beltza eta horiek ari ziren, apustu baten inguruko kontuetan. Norbaitek apustua egin eta seinaleak galdu izango zituen. Adinean aurrera egin ahala sasoian atzera egiten baita. Irurek esan zuen:

- Gizonak atzeaka hasi ezkeo ez du ezertan irabazten –kiolariren bati buruz ariko zen.
- Bai, sokatiran! –Galarra-saletxek.

Baserri batean telebistaren apala jarri omen zuen Bartolok, palomilla moderno sinple batzuen gainean. Orduko telebistak kajoi zahar handiak izan ohi ziren eta etxeko aitonak begira-begira jarrita:

- Honek, eutsiko al dio hainbeste haundiko telebisiuak? Ez al dezu apala ahul samarra ipini izengo?
- Ez, ez, ikusiko'ituzu hor trailer eta barku geantak pasatzen, baina horrek danai eutsiko'ie.

Bartolok bazuen Seat 131 kotxe bat. Harrapatu egin zioten eta Azpeitiko Goena alde horretan su eman eta erreta bilatu zuten. Ertzainek kotxe hori bilatu eta nore-

na zen jakindakoan abisatu egin zioten. Joan da Galarra-saletxe ertzainetara eta galdetu omen zioten:

- Kotxe hau zuria ('zurea' herri hizkeran) al zan?
- Bai, lehenon bai, oain ez dao oso zurii baino... –zuria ez beltza zegoela alegia.

Hartu du Bartolok andre bat stopeak Elosiagara bidean. Hala galdetu omen zion andreak:

- Kotxe honek zenbat urte damazki zuukin?
- Mordua, hirurogei bai!
- Hirurogei? –besteak harrituta.
- Bai, nik hoeta hamar urte pasa dazkat eta zuk'e eukiko'ituzu beste hoinbeste...

Beste behin, zerbitzaria lanean iritsi ezinda zebilen tabernan eta Bartolo adarra nondik joko. Berotu zaio zerbitzaria:

- Mundu hontan danok gaituk amak eindakuak, e?
- Ni ez –Bartolok.
- Hi ez? Hi zeinek eindakua haiz ba?
- Amak ez, zaharrena naun-ta. Ni jaio arte ez huanan ama, hua ni jaiotakuan ein huanan ama. Aurretik neska edo nahi denana izengo huanan, baina ez ama.

Raylli edo kotxe-karrera bat antolatu zuten, Bentaberritik gora Erdoiztara. Handik hurrengo egun batean elkarrekin juntatu eta atera dute karreraren kontua,

Atxukarro eta Bartolo bi lehengusuek:

- Lehenguan karrera ikusten izen emen haiz?
- Bai, han eon niñun Saotako etxaurun, arbola atzian bildurrak amorratzen...
- Arboliak atzia eukitze al dik? –Atxukarrok.
- Eukiko'ik, ipurdii izete'ik-eta!

Bentaberri kontu polit askoren txokoa izana da. Iluntze batean Lakuteko Txatok eta Galarraga-saletxek atera zuten eztabaida: hemen haurdun jarritako emakume batek Frantzian umea izaten badu, ume hura nongoa den, euskalduna ala frantsesa. Bartolok esaten zuen hemen haurdun jarritakoa hemengoa zela Frantzian jaiota ere, Txatok ezetz.

- Konparazio bat jarriko'it –esan zion Bartolok–, hik ume'eittek astua txerriteira sartu eta txerritein umia eitten bau, hua zer dek, txerrii ala astua?

Galarraga-saletxe hizketan argia zen baina bere parekoak ere bilatzen zituen inoiz. Estrako zita-etxean izan zen nonbait eta hala esan zuen:

- Lehengoan Estrako neska batek isildu nitxeok bapo.
- Hi isildu? Nola?

- Esango'it ba. Lehengun jun niñun Estraa, hasi nauk tragua hartzen eta hor etorri zetak neska bat ondoa, *pagame un trago* esanez. *No quiero*, nik. *Vete a tomar por culo*, beak. *No me gusta*, nik. *Señal de que has probao*, eantzun zean. Ze esan beher diok?

Eroskira joan omen zen behin Bartolo erosketak egitera, komuneko paperaren bila.

Han zebilen paper horien apalategia aurkitu ezinez. Neskaren batek esan omen zion:

- Zeren bila zabiltza?
- Komuneko papelan bila...
- Zer koloretakoa nahi dezu, txuria, rosa... denetik daude?
- Etzat inporta, koloria neonek jarriko'iot.

Bartolo-eta, Loidisaletxe baserriko erreteila ipintzen ari ziren. Iraola Zaharreko Enrikek, baserri-arotza zen eta lanean ari zirenei hala galdetu zien:

- Sartu al dituzue danak? –teila berri denak teilatuan sartu al zituzten alegia.
- Ez, danak kanpuan (teilatuan) geau'ittuk –Bartolok.

Han lanean ari zela, hanketan kiratsa zuen nonbait Bartolok, ez zituen egunero garbituko-eta, hor bota dio bere inguruan zebilenen batek:

- Bartolo, ez dek hire hankatan giro!
- Ez hire suturrian'e! –Bartolok.

Mutil zaharra zenez, Errezilgo San Antonion jarritako harri berria zela-eta, emakume batek esan omen zion Bartolori:

- Bartolo, hasi beherko'ezu harriri bueltak ematen...

Bartolok kasurik ez. Berriz bigarren goz ere, eta berdin. Eta hirugarrenean esan

omen zion:

- Ez, ondo beinkatu arte ez nitxeon ni hor bueltaka hastea, bestela hi bezelako txoroon bat hartuko'inat-eta.

Galarra-saletxe Bartolori esan omen zion batek behin:

- Etxe-alde oso berdea daukak –sasiak hartuta omen zeukan-eta– Bartolo, ze ein dezue?

- Fruta-landaria aldatu'iu.

- Saarra halakon bat?

- Ez masustia –sasiak ematen baitu masusta.

Bartolo etorri omen da medikuarengana beste baten. Haren bizimodua ere hala zen, beti soziedadean edo tabernan janez, txuleta sarri. Medikiak analisisen emaitzak ikusi dizkio eta hor aurkitu ditu goian beharrekoak behean eta behean beharrekoak goian. Medikiak esan omen zion:

- Gizonak behin 50 urte jiratu ezkeo jan'e lijero samar jan beherra dauka.

- Erbii jan beherko'iu ordun! –Bartolok.

Azpeiti aldean ezaguna zen, peluka jantzita ibiltzen zen bat. Landeta aldean, ia irten gabe ibiltzen zena Bartolo bezalaxe.

Behin baten Galarraga-saletxe, Mendizabalenean ari omen zen hamaiketakoa egiten eta euri-lanbroa ari zuen. Garai hartan euri premia handia zegoen, lehor zeuden bazterrak. Sartu da "pelukas" hori tabernan eta galdetu dio:

- Ze, ebi asko ai al du? –Bartolok.

- Bai, kaka zaharra! Gure ile xahar hauek bustitzeko aina.
- Hik erreza heukan halare. Patrikan sartzia nahikoa huan –Bartolok.

Sarritan bezala Landetako Bordatxo tabernan zegoen Bartolo, eta telebistan albist-
teren bat entzun zuen *Viagra*-ri buruz zerbitzariak, eta Bartolori galdera:

- Zuk ez al dezu beher hortatik?
- Zer da ba hoi?
- Zea, zure azpiko kanila altxatzekoa.
- Et, et, et! Hoitamar urte hontan hoi jeisteko paatzen jardun naiz eta hoi iotzeko ez det paatuko, gastu gehiegi da hoi!

Beste behin ere sarri bezala tabernan zegoen gure Bartolo. Telebistan, 1980 urte inguru horietan, krisia gora eta krisia behera ari ziren orduan ere, etengabe. Sarri zerabilten hitza, gerrikoa estutu, *apretarse el cinturón* zen eta Bartolok ez ulertu-arena eginez bota du galdera, bat-batean:

- Gerrikoa estutu, zeatik?
- Hara bestia, zeatik izengo'ek! Soldata txikio, diru gutxio, tripaa eamateko je-nero gutxio, gerrikoa estutu beher nahi ta nahi ez.
- Ba nei tripa ondo betetakuan estutzen zetak gerrikua, ez gosiak nauanian.

Gizon txiki bat, metro eta erdi inguruko gizon bat, igande eguerdian lagunekin tragoak hartzen dabilela esaten du:

- Bihar klinikara natxiak.

- Zer dek ba?
- Etenda (ernia) emen natxiok eta korapilau-eo ez zakiat ze eingo'iaten.
- Lehenaz gainea luzia geauko haiz hi koapilua einda –Bartolok.

Kaminuko bide bazterrak garbitzeko gelditu izan behar zuten auzolanean, eta Bartolori ere esan omen zioten:

- Zapatun bire-bazterrak garbitzeko geatu gaittuk, eta azaldu.
- Ni erdittik ibiltze'nauk.

Baserri batean lanean ari zela ganadu bikainak eduki ohi zituen baserritarrari esan omen zion Bartolok:

- Txahal bikainak baauzkatzue.
- Bai, txahalak saldu ginun, baina karnizero txoro horrek ez dittu ematen, eta hemen dare hauek beren buruu jaten.
- Hala're leku onetik hasi dia buruik eztee pisatzen-ta.

Laurogeiko hamarkadako uholde batek, Errezilgo baserri-bideetan aberia handiak egin zituen beste leku askotan bezala. Orduan Foru Aldunditik eta Jaurilaritzatik, eta abar, diru-laguntza batzuk agindu zituztenez, bide horiek hormigoiz edo breaz konpontzeko ardura hartu zuen udaletxeak. Eta alkateak Errezilgo baserritar denei bi-lera batera deitu eta esan zien:

- Laguntza horiei esker udalak bideak konpontzeko ardura hartuko du baserri-tarrek ezer ordaindu gabe. Baina baldintza batzuekin:

Bata, konponketa horiek diru publikoarekin egindakoak direnez, aurrerantzean bide publikoak izango direla.

Bigarrena, basoa ateratzen ibiltzen diren makina, eskabadora eta abar, hau da, katedun makinarik ezin daitekeela ibili bide horretan.

Orduan Bartolok:

- Bizikletan'e ezingo gaituk ibilli ordun.

Beste behin, Bartolori Errezilgo emakumeren batek bere amagatik galdera egin zion, makal samar zebilen-eta nonbait.

- Ama ze mouz dezue, Bartolo? Badakik urteekin ibilbire txarra harek'e!

- Ez, ibilbiria ona daka, oaintxe ein berri-berri dakau ormioizkua. Pausoa moztu zaio.

Galarra-saletxe era guztietako konponketak egiten ibili ohi zen, orain baserriren batean, hurrena herriko eskolan, deitzen zioten lekuan. Edozer lanetarako esku trebeak bazituen ere ehizarako ez zen nonbait oso abila izango, ehiztari txarraren fama zuen behintzat.

Errezilgo herriko eskolan koadro bat ipini behar zuen, eta horretarako tadoroarekin zuloa egiten ari zen paretan. Bat-batean hor hasten da alarma marixan.

Begira zeukan irakasle batek esan zuen:

- Marka da geo, hainbesteko paretan hoi apuntau beherra're!

- Geo, Bartolok apuntei txarra dakala esango'ue.

ERKIZI ARTZAIA

Behin errezildar batek ardiren bat erosi izango zuen eta hor eman dio albistea, ardi-en berri asko ez zekien batek, Erkizi artzainari:

- Ardii eosi dit, bikaina!

- Bai, zea eosiko'un hik!

- Bai, earra ardii!

- Horrek ez dik moteil ezertako balio –artzainak–. Eingo nitek apustu goian ez dakala hortzik!

Norbait ez dakienik balego ere ardiek eta hausnarkariek goian ez dute hortzik izaten, baina ez zuen hori jakingo ardia erosi zuenak. Begiratu dio hortzetara eta:

- Mekauen! Etzeukak gainea!

- Sartu'ie earra –besteak.

Hala, ardiari ahalik etekin gehien ateratzeko, bada ez bada ere sangratu eta gazi-kutxara.

BENTABERRIKO KARMELO

Bentaberriko Karmelok taberna Loidi Txuriri utzi behar ziola herentzian, esan izango zuen. Osabak zer pentsatu behar zuen erabaki horrekin galdetu omen zioten. Hara hemen Karmeloren erantzunaren bertso zati bat:

Neri osabak eze etzeak eman
deskuidau ezkeo ostia,
ta hari baino askoz nahio dit
Loidi Txuriri uztia.

DERRAMA

Dozena bat baserri-edo egon ohi ziren elkarte batean. Baserri bakoitzeko ganadu denak liburu baten apuntatuta egoten ziren beren izenekin eta tasatutako prezioekin. Tartean erditzerik izan bazen, prezioa pixka bat igo eta erditzea pasatukoan jaitsi, eta horrela.

Kontrol hori emateko komisionatuak ibiltzen ziren, hiru bat-edo, igandeetan egin ohi zuten baserri denetako kontrola, sei hilabetez behin-edo. Ganadu bat galtzen bazen, inbentarioko prezioaren arabera ordaintzen zitzaion galdutako ganaduaren balorea eta jateko moduan bazegoen, Derramako kideen artean banatu ohi zen okela.

Ibili horretan zebiltzala, Errezilen hainbeste pendiz eta aldapa bada-eta, bidezidarren baten gora joango ziren jai bazkalondoren batean komisionatu horiek. Eguerdian garbantzuanen bat eginda joango zen haietakoren bat. Hor bota du egundoko puzkarra, eta ohitura handia da esateko hemen holakoetan:

- Etzekak, lehen ainako leku harrapatuik!

Atzetik zihoanak:

- Alajainkoa! Ordun hire ipurtzulua aina ez dek izengo nere suturzulua!

ATXUKARRO SIMON

Bere etxetik aurrera pasioan doala, hor ikusi du Atxukarro, besteren batek, arto artean traktorea jarrita, artaburuz kargatzen. Pasatzerakoan esan zion:

- Ze, Simon, ai al haiz traktoria kargatzen?

- Ez, otarria husten ai nauk –orduantxe otarraka artoa traktorera botaz.

Atxukarrok behin, Loidi Txuriari, Bentaberrin zeudela, korrika jokatuko ziola esan omen zion norbere etxera lehenago zein joan. Loidi baserria, Atxukarro baino lehenago dago Bentaberritik abiatuta, eta pentsatu omen zuen, "honek nei korrika irabazi?". Bota dituzte bosna mila pezeta, Bentaberri depositario zela. Horretan zeudela Atxukarrok esan zion:

- Ez dit apustuik irabazi nahi.
- Ze ba? –Txuriik.
- Hik ez daukak hire etxeik-eta –Atxukarroren sententzia.

Atxukarro horrek beste osaba bat izan zuen zahartuta, gaixotuta, nahiko gaizki, eta halako gorabeheratan luze samar zebilena. Jendea ere enteratuta zegoen nonbait eta esan omen zioten:

- Ze, osaba're atzeaka omen dezue?
- Ez, lehentxo aurreaka juten ikusi'et!

Lehenago aipatu izan dugun *Derrama* delako hori bailaraka izaten zen eta Arzallus bailaran Eguberri bigarrenkoz izaten zen urteko bilera, Bentaberrin afariarekin bukatu ohi zena.

Afaria ere beti jakina ohi zen tripakiak eta txuleta. Ekarri dituzte tripaki horiek, baina beroak oso. Baten bat hasi da oharkabeen jaten, eta ahoa erre:

- Mekauen! Berook zerek...
- Janak berua beher dik –Loidisaletxeko Antonio Marik.
- Ez helauak... –Atxukarrok aldamenetik.

SERAFIN

Serafin parranderoa zen nonbait eta amak esan omen zion behin:

- Xeapin, hasi beherko'ek ba parrandai utzi ta Kajarrosen diru pixkat sartzen...
- Gue etxian baino gehio eongo'a lehenore –Serafinen erantzuna.

Serafin, Pazko bigarrenko batean, hor ikusi du Imanol Lazkanok aurpegia dena urratuta. Bezperan garbi-garbi inolako arrastorik gabe elkarrekin apartatu ondoren:

- Ze ibili haiz? –Imanolek galdera.
- Mekauendios! Laun batek traizionatu nitxeok atzo.
- Zeinek? –Imanolek.
- Naparrak!
- Naparrak? Zein napar huen ba?

- Zea izango huen, napar beltza (ardoa), eun guztiin halako earki arreglatu ginun elkarrekin, umore earrian, geo eta kontu polittauak esanez... Kabroi zikinak, iluntzian, azkenian bultza ta sasira bota ez nitxeok ba!

Serafin, erreizildarra zen, baina Zarautzen bizi zena. Egun batean, erreizildar andre-gizon batzuk joan dira Zarautzera eta topo egin dute Serafinekin. Serafin egun-pasa eginda argi-argi zebilen.

Andre hori nonbait garai baten Serafinekin nobio ibilitakoa izan eta berriketa asko ibili zuen Serafinek emaztearekin. Serafin berriketan isildu gabe, hau eta hori eta beste, garai bateko kontuak berrituz, “akordatze altzea harako hartan, eta akor-

datze altzea beste hartan...", etorri ona zeukan nonbait. Errezildar gizona, ez gustura baina une hartan isilik.

Hurrengo goizean gizon horrek topo egin du berriro Serafinekin, eta baita kargu hartu ere:

- Hi, Xeapin, hiikin hitz ein beherrian nitxeok...

- Zer dek ba?

- Atzo nee andriai eindako jarduna, ez zitzatan asko-asko're gustau.

- Ean'e beher baino gehio einda nitxeuan-ta, etzekit ze esango nion...

- Hola eta hola jardun hitzean...

- Hoi esan al nion'e? Eanda nitxeuan eta ez hai harritu, baina nik bazekit eandakuan egi geantak esaten'e!

LANBERRI-TXIKI, EUGENIO

Beti esan izan da Errezilen etxero bazela bertsolari edo sasi-bertsolariren bat. Lanberriko bi anaia, Zelatun alde horretara joan ohi ziren gaztatara, urtero. Behetik gorakoan, Loidisaletxen, kafea hartzen zuten. Zelatunera joan eta dozena erdi edo zortziren bat gazta zakuan hartu eta bueltakoan meriendatu egiten zuten Loidisaletxen. Gazta erdi bat han likidatuko zuten. Horietako batean han ari ziren meriendatzen. Loidisaletxeko Antonio Mari ukuiluko lanak egiten ari zela, tarteka handik mokaduren bat eginez, han zebilen joan-etorrian. Lanberri Txikia han ari zen gazta eskuan hartu eta esplikazioa ugari. Antonio Marik ukuilutik etortzean esan zion:

- Ze mouzkoa dao gaztaia?

- Oaintxe nitxeak eittea aurreneko hozkaia.

Loidiko aita eta Lanberri-txiki Eugenio, koinatuak, joan dira Iruñeko brujoarenera, taxian, andreak lagun. Sartu dira biak batera kontsultara eta Loidikoari esan omen zion brujoak:

- *¿Tu fumas mucho no?*
- *Si* –Loidikoak, zertan ukatu.
- Antzeman dik hiri –Eugeniok albotik.
- Oain ikusiko'iu hiri ze esate'ikan –Loidik.
- *¿Tu bebes mucho vino, no?*

Hala esan omen zion Lanberri-txikiak koinatuari:

- Hau gue andreekin hitz'einda zeok, gu etorri baino lehenotik!

Lanberri-txikik eguna pasa du garo ebakitzen. Gero Bentaberrin gelditu da eta gaueko hamabiak jo etxera abiatzerako. Hala, abiatu da noizbait, eta hor doa sega bizkarrean hartuta. Kotxea sumatu du bidean, eta bazterrera mugimendua, eta balantza ere bai pendiz gainera. Kotxean zihoanak, ezaguna izaki:

- Lanberri, nahiko baztarrean bahabil!
- Lanberri segapotun belarri'pe ez da etxea jungo, e! –balantza ez baizik belarra hartzeko keinua egin balu bezala.

Segapotoan arraitza edo zorroztarria ez mugitzeko belar sorta bat eramateko ohitura du askok.

BETERINARIO ZUHURRA

Beterinarioa joan da Argatera, eta han zegoen bertako nagusia, beterinarioaren zain. Iritsi zirenean ukuiluan ate ondoan mandoa zegoen, eta haren atzetik pasa beharra zeukaten. Beterinarioa nahiko beldur. Hori igarrita nagusiak:

- Pasa, pasa honek ez du ostikaik tiratzen.
- Zuk ba al dakizu honek ze eingo'uan? –beterinarioak.

LOIDITARRAK

JOAN JOSE AITONA

Garai batean ganajatekoak astoaren kakoen gainean ekartzen ziren, Loidin eta baita beste leku askotan ere. Loidiko ataritik ukuilura aldapa handi samarra da. Loidisaletxeko Antonio Mariren osaba zen Loidiko aitona. Behin astoarekin badoa, Loidiko aitona aldapa horretan behera, eta asto gaineko karga gero eta aurrerago, karga ipurgainetik baino burutik gertuago astoak. Antonio Marik ikusi eta esan omen zion:

- Osoa, asto horrek kargak nahiko aurrian baittu!
- Nahio nitek aurreaxo baleuzka –ia etxera ailegatuta baitzegoen.

Loidin garai baten sagar mordoxka izan ohi zen, 6.000 kilo inguru. Aitona hori eta sagar-biltzaile begi-bakar bat han ari omen ziren sagar apartatzen ganbaran, eta esan omen zion biltzaileak:

- Aittona, zatarra fuera, e? –ustelak kanpora alegia.
- Hik'e hala beherko'ek ordun –aitonak.

Loidiko aitonak besoa hautsi zuen eta igeltsuarekin geldirik eduki izango zuen besa hori denboraldi baten, hezurak itsatsi arte, ohi bezala. Igeltsua kenduta, besoa libratu ziotenean, artean ere esku ezkerrarekin ari omen zen jaten, eta arrebak esan omen zion:

- Eskubi ahora ezin al dek eaman?

- Hirea (ahora) earki –besoa arrebaren aldera luzatuz–, baina nerea ezin!

Aitona hori gaixo zegoela etorri zaio auzoko emakume bat bisitan.

- Ze, Joanjose, gaizki al zare?

- Bai, ta gaizkio jarri beher!

- Jesus! Hoixe da triste eotia! –esanez utzi omen zuen.

Gaizki dagoenari hori galdetzea ere!

INAZIO GOENAGA *LOIDI TXURII*



Loidi Txuriik Eldu artzaiari botatako bertsoak:

Larogei urtera zera
ia-ia arrima,
laiste mundu utzi beher
hori da lastima,
zerura joango dala
artzaian arima,
zeruik ezta ikusi're
inpernuik baldima.

Miloi hotsa galanta
mingainaren puntan,
gouan hartu zuri zer
esaten dizutan:
ez dituzu utzi nahi
Txurian eskutan,
zuukin erreko dira
inpernuko sutan.

Loidiko Inaziok *Txurii*-k, Zaldibian eta Areson-eta bazituen lagunak. Behin Errezilgo soziedadean elkartu ziren, Zaldibiara joateko. Hizpidea atera zuen lagunetako batek:

- Ze afari do Zaldibin?
- Buskantzak! –Loidi Txuriik.
- Zer da hoi? –lagunak.
- Buztana saltsan –Loidik.

Lagunak garbi ez zion ulertu zer zen, baina zerbait esan behar eta hor esaten dio:

- Buztana saltsan baino gauza earroik ba al da?
- Eon hai lasai moteil, etxea etortzeako jarriko'iu hoi're-ta! –Loidik.

Areson behin zezen txiki bat zebilen plazan. Bazterrera etorritako baten ukitu zion Txuriik eta pentsatu zuen:

- Honek e'nitxeok ni botako!

“Bizia zen baina ez zeukan indarrik. Neska gazte batek jertse gorria zeukan eta hura amorrua zeukana jertse gorri horretara!”, Txuriik dioenez.

Patxi Iraolak esan zion:

- Ez hai hor ibili, min hartuko'ek-eta!
- Bai, zeal –Txuriik .

Han platano arbolak zeuden eta haien ilaran jarri zen Txurii ere, eta esan zuen:

“Baietz geldi-geldi eon zezena etortze'anian?”

Zezena etorri zen kristoren abiadan eta jotzeko kinada egin zion Txuriiri, baina ez zuen jo. Iraolak esan zion:

- Hik bota'ek eskapaia!

- Horrek ba al dakaizu ze pentsau duan, ni panpanoa (arbola) naizela, haatik ez nau jo! –Txuriik erantzuna.

Errezilgo Akerra soziedade aurrean zegoen behin lagun-talde bat, entierro-egun baten. Etorri zen hileta-autoa, Errezilgo goi aldetik behera, eta maniobra egiten hasi zen. Txofer berri samarra nonbait, lehen maniobran ez zuen asmatu, eta bigarren-goan ere ez. Han inguruan zegoen Txurii eta esan zuen:

- Hau hildakoontzat txoper hobia zeok biziintzat baino!

Bi gizon ospetsu elkarrekin ote zebiltzan-eta jendearen berriketak eta marmarrak bolo-bolo ibili ziren garai batean. Tabernetako komentario horietako batean, bi hai-etako bat Errezilen oso ezaguna zenez, bota omen zuen batek:

- Horrek marikoia izateko ze falta'ik ba?

- Launa bakarrik –Txuriik erantzun.

Loidi Txurii Azpeitiko taberna batera joan zen, askotan bezala, tenple ederrean. Kafea eta kopa eskatu zituen eta mostradorekoak galdera:

- Puruik beher al dek?

- Bai

- Montekristo bat?
- Ez, ez, oaintxe bota'it.
- Ba, fariasa ez dek ba nahiko?
- Ez fariasik ez. Ez al daukak besteik?
- Dauzkek: Flor de la Isabela, Don Julian...
- Bai, ekarri azkeneko hoixe.
- Bai, baine Don Julian haundiye ala txikiye?
- Don Julian! Don Julian izateko handii beher dik – serio asko Txuriik.

Beste baten ere Pastorkuan zeuden, bi bertsolari ezagun. Mahaian zeuden biak eta Loidi Txurii etorri zen beste lagun batekin, gaupasa eginda. Agurtu zituen bi bertsolariak eta haien ondoan eseri zen. Han aritu ziren berriketan, eta halako batean esan zion lagunari:

- Etorri ai hi're!
- Ez, segi zuek, ni ondo nitxeok! –besteak mostradore ondotik.
- Etorri hai, gizonak hemen gitxerek.
- Hor gizonak bi bakarrik zerek –lagunak.
- Zein dek ba ordun gizona ez dana? –Txuriik bi bertsolariei begira, bere buru-arekin ez zeukan nonbait dudarik.

GOENA

Errementategi eta biek proba jokatu zuten idi-parea sozio zutela. Argoini jokatu omen zioten, itzain-librean. Hauek, Leoia eta lurre, bi itzain ospetsuenak hartu

omen zituzten itzain.

Kristoren proba jokatu omen zuten, baina galdu. Kezka hartu zuten beren idiak gehiago izan eta galdu ote zuten, tongo egon ote zen alegia. Handik hilabetera joan dira berriz jokoa egitera eta bota dituzte diruak, hilabetera jokatzeko. Argoinek esan omen zien:

-Itzaiak zein dituzue oaingoan?

-A, oaingo hauek bapook ez dia izengo baino diruz eosiko ez dittuzuenak bai. Biok izengo gea.

Proba jokatu eta beraiek irabazi gainera.

Goenak esan omen zuen behin: "Gure Jainkuak zeruko ate ondoa jundakuan tarte pixka't ematen ba'it, gizon horrixe egi batzuk esateko goua bazekat ba. Izen'e, gizon bati etzeok mundu hontan nei ein dittan baino aberi haundigoik eitteik: etxia bete ume, osasunan erdii, beti kanbioi'pe eta Zabalen maizter".

Ez dakigu hildakoan esan ote zizkion.

Goena eta Jose Errementategi biak lagunak ziren. Errementategik ume bat izan eta bera hil egin zitzaion. Hala esan omen zuen behin:

- Nahio nin, komunistak izenda're (garai baten komunistak ziren gaitz guztien errudun elizaren eta abarren eraginez) hamar ume izen banittu, batebe geatzia baino.

- Gustoa ikusiko nin hi jipoitzen hire seme bat –Goenak.

Kurutzia Patxi, Pegaso batekin garraioan ibiltzen zen, Pasaiatik Zumarragara txatar garraioan. Hilabete pare bat lehenago, Patxi honek, Landarraingo bihurgune hori-

etan, bidetik irten zuen bere kamioiarekin eta beheko sakaneraino joan zen. Kamioia pixka bat txikitu zuen, baina berari ezer ere ez zitzaion gertatu.

Iluntzero samar Landetako Lizasorenean egiten zuen afari-mokadua. Egun hori-etako batean han zegoen betiko koadrila, Lizasoren tabernako egoskorren mahai-an.

Pazkoko garaia zen eta hor etorri da Goena, Loiolan konfesioa eginda, Landetara, eta taldearen inguruan jarri zen, eta bai jendea hura zirikatzen hasi ere berehala, abila baitzen hizketan. Han zebiltzan denak ji-ji eta ja-ja Goenarekin barez. Kurutzia Patxi ere mahaira hurbildu eta Goenari esan zion:

- Oin'e ai haiz berriketan. Kontu natuala pranko esaten aiko haiz, beti bezela!

- Hala iizte al diok?

- Here kasa juteko baino hobeto eongo haiz ta bota'zak motorra kamionea, eta neonek eamango haut Errezilea.

- Et, et, et! Nik Goenaino jun beher dit e, ez Landarrainaino bakarrik!

BELAMENDIKO EUGENIO

Belamendiko Eugenio, Donostiara joan zen batean, ezagutzen zuen Errezilgo andre bat ikusi zuen han, bai agurtu ere Eugeniok.

- Zu zein zaitugu, ba? –andreak.

- Ni Belamendikoa naiz.

- Belamendikoa, e? Ezagutzen ditut zure aitta eta ama. Han bazan ba Belamendiko anaietako bat, Saberriko Mirenekin ezkonduakua.

- Neoni naiz, serbitzeko.

- Ene! Ze neska politta zan Miren! Aspaldi ez det ikusi.

- Bai, arrazoi dezu. Garai hartan politta zan, geoxouan earra, eta oain ona ta kitto.

Errezilgo gazte batek, Azpeititik Errezilera motorrean zetorrela, bidean, Urzelaite aldean, arbolaren batek bidera irten nonbait eta kristoren zartatekoa hartu zuen. Eugenio egunak pasatzen Nafarroan egoten zen garai hartan, eta handik etxera etorrita, sartu da Panaderikoan:

- Egun on, Jainkuak –esanez.

- Bai zuri're. Bizi al gea?

- Bai, ondo. Ta ze berri deu ba gure tierra hauetan?

Orduan eman zion tabernariak istripuaren berri eta Eugeniok:

- Hara, hola al ginan oain'e. Kopa bat nahikua, bi gehiegi eta hiru edan beher.

Eugenio bere pasadizo bat ari zen kontatzen, Bentaberriko tabernan. Kamioi gorri handi bat zuen izan ere Eugeniok, eta nola ibili ziren 2.000 kiloko burdin bat kamioira jaso nahirik, hiru-lau lagun kristorenak jotzen, jaso ezinik. Kamioiak tapa ixteko izaten duen koskaraino jasotzen zutela, baina handik gora ezin.

- Han, ze ein beher zan? –esan zuen Eugeniok.

Galarra-saletxe, Bartolo han zen inguruan eta...

- Erruerak hustu –Bartolok.

- Kaka zutzat! –Eugeniok.

UMANTSORO

Apezetxea izeneko nafar bat egur tratuan ibiltzen zen. Errezilgo koadrila bat denbora dezentean ibili zen berarentzat lan eginez. Apezetxea hau Errezilera etorri zen

egun batean, Bentaberrin berriketan zeudela, afaria egiteko proposamena egin zien berak inguruan zeudenei:

- Nik arkumea ekarriko'it eta zuek gastuak paatu (arkumea bere kontu eta haiek gastuak, alegia).

- Zuek gastuk paatze ezkeo nik'e ekarriko'it arkumia –Umantsok.

Abuztuko egun batean Umantso Agustin, Landetako Mendizabalenean zegoen txikito bat hartzen. Errezilgo gizon gazte bat etorri zen. Elkar agurtu zuten Agustinek eta biek, eta Agustinek:

- Oporretan ibiliko haiz? Ondoik bilau al dek?

- Ezta aleik'e. Izen'e lehengo aste hoitan kanpua ibili nauk-eta...

- Je! Hoik ez dittuk barrun eoten! –Agustinek.

Beste behin, Agustin, Akerra soziedadean dagoela, jaitsi da bere koinata baserritik kalera, eta hor bidaltzen dio mutil koskorra osabari abisuarekin:

- Amak esan du, piska't ertetzeko –umeak.

- Behin hasi ezkeo dana erten berko'it!

LAKUTEKO TXATO

Landetan San Eloitan urtero jartzen zuten krosa. Bordatxon zegoen aurreko asteetatik erakusgai, irabazlearentzako garaikurra. Hura ikusita Lakuteko Txatok bota omen zuen:

- Danan hanka artetik pasatzeko mouko mutil txiki batek eamango'ik hoi –bere seme Joxerengatik esan zuen hori.

Esan eta izan baita gero berak eraman ere.

Lakuteko Txatok bazuen kamioi handi bat. Nafarroatik lasto garraioan ibili ohi zenez, Irurtzun aldean behin batean kamioia aberiatu zitzaion, eta hor gelditu da bide bazterrean.

Han dagoela atzetik zetorren autozale batek, jo du kamioa atzetik, eta, horrelakoetan askotan ohi den bezala, hor hasi zaio autozalea errietan:

- Zeatik ez dezu seinaleik jarri?

- Sinalia? Loiolako basilika baino kamioi haundiua ez dek ikusi ta seinaleek ikusiko'ittuk hik!

BESTE ERREZILDAR BATZUK

Bi errezildar haserretu dira beren arteko gorabehera batzuk direla-eta. Hala esan zion batek besteari:

- Hi're asko bezela putakume geanta!

- Haatik izet'ek –besteak–. Etxeko berri jaikit'eiu azkena. Hi hala itzala bane-txekin aspaldi, baino neonenik ez.

Errezildar batek bere koinatua Tolosan zeukan, klinikan. Arreba bere senarra bisi-tatzen izan eta autobusean etxera etorritakoan galdetu omen zion:

- Gizona ze'mouz den?

- Hobeto. Entendimentu pixka't etorri zaio –koman egona zen nonbait.

- Bazinan premii.

Garai hartan baserri bakoitzean baziren hamar dozena bat ume. Ostatu bateko tertulian, han ari zen horietako bat umez nahiko aseta zegoela esaten, baina jolaserako gogorik ez zitzaiola artean falta. Hala esan zion beste batek ondotik:

- Umeik ekarri nahi ez baek, izate'ek hor momentu bat atzea ein beherrekua.
- Ez dek txarra izaten momentu hoi aurrea eitteko're! –besteak.

Errezilgo jatetxe batean, bi hala moduzko ari omen ziren burura etorritako handienak esaten elkarri. Han egokitu omen zen beste errezildar batek, haiek alde egingdakoan galdetu omen zion tabernariari:

- Ze iitzi diok beste bi hoin jardunai?
- Ze esango'ek –tabernariak.

-Hoi're baek pertsonajia –haietako bat izendatuz–, lepuan gainian tximia ta belarri geantak eta buruik batez! –tximatsua eta belarriz ondo jantzia izan nonbait.

Errezilgo bikote batek, ezkondu aurrekoa zuen lehen umea, ez zen lehenbizikoa izango, ezta azkena ere, baina inor askorik akordatu gabe jaio izango zen.

- D. Pedro apaizak esan omen zion gizonari bataiorako kontuekin joan zenean:
- Joxe, egin dekan hori Jainkuan kontra egitea dek, e?
 - Ez, guk arbolian kontra ein gendun ba!

Errezildar bat joan da sendagilearengana eta bere gorputza aztertu ondoren hor esaten dio sendagileak, azido uriko eta ez dakit beste zenbat gaitz bilatu dizkiola, eta ur asko edan beharra daukala.

- Asko, zenbat? –errezildarrak galdera.
- Gutxienez hiru litro, eta hortik gora zenbat eta gehio ta hobe.
- Zoatu ein al zea ala? Behi pintuantzat'e gehiegi da-ta!

Errezilgo aitona bat, eguna Azpeitiko ferian pasata, umore ederrean hor dago Errezilgo taberna batean, lagunekin mahai inguruan kontu-kontari. Halako batean jaiki eta hor joan da komunera, pixa egitera doala esanez. Hara joan eta bere *anaia txikiari* lepotik helduta esan omen zion:

- Ikusi'ek danak utzitta, hiatik nola etorri naizen mahaitik altxata, kontu kontari halako earki neona. Ia hurrenguan hi're holaxe altxatze haizen, hire beherra detan.

PIRPO

Pirpok kamioia eduki zuen eta oso azkar ibiltzen zen beti, kamioia topean zuela.

Errezildik Azpeitirakoan hartu du Antonio izeneko gizon bat bere kamioi horretan. Pirpok, bidean Antonio izutu samartuta zihoalakoan, hala joango zen seguru asko, galdetzen dio:

- Ondo al guaz Antonio?
- Nahio nitek azkarro jungo bahitz, saka moteil oaintxe! –eta bestea topean joan.

Antzeko kasua beste hau ere: Keixeta aizkolaria Pirpok hartu omen zuen behin Azkoitian, “eamango zaitut Landetaino” esanez.

Han zetorren errezildar ganberro, astakirten mordo bat atzean zuela, eta Keixeta bere ondoan. Pirpo beti bezala abiada izugarrian zihoan. Keixetak bere hizkera gozo hartan esaten dio:

- Aizu aiskiria, uste't laiste aillauko geala, baino nahio nuke aillauta baneol!

JOXE AIERTZA, *IRURE*

Joan Paulo I. Aita-santua, Aita-santu egin eta 29 egunera hil omen zen. Hura hil zenean Joxe Irure eta beste batzuk Landetan ziren.

Joxe Irurek garaitsu hartan andrea klinikan eduki izango zuen, ebakuntzaren bat tarteko. Handik ondorengo baten ikusi eta galdetu zion lagun batek:

- Dolores, ze mouz dek?

- Ondo. Etxeatu huan ta ondo. Eskerrak! Hik pentsauko'ek ba nik hua hiltzia baino zazpi Aitta-santu hiltzia nahio'etela!

Ibergun Joanen aita, Bonifazio, hil zela badira urte batzuk. Joan eta Joxe Irure oso lagunak ziren, baso-lanean eta langintza ezberdinetan elkarrekin asko ibilitakoak.

Bonifazio hori hil zen, eta garai hartan Irure Landetan bizi zen. Hurrengo egun baten, Lizasoren tabernako egoskorren mahai hartan zeudela:

- Ibergungo Bonifazio're hil dek! –esan zuen batek.

- Bai, hil dek ba –Joxek–. Entierruan han niñun eta zelebrezko pentsamentuk izen nitxetin elizan. Laroeta hamabost argi zeren piztuta Errezilgo elizan. Kontatzen jardun niñun, denboria nahikua nitxekan-ta. Pentsatzen eon niñun, hau dek gizoi burla eittia! Zenbat aldiz jardun ote zan gizajua, baserri zahar hartan, behiak biltzen argi bat beher eta bea falta, eta oain hildakuan bat'e beher ez dittun garai-an, 95 argi piztu alajainkua!

UTSETATARRAK

FERMIN

Utseta Fermin, Betronek, Igeltsoategian lanean ari zela esan omen zuen behin:

- Hau dek earrii!
- Hor daukak udda presko askual –beste batek ondolik.
- Lastima'ek earri ear hau uddakin kentzia!

Garai baten garo-biltzeak, sagar-biltzeak, etab., dena auzolanean egiten ziren. Lana bukatutakoan afaria egin eta erdi mozkortuta, dana ere igual, baina etxera aldegi-terakoan katilukada bana esne partitzeko ohitura zen. Utsetan ere beste etxeetako ohitura, eta esnea eskaini behar alde egiterako.

Esnea su-gainean irakiten omen zegoen eta esnea partitzen hasteaz bat argiak alde egin. Hala ere partitzen segi eta, Utseta zaharra ere elementua izan, katilua banatzerakoan esan dio Betroni:

- Hitzat burnizkoa tokau dek ba!
- Igual zaio.

Burnizkoa zena gazta-zumitza izan, gazta egiteko ontzia alegia, zuloz betetakoa eman aitzak bere semeari jakinaren gainean. Ez zen giro izango ondoren.

Beste baten, Utseta, Betron txerria hiltzen ari zela, tira dio kolpea gaintxoarekin txerriari eta ez harrapatu, alde txerriak.

- Gaintxua okertu! –esan omen zuen.

- Gaintxua okerra izate'ek –ondotik anaia Joanek.

Izan ere gaintxoa okertu ez, zuzendu egingo zitzaion-eta kolpea tiratzean.

Betron hau, Elurre izeneko etxe batean jarri zen bizitzen emakume erdaldun batekin ezkontuta, Bilbokoa bera. Errezilen bazen, garai hartan, apaiz bat muturra leku guztietan sartu behar izaten zuena. Fermin, hain zuzen, ez zen oso ondo ere konpontzen apaiz horrekin. Ezkontzeko paperak egitera etorri zenean esan omen zion apaizak:

- Ez al zegoan urreaguan hiretzako aina neska?

- Hik segi hire lanian –Ferminék.

- Hik erdaldunakin nola entenditu behar dek? –apaizak.

- Haek, gerriz behera, euskeaz earki entenitze'ik.

UTSETA, JOXEMAI

Errezildar koadrila bat joan da bazkaltzera. Bazkaltzen angulak ekarri zizkieten, orain baino ugariago ziren garai batean. Haiek jaten ari zirela, baten batek atera du angulak harrapatzeko kontua:

- Hauek harrapatzeko sare itxii beherko'ik horratik! –batek.

- Ez dek iziten, sare itxiik –Utsetako Josemaik serio.

BERRIKITARRAK

ANTONIO

Berriki Antonio, Azkoitia aldean zebilen obra baten. Obra aurretik 16-17 urteko neska gazte guri-guri bat pasatu zen eta esan zion, lankide batek:

- Ze irizte'io, Antonio, neska horri?

- Horrek mahaian bat'e suerteik izate bahu, oinala beteko'u.

GERMAN

Obra baten ari zirela, bazkari-mokadu edo errazio baten inguruan atera dute hizpi-dea, Jaungoikoak mundua sei egunean egin zuen kontua zela-eta. Berriki Germanek:

- Mekauen! Ez huen langile amorratu izango, aurki aspertu huan. Hark abildade hoi eukitta beste eun bat nahikua zian ba gu eitten ai gean obra txoro hauek danak eitteko. Harta gutzat alde earra bahuan!

Ez zeukan nonbait paroan beldurrik.

Berriki obran lanean zebilela, taldean bazuten inork oso begi onez ikusten ez zuen lankide bat, inork aguantatzen ez zuena. Hizketan baino gehiago zaunka egiten zuen. Bere hizketa guztietan, gizonak hau eta gizonak beste hori aritzen zen beti. Hala ari zen baten, beste lankide batek esan zion:

- Egon ai isilik, hi bezelako hamarrekin'e ez zio, gizona eiteik-eta!

- Asmau dek bapo –Berriki, Germanek–, batekin urrena, hamarrekin ta urrutio!

MARTIN

Marmitako-jana, gaur egun ezaguna da gure artean ere, baina orain 35-40 urte inguru ez zen horren ezaguna hemen.

Garai batean Urrakiko elkartean dezentetan jarri ohi zuten, Hernaniko lagun batek emandako errezeta baten arabera.

Larunbata edo igandea izango zen, eta eltzekada izugarria zegoen prestatuta

elkartean, eta han agertu zen Berriki Martin, auskalo nondik eta nola.

Zerbait atera zioten edateko eta galdetu zioten:

- Bazkaldu al dek?

- Ez oaindik! –hark erantzun.

- Geatu hai hemen, hitzako aina bazeok. Oin, jateko etzeok lujo handik'e! Marmitakoa zer dan ba al dakik?

- Marmittian sartze'an guzti!

OTEITXO

Urrakin igande eguerdi batean, Oteitxo Josemari, mendi buelta eginda agertu zen. Urrakin sagardoa beti eduki ohi zuten, ahal zen onena. Izerditan etorri zen eta oso sagardo-zalea zenez, esan zioten:

- Sagardo trago bat eango'ek...

- Bai gustoa!– Jose Marik.

Hala, atera diote sagardo-baso handi horietako baten, trago eder bat. Edan zuen, halako grazia batekin!

- Ze? Ona al zeok?

- Ba'ek hau, segia utzitakuan eskoaria ainakua...

Sega, berez da langintza gogorra eta hartan aritzen denari sarritan tokatu ohi zaio eskuarez belarra biltzen aritu beharra ere hura amaitutakoan.

ABITTE

Arantzazun elkartu ziren behin lagun talde bat, tartean ziren Ibergun Joan eta Abitte Balerio ere, eta Beloki fraidea agertu zen haiengana.

Garai hartan egin berri samarrak ziren Oteizaren apostoluen eskulturak eta jendearen artean sortu zuten zer esana franko.

Beloki fraideak galdetu zion Abitteko Baleriori:

- Ze itxura emate'iek apostolu hoiei?
- Hoik, txekorrak kanalian!

MENDIOLA

Mendiola Migel, obran ibili zen lanean. Bere, Seat 600 kotxearekin han ibiltzen zen bueltaka. Ostiralean obra berriren bat hartzen bazen esaten zion nagusiak:

- Ekarri izkidak astelehenean mutil gazte pare bat.

Bera ibiltzen zen mutil bila, baserrietan lanerako gertu zeuden mutilen bila, eta hor azaltzen zen astelehenean 17-18 urte inguruko gazte parearekin. Bera beti peontzan ibiltzen zen, lanean hasi zenerako berrogeitaka urte zituen, eta enkofratuak egiten-eta aritzen zen. Gazteek sasoia lepo eta baita ofizioa ikasi ere, askotan bere pare edo hobeto lan egiteraino. Gazte horiek diru pixka bat egiten hasi orduko, laster zuten kotxe bana, bata baina besteak hobea. Migeli adarra jotzen zioten sarri:

- Miel, kotxe xahar hoi aldau beherko deu ba! –esanez.

Itziarko obra batean nagusia eta biak ari zirela, Migelek behin:

- Gazte hoik nun dabilta?

Azaldu zion ba nagusiak, batzuek toki baten eta besteak beste baten nola zebiltzan, eta hor esaten dio:

- Nahiko txoro-haize bazebiltkie hoik!
- Badakik ze izitean, sasoia eta... Orain purian zeudek.

- Mekauendios! Bi pezta eskun ikusi dittuela-ta, pentsatzen'de mundun danak aina dakiela. Hoik dakien aina nei ahaztu're ein zeatak geol

BORONDEGIKO PAULINA

Errezilgo frontoia egin berritan, azkoitiar gazteak, igande eguerditan-eta etorri ohi ziren pilotan jokatzera. Hala, pilotan egin ondoren joan dira Borondegira hamarretakoa egiteko asmotan.

Borondegiko Paulinari:

- Egun, on! Salda ba al daukazu?
- Ez daukat ba!
- Haragi egosirik?
- Haragi egosi euki banu, saldia eukiko nuan!
- Pikatzeko zer daukazu ba?
- Segia!

Baserrietan pikatzen dena sega izaten baita.

EZUITZA

Ezuitzako Fermin, joan da astoa eta karroarekin Azpeitira, txerrikume batzuk hartuta, han saltzeko. Garai hartan beste asko bezala, karroan patente eta ezer gabe. Handik Errezilera bueltan, Loidi alde horretan gelditu dute polizia motoristek. Ezuitzak bere artean pentsatuko zuen "nere txerri diruk jun dittuk haizea hartzea". Izena eskatu zioten:

- *¿Como te llamas?*
- Esteban Estabilondo.

- *¿Dondo vives?*

- Caserio Antzuzku –azken laurogei urtean hutsik zegoen baserria hain zuten.

Denuntzia egin zioten eta berari sinatzeko eman. Eta sinadura ere izen falsuarekin egin behar eta nerbioso gizona, larri, dardaraz idatzi ezinez.

- *¡Espabilate!* –poliziak ondotik.

Bere nerbio guztien artean asmatu zuen ederki! Denuntzia papera eskuan zuela pozik joango zen etxera. Gero denuntzia hori helbide horrekin Errezilgo udaletxera iritsi zenean, apenas inor aurkituko zuten. Han gelditu zen garbi “espabilatzearen” premia nork zuen.

Errezilen orain alkate dagoena, Maria Jesus Salsamendi, 2011ko hauteskundeak irabazi eta, kargua hartzeko zegoela artean, hala esan zion batek bere gizonari, Ezuitzako Jose Kruzi:

- Joder! Nik ez nin uste zuen etxian andriak hoinbeste aintze'zunik!

- Eon hai isilik, hemendik aurea zuen etxian'e ainduko'ik-eta!

IRAOLA ZAHARREKO ENRIKE

Iraola Zaharreko Enrike, Loidisaletxan aritu zen ganaduentzako egurrezko askak berritzen. Askak berriak egin zituzten, eta behia lotu zuten. Behia, ertz berria sentitu zuenean hor hasi zen hazka egiten riki-raka...

Loidisaletxeko anaia zaharrak hura ikustean esan zuen:

- Beittu hi, hazkuria eitten nola ai dan!

- Kentzen'e holaxe jardutze'ituk – Enrikek.

IBARTZABAL

Hirurogeiko hamarkadan, Landetako baserriko kooperatiba bateko eraikuntza bat egiten ari zirela, eguraldi oso euritsuak ziren eta han atera zuten hizpidea:

- Hau dek karakol giroa, eingo al deu karakol jana?

Denak konforme, eta eskolan zebiltzan gazte batzuei esan zieten, karakol bakoitzeko hainbesteko bat emango zietela. Hor hasi ziren eskolatik irten orduko karakolak biltzen. Bi-hiru egunean jesukristoren karakol pila bildu zuten. Karakol horiek zaku batean sartu eta zintzilik eduki zituzten, denbora dezentean. Landetako tabernako Julik prestatzen zituela ondo eta, hala antolatu zuten egundoko karakol-jana, abeltegi horretan.

Karakolak jateko garaia ere iritsi zen eta jaten ari zirela bota zuen batek:

- Joño! Earrak zeudek! Merezi zian!

Tarteko aitona zaharren batek, haien garaian pezeta ere urriago eta...

- Bai, gu earki ai gaituk, baino mutil gaztiek erten die hor earki...

1.500 pta inguru atera baitzituzten, hiru-lau egunetan. Hori entzunda beste batek:

- Hainbeste karakol harrapatzie (biltzie esan beharrean) ez da geo errex...!

- Behin ikusi ezkeo, erbii baino errexo horratik! –Ibartzabalko Joanmarik ondotik.

FERNANDO ETXAIZ

Fernando Etxaiz, hizketan ere ez zen batere kamutsa. Azpeitiko errebaletan ere bazen hizketako puntu hori. Kontua da behintzat, kartetan punttuan ari zirela beste bat eta bera, eskuz esku. Partida bukatu eta tantoak kontatzerakoan, 63 eta 61 galdu zuen Fernandok. Gainean, begira dagoenak beti asko jakiten duenez, honela esan zion:

- Heuk galdu dek Fernando. Aurreko pasaran 6an ordez 5a jokatu bahu, 7a aterata beharko zian eta 6akin pasara heukean, eta heuk irabazte huan.

Fernandok berotuta:

- Mekauendios! Egin banu eta ez baldin banu.... Gure amonak potroak izan babilu aittona izango huan!

Errezildar gazte bat han gertatu zen eta hala bota zuen:

- Hoi izengo zan famili ikusgarrii, bi aittona eta amonaik batez!

GARRATZA ZAHARRA

Beti basoan, idiekin egur garraio ibiltzen zen. Bere gorabeherak izango zituen basozaleekin, eta baserritarrekin ere bai agian. Erronka-apustulari samarra zen Garratza, Santos. Sansonek hainbat indar zakar, hortxe-hortxe izango zuen. Hamaika borrokaldi egina ere bazen bere bizitzan.

Odol-joeraren bat emanda-edo gaizkitu da gure gizona. Urteak ere aurrera zihozkion eta estu gizona. Ekarri diote apaiza eta bere aitortza egin ondoren apaizak esan omen zion:

- Santos, zuri gaizki ein dizuenai barkatze al diezu?

- Barkatu? Seittun hil beher baet bai, baina bestela ez.

Ordukoan ez zien barkatu izango, ez baitzuen ordukoak eraman. Geroko berririk ez dakigu.

D. Juan apaizak ikusi du Santos maldizioka eta hala esan omen zion:

- Hola ez, Santos! Hoik ez dia esan beher!

- Zue ofiziuari ez, baina nee ofiziuari erreza da geo!

MANDOA

Errezildar batek bere etxe berria egin zuenean, garajeko atea urruneko agindu edo *mando a distanciarekin* ireki eta ixten zela jarria zuen, gaur egun etxe askotan bezala.

Egun batean nonbait eskolara berandu samar iritsi ziren etxe horretako seme-alabak, eta esan omen zien irakasleak:

- Ze? Gaur berandu...

- Bai, garajeko atia irekitzeko *mandua* galdu ta bilau ezinik ibili gea –seme-alabek.

Aimar Irigoienek anaia gazteak hori entzutean:

- Zuek garajeko atia're manduakin irikitze al dezue?

ERRAZIONAMENDUA

Gerra-ondoan olio eta gauza horiek denak urri samar ziren garai hartan, joan da kalera Errezilgo baserritarren bat. Kalera joan zen kasuan hamaiketako bat egin beharko zuela ba, eta hor joan da tabernara. Han, zerbitzariak galdetu omen zion:

- Ze beher dezu?

- Saldia!

- Eta saldian gainian, ze nahi dezu?

- Izarrak! –erantzun omen zion.

Orain sobran dagoen koipea faltako zen orduan.

XOXARRETA

Xoxarreta Joxe lñixio, feriatik etxera baraurik ez zen etorriko nonbait, eta etxera bidean, Bildin aldean, erreka pasa behar zubi gainetik. Zubitik pasatzen ari dela erori da erreka. Ur handi samarrak nonbait, eta hor hartu du urak, eta baita errekan behera eraman ere Loidi alderaino. Loidiko Manuelek eta Antoniok atera izan behar zuten errekatik.

Errekatik atera zutenean, Loidiko Mariak esan omen zion:

- Joxeinixio, ui pila geanta eango zendun ba?
- Udda etzekinat, ardua bai! –Xoxarretak.

ZIKLISTA

Gure bailara horretan mutil gazte bati sartu zaio buruan ziklista izan behar duela. Baita amari esan ere, behin eta berriz, ziklista izan behar zuela:

- Utz hitzak txoakeri hoik! –amak.

Gogor ordean mutila ziklista izan behar zuela eta ziklista izan behar zuela. Hala, aitari ere esan dio amak:

- Gue ume honek ziklista izan beher emen du. Beste kontuik ez dabilki buruun. Ze ein beher zaio?

- Utz'iozu emakumia, danak aurrian dittula hor ibiliko'a-ta!

PORTUGAL

Portugal Manuel, bere garaian mutil nahiko sendoa zen, baina gero asko argaldu zen. Baten batek Erniope Elkartean hala esan omen zion:

- Motilak, Manuel, ez dauzkak beso loriik!
- Altako alanbria're ez da lori izeten baino ostiya geanta eukitzeu!

TREKUTARRAK

JESUS

Treku Bartolok, kotxe berria ekarri zuen, furgoneta bat, Jesus anaiak ezer ez zekiela. Jesus, iluntzean etxera joan zenean, atarian ikusi du furgoneta handi hori. Sukaldera sartu eta arrebarekin egin zuen topo, eta galdetzen dio:

- Zein etorri den gue etxea? Zenena den furgoneta hoi?
- Bartolok eosi dik.
- Ze, tente ibiltzeko idea al du? –izan ere, altuera txiki samarrekoa baita Bartolo.

Bazkaltzen ari zirela, kiwia Euskal Herrira azaldu zen garaitsu hartan gertatua da ondorengo. Jesus igeltseroa da eta herriren baten lanean ari ziren. Herrian bertan bazkaltzen ari ziren ostatuan, menuaren barruan kiwiak ekarri zizkieten postrerako. Jesus kiwia jaten hasi zen azalik kendu ere egin gabe, ez baitzuen ezagutzen.

- Ze mouzkoa zeok? –galdetu zion lagunak..
- Txarra etzeok baino, ahuan etzazue patinauko.

JOSEMARI

Treku Josemari, egun baten arratsalde hartan izandako bere ibilera ari zen kon-tatzen, Errezilgo kalean. Traktoreka belarrarekin zetorrela, kargak erori eta berriro nola jardun zen kargatzen, bera bakar bakarrik, oso leku nekosoan. Orduan, batek galdetu zion:

- Maldizuian'e saion bat eingo huan ordun?
- Bai motel, okotza dana nekau arte!

XABIER

Errezil sarrerako etxeak egiten ari ziren Santos Apalantza eta Xabier Treku. Santosek baja hartu zuela eta nagusiak hor ekartzen dizkio beste bi langile portugaldar gazte, gaztelera gutxi eta euskararik batere ez zekitenak. Horrela lanean ari zirela, hurrengo egunean etorri zaio nagusia eta galdetzen dio Treku Gorriari:

- Ze, ondo ai al zeate?
- Hemen ai gea, kontuk esaten denboa asko alperrik galdu'be!

ETUMETA ANTONIO

Etumetako Antonio, zenbaitek oso argitzat ez bazuen ere asko baino azkarragoa zen. Azokara Azpeitira joateko asmotan zenean, berak kotxerik ez eta Bentaberriraino etortzen zen oinez, Ariztitxon behera atajutik, eta gero stopean jarri ohi zen.

Behin baten Errezilgo andre batek bide ertzean stopean ikusi eta hartu du. Bidean zerbait esan behar eta galdetu dio:

- Denbora asko ein al dezu zai, Antonio?
- Bai, dezente. Bat pasa da hemen, lehen beti hartze ninun eta gaur bat'e ez da geatu. Ba al dakizu zeatik? Lehengo asteartean stop ein nion eta hartu ein niñun. Birian galdetu zian: "Goian eguzkik ba al dao?". "Behian behin'e ikusi al dezu?" erantzun nion eta dana haserretu zitzañan.

Antoniok taberna lege bat bazuen bere etxean. Igande eguerdi batean Azpeitia aldeko mendizale koadrila bat sartu zen bertan eta han aritu ziren edanean, kontu eta berriketa. Halako batean kontuak egiteko esan diote Antoniori, eta tontotzat hartuta-edo esan omen zioten:

- Oaintxe ez dek kontuak eiten erreza eongo hemen, ze ean deun'e ba altzekiu ba! Hik'e ez dek arrastoik eukiko?

- Bai, nik bai –Antoniok.

- Hik bai? –besteak harrituta.

- Bai, beittu! –eta patrikan zituen txapa guztiak erakutsi omen zizkien–. Ni ton-tua naizelakuan, ala?

HASERREA

Errezilen auzo diren bi baserritarren artean istilua izan zuten behin. Bietako batek bere lurretan behera doan errekatxo batetik hartzen du etxerako ura. Hain zuzen goragoko baserri bateko lurretan jaiotzen den iturria da hori. Haserretu dira biak Bentaberriko tabernan, ia-ia biak borrokan hasteraino:

- Hik udda're guria hartze'ek –batek.

- Eutsiok goian –besteak.

TRIPAKIAK

Bi errezildar Azpeitira joan dira behin, feriara, goizetik, oinez. Azpeitiko tabernaren batean sartu dira "tripakik jan beher zetiu" elkarri esanez. Taberna hori ere ez zen izango oso txukuna nonbait. Jaten hasi orduko elkarri, "mekauen, usaia're ez al dake?". Puskak ere handi samarrak nonbait, "puskatzen'e ez dek atso hoi asko saiau", eta hola marmarrean, nola-hala jan dituzte ateratako denak. Tripakiak jan ondoren zurrutean segitu zuten gogor.

Gauean abiatu dira berriro etxera, Lapatx aldean gora oinez. Edozein zakuk ere betetzen bada gainez egiten du eta bietako bat hor hasi da, arbola zahar bati helduta botaka. Besteak ondotik:

- Zer dittuk hoik?

- Tripakik, zikinak eta luze ebakik, nerekin ez die eon nahi ta ja'itzak hik –esan omen zion.

SOKORRA JOTZEN

Donostian bizi zen errezildarren bat etorri da Errezilera egun-pasa. Aste eguna izan eta herria geldi samar ikusi zuen nonbait. Iruren, Panaderiatik gorako soro horretan, Irure, Joxeren aita bakarrik ikusi zuen, soroan lanean. Hura ere antiojuak jantzi-ta ibili ohi zen. Beherakoan Bentaberrin gelditu da eta han atera du hizpidea tabernariarekin:

- Ño! Errezil hil samarra bilatu't.
- Ze ba?
- Inor'e ez zeuan kalia. Irureko Xanti ikusi't souan, sokorra jotzen antiajugin.
- Joño! Ez al zekan beste erremintaik?

BATAIOA

Errezilen ere beste lekutan bezala umea bataiatzerakoan aitaponteko izateko kredo esaten jakin behar izaten zen. Baserritarren batek aitapontekotza egin behar zuen nonbait, baina ez zeukan Kredoaren arrastorik ere. Apaizak esan omen zion Kredoa ez badakizu ez daukazu aitaponteko izaterik. Baserritarra gogor, berak izan behar zuela ba ume haren aitaponteko. Hala, apaizak hartu du berekin Kredoa erakusteko, eta esan omen zion:

- Zuk nik esaten dudana esan.
- Bale! –konforme baserritarra.
- Kredoa –apaizak.
- Kredoa –baserritarrek.
- Sinesten det –apaizak.

-Baitta nik'e -baserritarrak.

Ez zen erraza izango hari Kredoa irakastea.

JAUNA BARAURIK

Errezilgo urrutiko baserri bateko emakume bat bere astoarekin enkargutara zihoala, basoan lanean ari ziren gazte koadrila baten ondotik pasa zen, egunaren zabaleran, "egun on" esanez argi asko. Errezilen enkarguak egin zituenean, hari ere beste askori bezalaxe gustatu egiten trago goxoak, eta hamarretako on samar bat egin ondoren abiatu da etxera bueltan. Han egindako tragoak aski ez eta bidean ere beste batzuk eginez. Baso-mutilek hor ikusi dute emakumea, urrutira, eguerdi aldera bueltako bidean datorrela. Behera bezala gorako bidea ere haiek lanean ari ziren ondoko bidetik egin beharra zeukan. Pasa denbora eta emakume hori azaltzen ez, hasi dira kezkatzten. Taldeko gazteena bidali zuten emakumeari zer gertatu ote zitzaion ikustera. Handik beherako bide-zuloan, astoa goiko pendizetik larrean eta emakumea seko lurrean. Oihu egin die bere lagunei:

- Iepa! Hemen baek zeozel!

Etorri dira beste lagunak ere. Emakumea altxatu dute pendizera, ileak eta txukundu dizkiote, eta hala haren inguruan, ji-ji eta ja-ja, haiek broman baina emakumea zurbil.

Bidean gora behiekin orbeletara zetorren beste aitona bat, oso gizon suabe eta elizkoia bera:

- Hara! Zer da hemen? Hau gaizki dao! Ea, gazteen bat azkar apaizana joan zaizte eta elizakoak ekartzeko esaiozue. Hau gaizki dao!

Basa-mutil batek aldamenetik:

- Nahi baezu elizakook ekarriko'izkiozu baino, honek ez du Jauna baraurrik hartuko horratik -garai hartan Jauna baraurik hartu beharra egoten baitzen.

Emakume hori bera, igande arratsaldeko bazkalondoren batean, bere gizonarekin omen zegoen etxeko atarian eserita, inguruko oiloei begira, oilarra ere tartean izango zen noski. Oilar hori han zebilen nonbait orain oilo baten gainean eta hurrena bestearenean. Andreak aldamenetik gizonari, ukalondoarekin joaz:

- Zuk erronkia baina horrek bai sasoia! –oilarrari begira.
- Askotan ikuste al dezu bati bi aldiz iotzen?

ERREZILDARRAK URBASAN

Errezildar koadrila Urbasara joaten ziren egun-pasa. Kurutzia Patxi, Begihaundi, Txurii ere han izango zen, kristoren koadrila urtero-urtero. Han egun-pasa egin, jan-edana erruz. Lepa-hezurreraino bazkaldu zutenean, han inguratu zaie inguruko txerrama bat, janari hondarren baten bila. Errezildarrek entsaladera baten ipini diote txanpaina eta ardoa nahastuta. Bai gustura asko edan ere. Bi botilaka txanpain eta hiru ardo edan omen zituen, pla-pla-pla...

Harrapatu du kristoren mozkorra, eta gelditu da ziplo lurrean, formal asko txerrama hori!

Orduan Kurutziako Patxik Begihaundiri esaten omen zion:

- Eateakuan ba'ik hire antza, baina eandakuan hi baino formalo'ek.

Hala, alde egin dute errezildarrek, eta etorri da gero txerri-jabea. Txerria hala ikustean gauza onik ez zuela eta sangratu egin omen zuen.

Hurrengo urtean ere joan dira berriro, eta kantuan txerri kontuak aipatzen hasi zirenean, tabernariak esaten die:

- Egon zaitezte isilik, kriston eskandalua daukazue bestela. Nagusia etorri eta txerriak gauza onik ez zuela ikusi, eta sangratu egin zian –esan zien.

Hori entzutean, errezildar baten ateraldia:

- Mekauen! Behin mozkortuko-ta bertan *pena re muerte!*

Beste urte baten joan dira Urbasara, Eroskin parrilla berria erosita, saiheskia erretzeko, entsalada mistoa eta abar hartuta, han arbolapean bazkaltzekotan. Etorri zaie emakume guarda bat esanez:

- Zuek ez al dituzue kartelak leitu, hemen ez daola surik egiteik esanez?

Tontoarena egiteko asko ikasi beharrik ez eta esaten diote:

- Ez deu ba holako eze ikusi.

- Beno ba hori bukautakoan sua itzali geo!

- Idea hoi genun –Umantsok.

ZAZPI HITZAK

Loiolan Aste-santuan oso elizkizun ospetsua izan ohi zen *Zazpi hitzena*. Jesukristok gurutzean esan omen zituen azken zazpi hitzen inguruan alegia. Zazpi hitzetako bakoitzarekin sermoi izugarriak eginez. Erdi denboran geldialdia eta guzti, hiru bat orduko elizkizuna izan ohi zen.

Errezildarren bat joan da ba, *zazpi hitzen* fama entzunda, elizkizun horretara. Azkenean apaizak “hil da Jesus” esan omen zuen, eta erabat hunkituta gelditu omen zen gure errezildarra.

Joan da berriro hurrengo urtean ere. Entzun du ba sermoi hori, eta apaizak bukaeran, “hil da Jesus” aurreko urtean bezalaxe, eta errezildarrak:

- Berriz'e harrapau al de? Etzin besteik meezi. Jakin lehengo urtian ze ein ziuén eta jun dek ba hua berriz'e hara!

ARTZUBIAGA

Artzubiako Josemari hizketan oso bizia zen. Azpeitiko bere lantokian, igandeko planaren berri eman zien bere lankideei, hurrengo igandean estropadak ikustera joan behar zuela-eta Donostiara. Uda bukaera izan behar zuen, estropada garaia, ostirala edo larunbata izango zen.

Astelehenean etorri da berriro lantokira eta bokadiloa jaten hasi zirenean galdera:

- Ze mouz, Donostin?

- Eguna mundiala. Goizian sartu ginun korreuan, jun ginun Tolosa, han trena hartu ta Donostia. Urolan gosaldtu, estropadak ikusi, geo Urolan bazkaldtu ta etxea. Errezila arrimatu eta artean goiztxo etxea juteko. Boondein apaldtu eta Errezilgo tabernak itxittakuan etxea abittu ginun, eta bahuan nahiko lan handik gora. Zein ziudadetan euna pasa genun earki aiaziz jun ginun etxea, *sansebastian*, *sansebastian*, s-ak einez.

TXAHAL TRATUA

Baserri batera joan da harakin bat txahala ikustera, edo eroatera. Han ariko ziren ohi bezala tratuan, harakinak ez pagatu nahi eta baserritarrak eutsi egin nahi bereari.

Halako batean harakinak esan omen zion:

- Ez dezu ba pentsauko txahal eder hoittakua daukazunik!

- Txahal honek ona izateko gauza bat bakarra falta'ik.

- Ze falta'u ba?

- Hik eostia!

NESKA-LAGUNTZEA

Errezildar bat joan da baserri batera neska-laguntzera. Neskaren aita zaharra akordatu nola joan zen eta hor dator kanpora. Ezagutu egin nahi, bada ez bada ere nor zen alabarekin etorritakoa:

- Etorri hai barrua. Traoxka bat eingo'iu alkarrekin –esanez.

Ezetz esaten atrebitu ez eta sartu da sukaldera. Sukaldean kristoren euli pila, orduko baserri askotan ohi bezala. Neskatarra joan eta hango aitarekin zer esan handirik ez zuen asmatuko nonbait, zerbait esan behar-eta:

- Bada elbii hemen!

- Ba, ba'akik, elbii elbiina jute'ek.

- Zureana jungo'a pila geanta ordun... –besteak erantzun.

IDI-PARE GAZTEA (*ALDI*AK)

Errezilgo baserritarren batek eraikuntza lanak izan behar zituen etxean, eta garraio lan handiak izan ohi dira halakoetan. Ohi bezala auzotarren artean *aldiak* deitu zituen, auzo-lanean garraio-lanak egiteko. *Aldiak* garraiorako idi-pareak izan ohi ziren.

Bazen baserritar bat, beti idiak oso enpeinu handiz eduki ohi zituen, baina garai horretan nonbait, aldaketa garaia egokitu, zaharrak kendu eta idi-pare gaztea ekarri berria izan behar zuen. Ez zioten deitu garraio-lan horietarako eta min hartuta zegoen itxura denez.

Handik egun batzuetara, feriatik bueltan, etxerakoan, Bentaberrin elkartu ziren ohi bezala, eta denak ere ez ziren egarriak egongo, baina min hartutakoa zegoen nonbait denetan ausartena, eta han hasi zaio bere idi-pare gaztearekin erronkan.

- Lehenguan aldik deitzeakuan ez al zeuan gure premiik. Gure iriik han jasotako kargak jasotzeko indarrrik ez dakeelakuan. Gehiena eaman zuanak'e ez zizkin 500 kilo emango. Bota mila duro potroik ba'ek, baietz gue iri-pariak han gora bostehun kiloko kargia eaman.

Lagun-taldeko beste batek esan zion aldamenetik:

- Utzi'io, moskortuta zeok-eta.

- Bai, hoi're egii dek – besteak– . Oain moskortuta nitxeok, baina hoi moskortu aurretik pentsautakua dek'e!

ZEIN BAINO ZEIN

Errezilgo baserri batean bi mutilzahar bizi ziren. Lurrak preparatzeko garaia zen nonbait eta baserri horrek egundoko soro-zelaiak ditu. Zaldi edo behorrek lauhortza hartuta joan dira, bat aurretik eta bestea atzetik. Atera dute diskusioa:

- Lanean hemendik hara hasi beher diu –batek.

- Ez, beti handik honea haste gaittuk.

Atzetik zihoanak esan omen zion:

- Bai, bai, hiri etzeok kontra egitteik, beti bezela heorrek nahi dekena eingo'ek-eta. Arre!

Hala, joan dira bazterreraino, jiratu da aurrekoa, eta arrastoa falta. Atzekoak airean eraman zuen lauhortza. Zein ote egoskorrena?

ANDRE HIZTUNA

Errezilen garai hartan, beste lekuetan bezalaxe, hilean behin ilea moztera joateko ohitura handia zen. Larunbat iluntze baten etorri dira bi lagun ilea moztera. Ilea moztu ondoren kaferen bat hartzen geratu, eta bietako bat animoso samar zebilen nonbait, hasi da musean han zeudenekin. Etxerako konturik ez. Besteak esan omen zion:

- Bihar'e goizo muittu beherko'iu ta ni etxea nitxeak.

- Eon hai lasai! –besteak.
- Ez ni banitxeak –esan eta alde egin du.

Hurrengo goizean berriz topo egin dute mezetarakoan biak, tabernan geratu zena eta etxera joandakoa.

- Atzo animoso samar ikusi hinutan, etxea noiz jun hitzan?
- Atzo batez, gaur goizian...
- Gaur goizea arte eon al haiz? Hik dittuk barrabillak! Andriai ze esan diok?
- Nik eunon bakarrik, beste danak beak esan dizkik.

IKASTOLAN

Herriko eskolara nonbait andereño berria etorri zen, eta egin du bere aurkezpena, Errezilen:

- Ni Marikarmen naiz, zuen andereño berria. Aurten nerekin izango zerate. Pixkana elkar ezagutzen ere hasi beharko degu. Zu zein zaitugu? –lehenbizikotik hasita.

- Ni Mari Karmen! Ni Mirentxu! Ni Joxel! ...

Denek egin dute beren aurkezpena. Ondoren berriro andereñoak:

- Zuek eskolan zer egiten dezuen badakit gutxi gorabehera, baina hemendik irtendakoan zer egiten dezue, etxean? Adibidez, zuk Mari Karmen?

- Nik amai launtze'iot sukaldia garbitzen.
- Zuk Joxe?
- Nik aittai belarra biltzen launtze'iot.

- Zuk zer egiten dezu, Andoni?

- Nik enbaazu!

GANADUAK JETXI

Behin batean erreizildar bati esan dio beste batek ferian:

- Ze, ganauak jetxi al dituk? (Errezilen bildu esaten da)

- Ganauak jetxi? Nik ganauak ikuiluan zeuzkeat e, ez ganbaran.

AITONAREN AJEAK

Errezilgo aitona edadetu bat joan da medikuarenera 78-79 urte ingurukoa.

- Zer dezu ba, gizon? –medikuak

-Iño! Nere eskubiko belau zahar honi begittu'iozu ondo. Hemen bada zeoze. Min izugarrik dazkat.

Begiratu dio eta:

- Ez dauka honek inolako gaitz berezirik. Zenbat urte daukazu?

- Hirurogeita hemeretzi.

- Ba, edadiarena da hori.

- Beste belauak'e baittu ba horrek aina urte!

- Bai, baina... –medikuak filosofatuz– gizona da zuhaitz zahar bat bezela. Zuhaitz zaharrari're lehenbizi adar bat igartzen zaio, eta gero bestea, ba gizona're halaxe.

Egon omen zen gizona pixka baten behera begira, eta esan omen zion:

-Azkenian arrazoa eukiko'zu. Ba'et nik beste aar bat, hoik baino lehen ihartua...

DOTRINAN

Dotrinan lehen apaizak bezala orain katekistak ibiltzen dira dotrina ematen. Katekista bat ari omen zitzaien umeei azaltzen, nola prestatu heriotzarako, hil ondoren zerura joateko. Errezatu egin behar zutela salbatzeko eta Jainkoari eskatu, etab.

Esan omen zien:

- Adibide bat jarriko dizuet. Konparazio batera zuek bazoazte itsasontzi batean, bat-batean barkua hondoratzen hasten da... Zer egin behar dezue orduan?

- 1, 1, 2ra hots ein –mutiko baten erantzuna.

MONAGILO

Joan Mari Begiristain, pilotari izandakoa, monagilo ibili omen zen D. Pedrokekin mutikoa zela. Igande baten gaixo nonbait eta ez zen joan meza-laguntzera. Hurrengo igandean D. Pedrok galdera:

- Lehengo jaian ze izen huan?

- Joan Mari –erantzun omen zion sano.

SEME MARDULA

Joan da Ezamaneko Tomax, argala bera, bere seme mardula eskutik duela, mezatara Goiatzera. Bera baino oraindik argalago zen beste batek galdetu omen zion:

- Ume honek aitta zein du?

- Ni –besteak.

- Hi, esate'ek! Hi baino mardulon bat ibili dek hor!

- Hi ez hitzan izengo ordun –erantzun omen zion.

“BASERRIA” ERRE

Errezilgo mutil-gazte batek juergatik etxera zetorrela, Albizturko Benta Zaharreko neskan etxe hori erretzen ikusi du, handik pasatzean erretzen ari zen nonbait.

Etxera etorri zenerako, aita jaikita etxean:

- Egun on! – aitak.

- Bai, egun on!

- Baittuk hauek etxea etortzeko orduk!

- Hoi ezta eze asko hala're –hizpidea aldatuz– . Albizturren daon baserri onena erretzen ikusi deu gaur!

- Bai? Eta ganaurik erre ote'a? –aitaren kezka.

- Ez dakit baino, dozena bat birai han geldittu dia etxe-jiran.

Hori esan ondoren, hor joan da semea zuzen ohera. Aita ukuiluko lanak egin eta meza nagusira.

Iristeaz bat gizona albistea emateko gogoz, lehenbizi ikusi duenari hor bota dio:

- Albizturren basarri bikaina erre izen beher dik ba. Dozena bat birai etxe-jiran han omen zebiltzan.

Bestea hor hasi zaio parrez lehertzen, eta serio eraso omen zion:

- Ez dittuk geo parre egiteko kontuk!

Laster jakin izango zuen zer tankeratako baserria eta bigak ziren erretako baserrikoak.

ASTO GAINEAN HOBETO

Errezilgo baserriren batean ba omen zen garai batean 16 urte inguruko neska gazte bat haurdun zegoena. Neska hori astoa gari zakuarekin kargatu eta errotara joan izango zen. Gariak igota, zaku-irina gainean zuela zekarren astoa, baina astoaren gainean jarrita zetorren bera ere, egoera hartan aldapak errazago pasako zituen-eta.

Aitak, soroan artajorran ari dela, ikusi du alaba nola datorren bidean gora, eta hor esan dio:

- Earki pentsau den, beti azpiin ibili'be.

NEGUA AZKAR PASATZEKO SISTEMA

Bi errezildar elkartu dira Azpeitiko ferian udazken amaierako feria egun batean eta han daude tertulian abereei begira.

- Negu're gainian diu. Luze egite'ek geo hemendik martxoakua! – dio batek.
- Eosi zak abendun behia, martxuan paatzeko eta ikusiko'ek ze azkar pasako zaken – besteak.

AIMAR IRIGOIEN

Jende askok jaso zuen gogoan Aimar Irigoienen ateraldia. Xabier Euzkitzek Euskal Telebistan egiten duen *Bisitaria* programan Aimar Irigoien ere bisitatu zuen eta berarekin hizketan ari zela, honen zaletasunetako bat agertu zen. Urtero Ibizara joateko ohitura zuela-eta, Euzkitzek galdetu zion ea hondartza zalea ote zen eta Aimarrek ezetz, ez zela oso zalea, baina bazeudela beste entretenimendu bideak ere han.

- Igerian ba al dakik? – galdetu zion Euzkitzek.
- Bai –Aimarrek–, moldatze nauk.

- Non ikasi huen igeri egiten? –Euzkitzek

- Uddetan –Aimarrek–.

A ze barre algara atera zion Euzkitzeri! Eta hala atera izango zion telebistako ikusle bati baino gehiagori.

BI ERREZILDAR AZPEITIKO OBRA BATEAN

Grupo Landeta izeneko etheen garajeak egiteko zuloa egina zuten eta haren hor-mak egiteko enkofratua egina eta ormigoiz betea utzi zuten ostiralean, eta egun-doko euriak egin zituen asteburuan. Astelehenean, enkofratua kanpo aldetik lehor zegoen, baina barruko aldetik bi metro inguruko putzua zeukan. Obra horretan lanean ari ziren bi errezildar joan ziren enkofratua askatzera, eta bietan gazteenak esan zion lagunari:

- Nik ez zakit irarin eta hik jun beherko'ek barruko aldea, nik kanpo aldekoa askauko'it.

- Inun ikistekotan uddetan ikisi beherko'ek ba – bestearen erantzuna.

INAXIOMARI ATXUKARRO



Irriparrezko Printzak liburutik hartu ditugu zenbait istorio, egoki iruditu zaizkigunak, eta liburu honetako idatz-irizpideen arabera egokitu ditugu idatzia, istorioak aldatu gabe.

SANTU IPUINA

Bazen agure bat oso elizkoia ez zena. Apaizak beti esaten zion:

- Zu etzaitu elizak azpian harrapatuko ez.
- Iruitze al zatzu?
- Etzea zu bela santu eingo.
- Santu? Ezta nahi're
- Ze ba?

- Elizako paetan zintzilika eoteko? Danak eske, eta eze ez emateko; atzea ezin ein; aurea beittu ta salto ikearri; hotza ba, berua ba, hantxe eon beher. Miseri haundioik ze nahi dezu hoi baino!

ATXUKARROREN ARREBA

Inaziomariren aurreko arreba, Maria Rita, Belamendin zegoen, baserri lanetan lagundu eta umeak zainduz.

Bi arreba zaharrenak, Martxelinak eta Anitak, Tolosan Jose Caballero jaunaren etxean zeramatzaten urteak. Etxepe hartan bertan, azpiko bizitzan, Urkiolatarrak bizi ziren eta harako bidea eman zioten Maria Ritari, ume-zaintzarako. Honek ere erdaraz tutik ez.

Behin badoa Tolosako kalean barrena, umea kotxetxoan duela. Bi neska-gaztek hurbilduz *"¡Oí, qué criatura más hermosa!"*-edo esanez galdetzen diote Belamenditik jaitsitako neskari:

- *¿Es nena?*

Eta honek:

- *Kee?*

- *iA ver si es nena!*

- *Nena no, neno* – mutila zela alegia.

A ze barreak gero!

TXOFERRA

Kamioikada lastorekin etorri zen Nafarroatik, txofer gizen, jale handi bat. Borondegin bazkaltzen gelditu eta izugarrizko babarrun-jana egin izan behar zuen. Kafea hartu eta, purua ezpainetan zuela, sartu eta abiatu da bere trepetara horretan, berriro Nafarroa aldera. Bidean gizon batek behatza jasoaz:

- Tolosaino eamango al nazu?

- Sartu, sartu!

- Eskerrik asko.

Hor doaz tur-tur, hotsa eta lurruna dariola aldapan gora. Hasi zaizkio babarrunak bigarren irakinaldian txoferrari. Hura zen hura sosegatu ezina! Botatzen du ikaragarritzko trumoi-puzkarra. Usaina ere ez intsentsuarena, noski. Laguna larri, baina isilik.

Aranguren-berriko buelta hartu ezinik dabilela, berriz ere babarrunak mugimenduan. Jaregin dio aurrekoaren arrastoari. Hura haize-lainoa jarri zuena!

Lagunak orduan:

- Aizu, zenbat zaldiko motorra dauka kamioi honek?

- Ehun eta hirurogeita bikua.

- Geldiu zaita, geldiu! Zaldiin bat akaauta daola uste'et-eta.

NOR AITA?

Antzina, orain bezala, baziren harreman harrigarri samarrak gizon-emakumeen artean. Baserri batean seme bakarra zuten. Senar-emazteak, abere batzuekin, hegazti mota asko, oilo, ahate, uso, antzar eta beste, soberarik gabe, baina poliki bizi omen ziren.

Seme bakar hori, lasaia mutila, arta-pusketa hutsa, ona oso. Aita-amak bere sasoian lo egonak ez baziren ere mutilak ez zuen haien antzik ekarri. Ez zen amak nahi bezain bizkorra. Behin baino gehiagotan esan zion:

- Moteil hoa festaa, neska earrak izengo'ituk gaur erromerin; dantzan eta neska-laguntzen hasteko ordu ba'ek.

Senarrari esango zion:

- Gue seme honek eundo ez diu andreik etxeauko.

- Zare lasai emakumia, hasiko'a bai, garaian do oaindik.

- Bai, garaian! Gu zahartzen ai gea eta oain zan garaia.

Udaberrian, goiz-ihintza kendu baino lehen han ari da mutila gereziak kolkora biltzen, tarteka ale batzuk janez. Hain zuzen ere, gaineko aldeko bidetik, txist egi-ten dio, astoarekin errotara doan auzoko neskak:

- Zakua okertu zait, lagunduko al zianduke?

- Bai zuzenduko deu – esanez hurbildu zaio–. Garratz samarrak dare, oaindik ez dia ondo heldu baino, probau nahi al dituzu? –gereziak eskainiz hurbildu zaio mutila.

- Eskerrik asko.

Zakua zuzendu ondoren, murkatzean eseri biak eta lehen-gereziak janez, kontu-kontari ari dira. Txoriak lagun eta kuku-hotsez inguratutik, zeru batean daude. Mutilari halakoxe zirikada bat sortzen zaio, hain lasai eta gozo zegoen bihotzean;

esan ere bai zerbait neskari:

- Politta zare Jexuxa!

- Hala iruitze al zatzu?

Hurrengo goizean, toki eta ordu berean elkartzekotan, hor doa bikotea bakoitza bere bidetik.

Ia egunero, gerizak bildu eta apatx egin eta janez, hor dabilta. Azkenean, ezkontzeko mandatu egin dio fin asko mutilak. Musua gerizatu zaio neskari, bai ia baiezkoa eman ere.

Amak dagoeneko zerbaiten susmoa hartuta, honela dio aitari:

- Aizu, Miel Mari! Gure mutil hau apurren bat aztoatzen hasi dan antzik eman al diozu?

- Nik ez, ze ba?

- Nik bai ba. Txistuka eta askoz bizkorrao dabil eun hauetan. Kukun etorrera izengo'a.

- Zure iruipenak – dio Miel Marik.

Goiz batez, artajorran ari direla, mutilak aitari, lotsaz:

- Aitta, zeoze esan nahi nizuke.

- Hik esango'ek.

Burumakur mutila:

- Zea, zea...

- Ez hai lotsau moteil! Okerren bat ein al dek? Esan zak!

- Ezkontzeko asmua'et.

- Bejondeiala moteil, sasoi hobeik ez huan aukerauko. Zein dek andregai hoi?
- Lartaietako Jexuxa.
- Enel –aitzurak eskuetatik ihes egin dio aitari. Hitzik gabe gelditu da.
- Ze, ez al zatzu ondo iruitzen?
- Moteil, ez dek begi txarra euki baino... e'nauk estuasun earrean jarri oaintxe.
- Ze ba?
- Inoi esan beko zeoze aittortu beherrian jarri nauk.
- Zer dezu ba aitta?
- Lotsa gorrian nitxeok motel. Joxe, ezin heike Jexuxakin ezkondu.
- Zeatik ez?
- Isilean zeok, baina Jexuxa nere alaba'ek, anai-arrebak zeate. Amak eze etzekik eta isilik gorde beharra zeukau.

Mutila zeharo jota utzi du berri txarrak.

- Ez hai estutu, besteen bat izengo'ek.

Bazkaltzerakoan isilik bi gizonak. Amak:

- Ze haizek jo zaittuzte gaur? Ez al dezue hitzik?

Mutilak, hanka, ihes. Amak orduan:

- Zer du horrek?
- A! Beak jakingo'u –ezer ez baleki bezala.
- Gue mutilak zeoze ba'u. Okerren bat izen du horrek.

- Bai, zea izengo'u!

Iluntze aldera hartu du amak mutila, otzan-otzan hartu ere:

- Joxe, ze gertatze zak? Murgil samar ikuste haut.

- Ez da eze, ama!

- Bai, zeeze pasa zak hiri, ez jan, ez ean, triste hao; hi ez haiz aurreko eunetako Joxe. Okerren bat ein al dek?

- Ezetz ama!

- Okerrak gero azaltze'ituk eta garaian ibili ezkeo zuzendu're bai. Aittai esango ez baiok'e, esaiak nei, ama nauk-eta. Amak bazekik makina bat gorabehera tapa-tzen.

Isilik mutila.

- Joxe, neskan bat?

- Bai, ama, bai.

- Dana dala, eta ze?

- Andregaia ein det-eta.

- Earki, zein dek ba hire maite hoi?

- Lartaietako Jexuxa.

- Hara, neonek begiz jota nekana. Hoi dek neska hoi!

- Bai, baina...

- Ze baina eta baina ondo geo!

- Aitak esan dit Jexuakin ezin neikela ezkondu.

- Zer dala ta?

- Zea, bere alaba emen da Jexuxa eta senideak emen gea.

- Hoi esan al dik? Ba esaiok aittai, Jexuxa haren alaba bada, hi're ez haizela harena, nik dakidala hi zeinena haizen. Etzeate anai-arrebak, etzeate senide, aittak hala uste badu're. Hoi nik zekit ondo, ez aittak. Beaz ezkondu zinezkete lasai. Guk meezi haineko mutila bahaiz hi eta ekarri zak lehenbailehen andria etxea, ondo hartua izango'ek-eta. Ez hai tristetu. Gue okerrak jakin dittuk eta barkaziua eskatze'it. Lotsau ein beher nikek, baina hire zoriona'ek hemen oain mami, gihar, berantzagi eta legami.

Jakinak jakin, mutila ez zen haserre. Jexuxa behar zuen eta orain ez zegoen eragozpenik. Horra hor non askatu zen korapilo latza. Esaera zaharrak hala dio: "Amak jakiten du haurra norena dan".

LEZOKO SANTO KRISTORI PROMESA

Alde hauetan ohitura handia zen, batez ere larrialdi edo estutasunen batean aurkitzean, Lezoko Santokristoari ikustaldia egitekoa, limosna edo horrelako zerbait agindu eta eskainiz. Albizturren ere horrelako zerbait gertatu izango zen.

Txominek esan omen zion andreari:

- Lezora noa, Joxepa!

- Ta zerk heldu dizu zuri Lezora joateko?

- Ba, poliki bizi geala ta, Lezoko Jesukristoi eskerrak ematea nua.

- Aizu, neonek'e promes eina'et, eta zu joateaz nik'e jun beher det.

- Promesa? Ze promesa?

- Promesa, eta bete beherrekua gainea –andreak.

- Bai zuek emakumeok, katuak umeak ein beher badittu're promesa ein beher izate'ezue, beti jun-etorrian ibiliko zinakete.

- Isilduko al zea kaskailu hoi!

Hor doaz, makila muturrean fardeltxo dutela, taka, taka, Pasaian barrena. Non euri zaparradak harrapatzen dituen. Txominek brusa jasotzen du burura:

- Hara, zuk ein dezu zerea –Joxepak.

- Ba, ein zuk'e beste horrenbeste –Txominek.

Eta andreak hartu atzeko aldetik gonak eta jaso ditu burura. Jaso behar baziren bai jaso ere. Gonarekin batera ez du ba atorra ere jaso. Jendeak barre egiten zien parean pasatzerakoan, eta andreak:

- Hauxe da jende txorua daona hemen. Ez ote dute inor behin ere ikusi horrela?

- Parre eingo ez dizue ba Joxepa?

- Ze ba?

- Zea, ipurdi agerian zuaz-ta.

- Ni? –eskua ipur maisailera eramanez.

Hotz-hotza sentitzean hor hasi da:

- Hau da lotsagarrikeria! Nun zinan zu, lehen nola ni joan ez esateko?

- Nik ba al nekin holaxe juteko promesa einda bazenden'e?

- Ez dizut behin'e barkauko ein diazuna. Mundu guztiin aurrian era hontan, hau nabarmenkeia!

- Zuk ein dezu zuk, eta ez nik nabarmenkei hoi. Etxian egon bazina...

- Parre eitte al dezu parre? Nik ez daukat parregureik.

- Etzaude horren zatarra emakumea!

- Demorrio zoroa!

Iritsi dira Lezora eta egin dituzte aitortza, limosna eta promesak. Hango lanak egin ondoren, andrea ez zela gehiago Pasaiaetik pasako eta Txikierrdin barrena abiatu ziren, Astigarragan sagardoa edanez. Hala etorri omen ziren Albizturra.

Bidean Txomin saiatu zen adarra jotzen Joxepari.

- Euria dator, Joxepa!

- Isilik ez bazaude...

- Hurrengo zaparradan gonak jaso, baina ez atorra, hoztu eingo zea –barrez gizonak.

Andreari ez zion grazia-rik egiten, artean lotsa pasatu gabe zeukan.

BASABIL-TXIKI

Baserri horretan ama alarguna eta seme bakarra bizi ziren. Seme hau gainera elbarria zen, hanka bihurria, baina ez makala. Errezilera elizaren ingurura etorri ziren bizitzera ama-seme horiek bi behi eta astoarekin. Esnea saldu eta aldian txahalen bat kenduz bizi ziren.

Herrian zurrumurrua zabaldu zen Basabil-txiki ezkontzen omen zela-eta.

- Ba al dakizue Basabil-txiki ezkontze'ala? –batek.

- Tira, tira! Basabil-txiki ezkondu? Isilik zare isilik! –besteak.

- Baietz ba!

- Zenekin?

- Ernio atze hortakua omen du andregaia.

Hala, zabaldu da herri osoan ezkontza hotsa, baita apustuak egin ere "zea etorriko'ek horren ondoa", esanez. Ezkonduta ere ez zuela ondorengo askorik izango, etab. Bere belarrietara ere iritsi zen zurrumurrua eta hala esan omen zien hura

zirikatzen hasi ziren batzuei:

- Ze uste'ezue nik hanka bihurriak dittuala-ta ezkontzeko e'naizela gauza? Ba hanka okerrak izen arren gaineako tresnak zuek bezin zuzenak zezkeat geo nik!

Esan eta izan, bai gero laian ongi egin eta landareak ekarri ere. Orduan bukatu ziren hango berriketak.

HARAKINA

Ezer gutxi zuten senar-emazte batzuek, ondorengorik ere ez eta, zintzoak zirenez, poliki bizi ziren elkarrekin, oso elkar maite. Emazteak eutsiaren eutsiz, ez zuen etxerik galduko, ez horixe; xuhurra, xuhurra arraioa!

Biharamunean San Jose eguna zela-eta, arkume puskaren bat etxeratu zuen andretxoak. Bazkari on samarra egin nahi ba. Gizonak zer zati ekarri zuen ikusirik:

- Emakumea, ez gea arkumez ittoko! Zuaz, hotx dirua beher baezu, ta ekarri zazu arkume koskor bat; zuaz Juan artzaiana eta ekarri zazu azkar arkumia, biziik, arkume osuai pusketa asko kentze zaizko-ta.

- Bai, ta zenek hil beher du? –andreak.

- Zuk ekarri, ta neoni konponduko naiz.

la negar eginean hor dakar igurtziaz, igurtziaz, maitekiro arkume txikia.

- Hara hemen Xixilio. Hau ezin hilko'ezu ba...

- Ta hil be nola jango deu? Eamaiozu Martin haakinai. Hil ta narrutu zala.

Atso bihotz bera, hor doa arkume gizagaixoa beeka besoetan duela, harategira.

- Gure Xixiliok esan du, hiltzeko hau eta narrututa jartzeko; ni bitartian elizaa nua, ez det ikusi nahi –andreak erdi-negarrez.

Rist eta rast, hil eta narrutu du harakinak. Andrea etorri denean esan dio:

- Hara, hemen dezu.

- Zenbat da? –andreak.

- Ezer ez!

- Ezer ez?

- Ez lan hoiek narru-truke egite'ittuu.

Ezer erantzun gabe, buru makur, lotsa-lotsa eginda, hor doa gaixoa etxera, arkume hila eskuan zintzilika duela, odol tantak darizkiola, negar zotinez.

- Zer dezu nearrez emakumea? –gizonak.

- E'naiz ni berriz gizon horrena jungo.

- Ze ein dizu ba?

- Ezer ez.

- Ze esan dizu ba, emakumea?

- Ez dizut esango. Lotsabe alena, e'naiz berriz jungo, ez!

Gizonak bere artean "jakin beherko deu ba ze pasa dan", eta hor doa harategi-ra.

- Aizak, Martin, ze esan diok nee andriai?

- Nik ezer ez.

- Zeoze esango hion. Nearrez jun dek etxea, arkumia eskutan zintzilika dula, lotsatuta, gehio ez dala etorriko esanez. Zotinka geldiu'ek.

- Hara motel, guk eindako hitzak hauetxek izan dituk. Zenbat dan galdetu ziak eta nik, ezer ez, erantzun. Guk lan hauek narru-truke egite'ittugula. Hala dala gure ohitura, hik badakik hori.

- A, rekoño! Hoi nik bazekit baina harek ez. Beste era batea jaso'ik hire hitza.
- Bai zea! –barrez harakinak, okerra nondik sortu zen konturatuta.
- Argitu beherko zezkau gauzak.

Nahiko barre egin zuten bi gizonak.

DON KANDIDO APAIZAREN IPUINA

Berastegiko apaiz jaunak egundoko ametsa egin omen zuen behin, izututa gelditzerainokoa noski: Zerura igo omen zen amets horretan eta Aita Jaungoikoak jipoitu egin omen zuen gainera apaiza bera. Berastegitik oraindik ez zela inor zerura iritsi eta haserre Jaungoikoa.

Sakristauari esaten dio:

- Hi, Tiburtzio, bart ametsetan gaizki ibili nauk.
- Zer ba, jauna?

- Hara motel, zeruan izan nauk eta berastegitar bat bakarrik ere ez zegok han eta Aita Betikoak pasara ederra eman zidak. Eta ez nitek esango amets hau gezurra denik. Jende bihurri eta gaiztoa zagok herri honetan eta zerbait sumatu beharrean gaudek; beldurra nola edo hala sartu beharra zeok eliztar kaskal hoiei.

- Hoi zeorrek ikusiko'ezu.

- Ba, datorren iganderako herri guztia elizan sartzeko era egin beharra zeukaau. Jo hitzak ezkila guztiak eta esan, igandean denak elizara etortzeko; azken juizio-hotsak direla, eta barkazio eguna izango dela, eta...

Herri guztia jarri dute beldurtuta gora begira.

- Ba al dakik nola ikaratuko ditugun? Hi jarriko haiz elizaren ganbaran, txopeta bete ikatzi su emanda. Nik suzko euria Jaungoikoari eskatzean hik zulotik behera

su apur bat isuri behar dek. Aittu al dek?

- Bai, Jauna.

Igandean gainezka eliza. Hasi da hitzaldia, gurutzea eskuan duela:

- Zeruan izan naiz lehengoan, eta ba al dakizue berastegitar bat bakarrik ere ez dagoela zeruan? Aita Jaungoikoa gozoa zegoen ba! Nik hartu nituen hartzekoak! Sinisten al duzue hori? Inor ere ez zeruan Berastegitik, ezta Bixenta-txiki ere, ez dago han. Jende gaiztoa dago herri honetan eta Jauna gehiago haserretu baino lehen, eman hemen hitza, ondu eta zuzenduko zaretela; eska barkazioa!

Izutu ditu eliztarrak. Atsoak negarrez ipini ditu. Sakristaua zain dago elizaren ganbaran, sua noiz botatzen hasiko.

-Jaun errukiorrak herri honek merezi duen zigorra isuri beza; baita zulotik behera sua behar baldin badu ere. Bota, bota! –dio apaizak deiadarka.

Prasta-prasta, sua goitik behera sakristauak. Hango negarra eta kurrixka hotsa elizan!

- Bota, bota! –berriz ere apaizak.

Eta sakristauak zulotik:

- Ahitu da, jauna! Ez daukat ikatzik.

Hara dena hondatu! Elizkizun beldurgarritzko hura sakristauak hondatu eta bukatu zuen.

Ipuin hau amaitzean guk txalo egin ohi genuen.

BERTSOAK ERREZILGO BASO-MUTILEK JARRIAK

Ondorengo bertso sorta hau Errezilgo baso-mutilek jarria dela dio. Garai baten lekuko polita izan liteke.

1

Mila pasata beratzi ehun da
hoeta hamabia urtea,
komeni data abiatu naiz
bertso berriak jartzea,
egun batian sortu ginaren
kristau gaiztuen tarteak,
zein aldetatik aldatu dezun
ondo kontuak atea.

2

Zerbait esaten hastera nua
gutzizko borondatian,
ez det pentsatzen izengo danik
askorentzako kaltian,
endredatuak jarri gaituzte
bizi ginanak pakian,
baso-tratu bat izen dalako
Beizamako partian.

3

Telefonua Beizamatikan
jo zuen gure herrira,
baso tratuba zerratutzeko
ez zuen asko kupira,
mejora danak betzat nahi ditu
galerak berriz erdira,
lehenago tonto zeuden txoriak
ederki argitu dira.

4

Baso tratuba egin genduan
orain ukatu egin du,
lehen ez zekien bakiña batek
gauza hori're jakin du,
sokratzen bazan pagatzekotan
atzera zigun agindu,
toki onian gelditzen ginan
lanikan egin bagendu.

5

Tasatzailia Zegamakua
izendatu zan aurrena,
biak konforme izatekotan
harek esaten zuena,
kontzientziai begiratuaz
egin zuen al zuena,
hartu-emanak berdin dabilzkin
errespetozko gizona.

6

Danok lanera juan ginaden
gu ostiela goizian,
atzera laster bueltau ginala
esandakuak bazian,
jendia azkar aspertutzen da
dirurik izan ezian,
jornal gabeko morroneruak
aspaldi aspertu zian.

7

Baso harekin horrek egin du
ikaragarritzko burla,
pentsatu gero hau esateko
arrazoia badegula,
beria ondo egin ezkeru
horri ez zaio ajola
eginda gero ukatzekotan
tratun ez hasi sekula.

8

Enparazi're egina zigun
gonbreztazio zikinez,
apenas dauan asko jantzia
orazio ta dotrinez,
zure mundua hala dijua
inori kalte eginez,
zenbat holako egina zeran
Jainkuak bestek jakin ez.

9

Errezildikan atera dira
oraingo bertso berriak,
sentimentuba daukaten batzuk
arrazoiakin jarriak,
oso zaila da zenbait pertsoni
ondo hartutzen neurriak,
aitu nahi ez dun inor badago
itxi bitza belarriak.

10

Mundu honetan gizon guztiak
nola ez geran berdinak
jendiak gouan eukitzen ditu
bestiak gaizki eginak,
baino lege hoi ez du erakusten
Jesukristoren dotrinak,
nahi dezunian bueltak jarri
asmauko'itugu ordainak.

ERREZIL ETA BERTSOA:

Aurreko bertsolarien arrastoak nahiko nabarmen gelditu zaizkigu, hor aipatutakoen artean: Igortegi, Txapel, Zepai, Basarri, Loidisaletxetarrak, Artañolatarrak eta abar. Bati baino gehiagori entzun zaio esaten, garai batean Errezilen ia etxero zegoela bertsoa taxuz bukatzeko gai zenik.

Horren adibide modura gogora dezagun 1980ko hamarkada horretan izan zuen susperraldia. Errezilen herriko txapelketak jokatu ziren 1984, 1985 eta 1986an. Harrigarria badirudi ere herriko txapelketa horietan, bakoitzean bederatzik hartu zuten parte, hamaika izen guztira, eta denek eman zuten maila gainera. Lehen bietan Joan Jose Loidisaletxe izan zen irabazle eta 1986an anaia, Bitoriano. Saio batetik bestera izen gutxi aldatu ziren. 1986tik aurrera gehiago ez zen antolatu.

Errezilgo Txapelketak: 1984an, 1985ean eta 1986an.

Partaideak:

- Juan Jose Eizmendi *Loidisaletxe II*: lehen bietan
- Manuel Bereziartua *Buztunzuri*" lehen bietan
- Jose Antonio Agirretxe *Errota*: hiruretan
- Bernardo Azpillaga *Añoi*" hiruretan
- Manuel Agirretxe *Ezuitza*: hiruretan
- Joxe Mari Iturria *Portugal*: hiruretan
- Manuel Iturria *Portugal*: hiruretan
- Ignazio Goenaga *Loidi Txurii*: lehenengoan eta hirugarrengoan
- Eleuterio Arzallus *Ibargun*: lehenengoan eta hirugarrengoan
- Bitoriano Eizmendi *Loidisaletxe III*: bigarrengoan eta hirugarrengoan
- Karmelo *Bentaberri*: bigarrengoan eta hirugarrengoan

Gai-emaile: Mikel Mendizabal; Sebastian Lizaso; Iñaki Murua

Epai-mahaian: Millan Telleria, Iñaki Murua eta Joan Agirretxe "Ibarbi", Paulo Agirre.

Lekua: Erniope Elkartea.

Oharra: Lehen saioaren hasieran Antonio Mari Loidisaletzek ongietorri eman ez bota zituen hiru bertso. Sariak ematen ere bera izan ohi zen.



1986ko Errezilgo Txapelketakoa da goiko argazkia. Zutik ezkerretik hasita: Manuel Portugal, Eleuterio Ibargun, Karmelo Bentaberri, Jose Antonio Errota, Bitoriano Loidisaletxe III (txapelduna) eta Bernardo Añoi. Erdian eserita ezkerretik: Antonio Mari Loidisaletxe, Inazio Loidi Txuria eta Imanol Lazkano. Lehen lerroan makurtuta ezkerretik: Manuel Ezuitza, Iñaki Murua; Joan Joxe Loidisaletxe II, eta Jose Mari Portugal.

Manuel Agirretxe *Ezuitzak* honela eman digu garai haren berri:

"Beharbada ez da harritzekoa Errezil hainbeste bertsolariren sorlekua izatea,

Imanol Lazkanok esan ohi duen bezala hitz joko aparta zuen eta duen jendea da errezilda-rra, adar-jotzea gustuko duena, ironia erabiltzeko joera duena, norbait erantzun edo norbait zuzentzerakoan, esaldi errimatuak edo halako zirikadaz osatutako esaldiak ohi ditu oraindik ere, zenbaitek mingain puntan. Eta dohain horiek beharrezkoak dira bertsolari izateko.

Beraz dohain horiek landu eta bertso zaletasun pittin bat berekin duenak bertsotarako osagai onak dauzka berekin, eta 80ko hamarkadako fenomeno hura ere horretan kokatuko nuke nik.

Nere kasuan mutil-koxkorretatik izan naiz bertsozalea, eta zalea denak beste edozer gauzetan zalea denak bezalaxe bere gisara egin ohi ditu lehenengo saia-kerak, hurrena norbaitekin eta gero norbaitzuekin, taberna edo lagun giroan gehienetan.

Horrela, garai hartan Loidixaletxetarrak baziren ere sonatuenak, beti izan ohi zen, halakok Santa-eskean kantatu omen zuena, edo beste halakok tabernan kantatzen omen zuena eta abarren aditzera. Nabaria zen bertsotan egiten zuen jendea bazegoela Errezilen, eta bururatu zitzaigun denen artean zerbait egitea. Beharbada ez zen txapelketa jokatu asmoz pentsatutako ekimena, baina elkar probatzeko grina hori ere nola odolean daramagun, ondoentxona egiten zuenarentzat txapela jartzea erabaki zen eta halaxe irten zen hura.

Hasiera batean halako oihartzunik izango zuenik ez genuen pentsatu ere egin, eta guk uste baino dimentsio handiagoa hartu zuen.

Gerora jarraipenik zergatik ez zuen izan? Nik uste, neurri hartako txapelketak jokatzen jarraitzeko beste dimentsio bateko antolaketa bat eskatzen zuela, eta urtero gauza bera errepikatzen joateak ere ez zeukala zentzu handirik".

1985ean, *Fernando Amezketarra* herri-arteko txapelketan taldea osatu zuten, Joan Jose Eizmendi *Loidisaletxe II*, Inazio Goenaga *Loidi Txurii* eta Bernardo Azpillagak.

BERNARDO AZPILLAGA AÑOI

Bernardo Azpillaga, gaztetan, zenbait txapelketatan parte hartua da, Eskolartekoan, Osinalde, Gipuzkoako Txapelketa, etab.etan, eta baita nahiko poliki ibili ere. Adibide modura hara hemen saio horietako bat:

Gipuzkoako Txapelketa 1995. Urretxu.

Bernardo Apillaga/Bizente Gorostidi:

Gaia: Gorostidi txori ama, Añoi txorikumea. Gaur goizean kabitik alde egin du txorikumeak, eta amak ilunabar aldera aurkitu du zauriturik sasi artean txioka.

Gorostidi:

Hegan hasi nahiean
goizez egin plana,
eta saltatu egin da
semetxo laztana,
gero ez da hurbildu
hegaz neregana,
sasitik oihu egin dit:
Ama, ama, ama!
Hurrengoan entzungo
dek nere esana.

Añoi:

Orain artian ginan
gu biok sozio,
baina nik kabitikan
aidea desio.
Gaur goizean hegadan
irten naiz propio,
orain sasian nago
txio eta txio.
Etorritzerikan ez
al zegoen lehentxio.

Gorostidi:

Joatea bazegoen
ez diot ezetzik,
zertan aldendu zera
zu nere hitzetik?
Ama pasa erazi
holako trantzetik.
Arrautz azalak nahiz ta
zuk ia utzi hutsik,
hegan eiteko oraindik
ez dezu arrautzik.

Añoi:

Nere hegaldia du
honek ezereztu,
ama izanagatik
gauz hori berez du.
Ni txorikumea ta
hegarako prestu,
arrautzik ez dedala
nahiz hori sinistu,
nik ez daukat ez baina
amak ere ez du.

Gorostidi:

Nik egin izan diat
arrautz pil galanta,
ez dudala esatea
besteik ez zen falta.
Ea konpontzen degun
gertatu den marka,
kaban jarriko det
orain zure hanka,
baina ikasi arte
gehiago ez salta.

Añoi:

Txiki txikitatikan
naiz burua hausten,
ta amak ez dit berriz
ia kaban eusten.
Egoteko garaiak
pasatu gintuzten,
zuk nola egiten dezun
egon naiz ikusten,
hasitakoan berriz
ez du erakusten.

GAURKO GAZTEAK

Gaur egun, Errezilen badaude bertsotan ari diren gazteak eta baita, orain iraunkor-ki egin ez arren, urte dezentetan kantuan aritu direnak ere. Hor ditugu Aitzarteko bi ahizpak, Nekane eta Izaro Zinkunegi; Eneritz eta Nagore Arzallus eta Eneritz Eizmendi Loidisaletxekoa, besteak beste.

Nekane Zinkunegi, Eneritz Arzallus, Eneritz Eizmendi, Izaro Zinkunegi eta Nagore Arzallus Eskolarteko txapelketatan parte hartuak dira zenbait urtetan, idatziz zein bat-batean.



Eneritz Arzallus (ezkerrean) eta Nekane Zinkunegi (eskuinean) 2004an Eskolarteko Bertsolari Txapelketan, Zarautzen.

Nekane Zinkunegik eta Eneritz Arzallusek gazteen txapelketa edo sariketa gehiagotan ere parte hartu izan dute: Erniarraitz, Aztiri, Argiberri, Osinalde,

Hernandorena, Udarregi..

2011ko Gipuzkoako txapelketan ere biek hartu zuten parte.

Erniarraitzek antolatutako Bertso-parranda saioetan ere parte hartu izan dute Nekane Zinkunegi, Eneritz Arzallus, Eneritz Eizmendi eta Izaro Zinkunegik.



Ezkerretik eskuinera, Eneritz Eizmendi, Izaro Zinkunegi eta Nagore Arzallus.

Bat-batean ez-ezik bertsoak jartzen ere onak dira. Hara hemen hauetako batzuen zenbait adibide:

NEKANE ZINKUNEGI

Koherentziaren kontraesanak

(*Egurra ta Kitto* taldearentzat egindako letra originala)

1

Neure aldarrikapen
eta neure doaiz,
alboko inori ez
diot egiten gaitz,
esandakoan aurka
ibili arren maiz,
ni pertsona erabat
koherentea naiz.

2

Telefonoz deituta
"zer moduz eguna?"
Atzo galdetu zuen
gaur galdetu duna,
nahiz eta betikoa
izan erantzuna,
zerbaitetarako dut
bikote laguna.

3

Speed marratxo batzuk
pizgarri antzeko,
eta hamar kubata
puntuan jartzeko,
ondoren bi kanuto
lo lasai hartzeko,
nik ez dut ezer behar
ondo pasatzeko.

4

Arropetan daramat
Trangon propaganda,
rebajetan 100?
txollo bat izan da.
Ez dut asko gastatzen
egia esanda,
regateatzen baitut
txinora joanda.

5

Atzerritarrik ez dut
nik uzten aparte,
geuk egiten diegu
eta eurei kalte.
Beltza izanagatik
badu hainbat arte.
Errespetatuko dut
lana kendu arte

6

Berdintasunan bila
hainbeste endredu.
Komunerako kolan
lau neska gaude gu,
ta aurretik mutil bat
hor topatu degu.
Gu baino lehen sartu da,
baina ze uste du?

7

Kritikatu ohi ditut
zenbait mendi-pista,
kezkatu dagolako
natura erdizka.
AHT-ren gainetik
naiz ekologista,
ta_alde denetarako
nahi dut autopista.

8

Denda txikiek izan
dezaten segida,
bitartekari denak
kendu behar dira.
Kale-giroa nahi du
berpiztu, argi da,
enkargutara joanda
autoz Eroskira.



2011ko San Inazioetako *Emakumeok plazara* ekimenerako egindakoa, emakumeak partaide ziren zirko bat egin zuten, eta amaieran guztiek bertso hauek abestu zituzten.

Emakumeus zirkus

1

Euren disfrazen gerizan
ihauteria bailitzan,
Pin Pan eta Pun zirkoa_osatu
nahiean zebiltzan,
Akelarrearen gisan,
irrintziaren peskizan,
elkartu gara baina ez dugu
lehiatu nahi izan.

3

Argentinako ohiturak,
afrikar dantzen loturak,
euskaldunekin gailentzen ditu
estatuen mugak.
Gure nesken abenturak,
euren urratsen joskurak,
sinbolikoki uztartu ditu
munduko kulturak.

5

Gaur zirkorako demanda
bazen egia esanda,
Pin, Pan ta Pun-ek aurkeztu dute
kasting-aren txanda.
Emitza ona izan da,
ikuskizunak eztanda
egin du, geure baitan daukagun
onena emanda.

2

Geurea dugun euskera
edota arabiera
erabiliaz errexitatu
da poema bera.
Ta azalaren tankera
utzita alde batera,
zapalkuntzatik publikoratu
gaitezen batera.

4

Biolinaren aitortza
edota piano hotsa,
abesti horrek denoi ukitu
digunez bihotza.
Kenduz beldurra ta lotsa
kantari gatoz bakoitza,
maskara gabe entzun dadila
guztion ahotsa.

6

Orain bukatzeak pena
ematea da txarrena.
Gaur umoretik jorratu dugu
emakume sena.
Ta zein ote den onena
jadanik ez da problema,
denon artean osatzen dugu
zirko ederrena (BIS).

ENERITZ ARZALLUS

Etxeko andre naizenez...

Doinua: *Mendian gora haritza* (Imanol)

1

Goizero dudan ohitura,
zuzenean ispilura,
ikusi nahian eredu gisa
jartzen den itxura:
Gerri estuan lilura
ta bi metroko altura.
Baina sekula ez du erakusten
nahi nukeen hura.

3

Tarte bat dudan aldiko,
gitarra hotsa begiko,
gela barruan ezkutatzen naiz
kantuz neurekiko.
Ispilu aurrean tinko,
neu artista, neu publiko,
aurre-mantala erantzi gabe
bihurtzen naiz musiko.

5

Ta eguna bukatzeko,
gauero triste antzeko,
ohera noa behintzat izaren
babesa lortzeko.
Bihar errepikatzeko,
gehiago bai, ez hobeto.
Eskerrak behintzat gaua daukadan
amets egiteko!

2

Zortzi lanordu ta gero,
etxea nire espero,
erratza pasa, hautsak kendu ta
plantxa jarri bero.
Lan eta lan egunero
18 ordu-edo.
Aberastuta nengoke denak
kobratu ezkeror.

4

Nere desioa dena,
zapuzten didate dena,
"hire bizitzan erratzak zeukan
gitarra_antz gehiena,
ahaztu musikarena,
egin tokatzen zainena".
Azkenerako neuk sinesten dut
esaten dutena.

IZARO ZINKUNEGI

2008ko Urruzuno literatur sariketara aurkeztutako sorta, 16 urte zituela. Italiarako bidaiarekin saritu zioten sorta hau, eta han izan zen beste hamabi gazterekin batera.

Urrun izan arren

Behartuta egin behar
irri aldian aldian,
malkoak ordea sarri
masail eta aurpegian
lurreraino jausten dira
amaigabeko arian,
ez dute ezer balio
mina bakarrik agian.
Zu zara malko horien
iturria emarian,
ihes egin baitzenuen
babeseranzko argian,
nire ondoan nahi zaitut
baina nago miserian,
itsasoa baita bi lur
ta bi bihotzen erdian.

Ez zintuzten harrapatu
eta hobeto horrela,
akaso bizirik ere
ez baitzeundeke bestela.
Nahiz eta egun hartatik
jakin urruti zaudela,
errealitatea da
sarritan horren krudela.
Gogoan dut azken aldiz
zure alboan nintzela,
ikusitako guztia
pelikula bat bezela.
Ametz gaizto bakarra dut
txarrena egia dela,
elkar agurtu aurretik
ihes egin zenuela.

Mutil langilea zinen
pazientziaz beteta,
denerako nabaria,
adorea eta beta,
itxaropena zen ardatz
indar edo errezeta,
guztiak zuen zentzua,
guztiak zuen oreka.
Ez zirudien zorteak
hartuko zuenik buelta,
salatariak ordea
egin zuen berriketa.
Etsaiak iritsi ziren
lagun artean gordeta,
herriagatik borrokan
aritzen zinela-eta.

Egunez egun handitzen
doa barreneko harra
eta horrekin batera
zu ikusteko beharra.
Oroitzapenen mundua
bihurtu da aro zaharra.
Sentitu nahi nuke berriz
gertutasun haren garra.
Nahiz eta ez den itzali
dago ahuldu xamarra,
baina guk hautsiko dugu
eurek jarritako marra.
Distantziak ezkutatzen
du argi izpi bakarra,
zugatik borrokatzeko
ematen didan indarra.

Sei hilabete pasatxo
elkarrengan amesteko,
gorputzak ordea urrun
muxu bana trukatzeko.
Zaila egiten den arren
zuretzat askoz hobeto,
bestela itzalpe beltza
izango baitzen tarteko.
“Maite zaitut” idatzia
zure gutun bakoitzeko.
Beti gaude denboraren
gatibu eta menpeko,
baina laster da eguna
dena berreskuratzeke
eta gutunez esana
begiradaz esateko.

ENERITZ EIZMENDI

Ondorengo sorta hau, 2009an, eskolan “Eutanasia” gaia taldean lantzen ari zirela, talderako Eneritzek jarritakoa da.

Bizi nahi eta hil ezin

1

Nahiz eta izan mundu guztiak
ahotan darabilena,
bizitza oso laburra denez
gozatu ahal den dena,
baina gozamen behar zuena
bihurtzean sufrimena,
inguratzen zaituena,
mina tristura ta pena,
hilda bizirik egotearen
adibiderik onena,
bizirik eduki araztea
hilik egon nahi duena.

2

Zure burua betiko loan
utzi nahian pentsatzean,
duzun beldurra momentu oro
jarraitzen du ezetzean,
nork daki zenbat sufri daiteken
garaia ailegatzean,
baina pentsatzen jartzean,
hemendik aurrerantzean,
sufrimendua aurki leikela
egoera bakoitzean,
lasaitasuna lortu nahi dezu
zerorren heriotzean.

3

Duzun minaren behin betirako
amaiera nahiz aurkitu,
jabetzen zera ezin dezula
zure gorputza mugitu,
zure burua hiltzeko ere
aukerak eraman ditu,
hargatik gerran segitu,
nahiz ta indarrak akitu,
borroka hontan azkenerarte
ez nuke nahi errenditu,
enbarazu bat izatekotan
hemen zergatik gelditu.

5

"Zerbait eskatu nahi nizueke
ahal dudan bitartean,
hiltzeko zuek behar zaituztet
nirekin ezinbestean,
halere baikor ikusi gauzak
ez datoz zuen kaltean,
ni hemendik joatean,
bi uso tiro batean,
botako dira bizitza hontan
azken aldiz arnastean,
nik dena ahaztu eta zuentzat
askapena iristean".

7

Nahiz eta nire familiaren
baiezkoek gaina hartu,
gizartearen laguntasunik
ezin leike eskuratu,
hitz hutsal hauek erabilia
nire asmoak ukatu,
"zure bizia bukatu,
hau ezin leike barkatu,
arazo denei begietara
behar zaie begiratu",
hau diotenak nahi ta ezina
zer den ez dute probatu.

4

Tetraplegia ezintasunak
estu nauka bahituta,
burua ez den beste guztia
daukat ezin mugituta,
beraz laguntza eskatu behar
duintasuna salduta,
familia elkartuta,
tristuraz inguratuta,
euren laguntzaz amaitu nahi det
nire barruko disputa,
maite banaute eraiklo naute
muxu batez agurtuta.

6

Sei dira baietz esandakoak
ta lau ezetz diotenak,
hau entzutean aldatu zaizkit
nituen ideia denak,
naiz eta asko maiteko nauten
lagundu nahi didatenak,
maitasunik garbienak,
ezetz dioten haienak,
eurak eduki ditu lotuta
ni zaintzearen kondena,
ta hala ere beraiek dira
ni galdu nahi ez nautenak.

8

Gizarte honen printzipioek
dute halako indarra,
probatu gabe erabakiaz
zer den ona edo txarra,
aspalditxoan pasa zutenez
gizatasunaren marra,
aholkuak barra-barra,
ez al da krudel xamarra,
nire esanak betetzearren
espetxeratu beharra,
infernutikan zerura joaten
lagundu didan bakarra.

Pena tartean oinarritua
nuen bizi egoera,
zure ekintzak ni eraman nau
maitatua sentitzera,
nik bidaiatu al izateko
bizitza hobe batera,
zu sakrifikatu zera,
etorkizuna galtzera,
hau da nigatik egin dezuna
eskertzeko dudan era,
zure izena sekretupean
eramango det lurpera.

XX. MENDEAN, BERTSOAREN KABI

Liburu honen helburua, erreizildarren hizketako bizitasuna azaltzea baldin bada ere, zalantzarik ez dago, hitzarekin jolas egiteko ohitura hori, oso-oso barneratua izan dutela, belaunaldiz belaunaldi, ia-ia bizio bihurtzeraino. Beste egitura eta neurri batzuen barruan, bertsolaritza ere hitzarekin jolas egitea denez, ez da kasualitatea Errezilen, eta bere inguruan bertsolari asko eta onak sortu izana. Hori horrela dela ziurtatzen duen mendi kasko berezi bat bada ondoren agertzen dugun grafiko honetan.

Hain zuzen ere Aizarnarekin muga egiten duen Etumeta izeneko auzo honetatik ikus genitzake, bertatik bertara, Txilarramendiko baserriak: Txapel eta Zepai; horietatik gertu, Saaberri baserria, Joxe Lizaso hazi eta bizi izandakoa -gaur egun bere errautsak ere auzogune honetan daude-; pittin bat beheraxeago, Korostieta bi bizitzako baserria, Patxi Iturzaetarena bata, eta Agirretarrak bizitako baserria bestea -hor ere baziren bi anaia bertsolari-. Auzo horretan ia baserri bakoitzean zen bertsolariren bat. Handik urrutira gabe dago Artañola baserria.

Kasko honen parez pare ageri da, Izarraitz hegalean, Oranda, Joxe Agirreren baserria. Pittin bat urrunago ikus daiteke Endoia auzoa, eta bertan zen Uztapide baserria. Toki honetatik ikusten ez bada ere, oinez hogeit hamar minutura dago Granada baserria, Basarriren jaiotetxea, eta handik ez oso urrun dago Aiako herria, Manuel Lasarte hazi eta bertsolari egindako toki, Leitzañ jaio bazen ere. Leku honetatik berrogei bat minutura, Errezil aldera, Loidi Saletxe baserria dago, hainbeste bertsolariren kabia. Odria bailara honen barrenean dago berriz, Landeta auzoa eta hor zen Antzibarren baserria, Imanol Lazkanoren jaiotetxea, eta hortxe Landeta taberna Lizasoren jaiotetxea ere, garai batean halako bertso-giroaren biltoki bilakatu zena.

Garai jakin honetan inguru honek bertsolaritza izan duen garrantzia adierazi nahi izan dugu grafikoki, besterik gabe.



LIBURU HONETAKO ATERALDIAK ONDORENGO PARTAIDEEK JASOTAKOAK DIRA:

Imanol Lazkano

Joan Jose Eizmendi *Loidisaletxe*

Inazio Goenaga *Loidi Txuria*

Jose Zinkunegi *Aitzarte* (zendua)

Jose Mari Azpillaga

Jose Ignazio Azpillaga

Manuel Agirretxe

Jose Luis Gorrotxategi

Joantxo Sagardogi

German Zelaia

Luis Beloki *Añota*

Haritz Etxeberria *Ministro*

Anttoni Lazkano

Arantxa Azpillaga

Iñaxiomari Atxukarro *Irriparrezko Printzak* liburua

Ander Seguroiak grabazioak

Laxaro Azkunek transkribatu eta idatzi

UZTARRIAREN PRODUKTUAK

LIBURUAK

Joxe Takolo	Enekoitz Esnaola, 2001
Angel Otaegi	Iban Arregi, 2001
Imanol Elias	Mailo Oiarzabal, 2002
Patxi Altuna	Josune Etxeberria, 2003
Azpeitiko efemerideak	Imanol Elias, 2003
Azpeitiko mendi gida	Lagun Onak Mendi Bazkuna eta Uztarria, 2004
Euskarazko prentsa eta Azpeitia	Uztarria, 2004
Loiolarik ez balitz	Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005
Otsobeltz	Andoni Salegi, 2005
Urrestillako musika taldeak	Asier Sustaeta, 2006
Azpeitiarrak Espainiako Gerran	Amaia Mendizabal, 2006
Oroitarri	Kepa Urbieto, 2008
Errezildarren ateraldiak	Erniarraitz Bertsozale Elkarte eta Uztarria, 2013

CD-A

Urolaldeko bertso zaharrak	Erniarraitz Bertsozale Elkarte eta Uztarria, 2007
----------------------------	---

LIBURUXKA BIOGRAFIKOAK

Julian Bereziartua	Ander Ugarte, 2009
Leo Etxeberria	Miren Garate, 2009
Valentina Agirre	Olatz Prat, 2009
Santi Lazkano	Nekane Zinkunegi, 2010
Amaia Garmendia	Xabier Otamendi, 2010
Enkarna Arregi	Alexander Silva, 2010
Iñaki Bergara 'Pio'	Monika Juaristi, 2011
Bernardo Aizpitarte 'Kabra'	Joxin Iturriotz, 2012
Enrike Zurutuza	Ihintza Agirretxe, 2012

UZTARRIAREN BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa





Erniopeko baratz
edo paradisu,
argazkian xarmanta
ta hizketan maisu,
batean nahiz bestean
distira darizu.
Begi-belarrientzat
zu zera sari zu!

Imanol Lazkano

Babesleak:



ERREZILGO UDALA



domusa

I.S.B.N.: 978-84-695-7493-5



9 788469 574935